

ATV 3802

J. FLEURI

ATV 3802


CRISIAU
DOSTRIN

ATV 3802



1785

ATV 3802





n-9934
R-4365

CHRISTAU

DOCTRIN

BERRI - ECARLEA

CHRISTAUARI DAGOZCAN

Eguia sinis - beharren - berría
dacarrena.

JAUN CLAUDIO FLEURI

*Abadeac arguitara atera
zuaneitic.*

FRAY JUAN ANTONIO UBILLOS

coac Eusquerara itzulia.

BI PARTE, EDO ZATITAN BERE

cia, ta erdiratua, Lendavicicò zatiac da

ca, Jaincoaren legue zarrean, ta ber

rian guertaturicaco gauzen berri laburra:

Bigarrenac, Christavac jaquin, ta siaistu

behardituan, eguien eracustea,
ta icas-vidèa.

BEHAR BEZALA.

Tolosan : Libruguille Francisco de la
Lama-rèn Echean, 1785. Urtean.

CHRISTIAN

1800

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

CHRISTIAN

HITZ AURREA.

Hizcunz bacoitzac ditú, hitzeguite-
co, berezco, ta bere echeco hit-
zac: gure eusquerac beinzat bai.
Oñez aterontzeco guèienac besterenac di-
tue. Ezpere beguira Erderari, ta ecu-
sico dezu, guèienac latin-hitzcunzare-
nac dituala, ta oez gañeracoac, noc da-
qui nongoac, ta norenac. Berezco hitz
oec, hitzcribitcean, ta esatean, ezarri
behardira, bacoitzari dagocan, toquian.
Eusqueraz darausquizinean, eusqueraz-
co hitzac ez badarabiltzatzu, zure erau-
sia hitzunea, edo *barbarismoa* dala esan-
go dizue; ta hitz bacoitza, dagocan to-
quian sartzen ez-padezu, zure hitz-jarri-
ri araututsa, edo *Solecismoa* deitaco dioe;
Bost onelaco enzuten degu eusquerazco
sermoietan! Ala baña, zori gaiztoan da-
cuscun bezala, euscaldur, guichic necatu
nai di eusquerazco hitzac billatzen, ta
bacoitza bere toquia ipintzen. Eusque-
razco hitzac ongui ez-padirudi, edo oitua
ez pada; hurà utzi, haren ordean artudi-

teque, arc esan naiduana, adirazteco adi-
ña dan, beste bat. Adizazu orain, guí-
zon andi jaquintsu batec eguíteco onen
gañean diona. Guizon hau dá . . .

Fr. Laurentius à Villavicientio, in suo
opere *de recte formando studio Theologiae*,
lib. 3. cap. 8. pag. 391. edit. noviss.

Quid dicam de sermonè patrio? an non
et huic sua relicta est palestra, et arena?
Maxime inquam. Nam quo quis sermo-
nis patrij est peritior, et in eodem disser-
tior, eo judicatur ad docendum populum
magis idoneus. Ac decet omnino Concio-
natorem aliquid supra vulgus præstare in
sermonis patrij munditie ac puritate: et
non modo verbis quibusdam elegantibus
ac exquisitis, verum etiam copia eorum-
dem locupletatum prodire. Puritatem ser-
monis patrij non haurias, nisi vel ex fami-
liari convictu eorum, qui tersissime et
nitidissime illum sonant, vel ex libris
commendatissima Dialecto editis,



I. IRACURTZA.

MUNDUAREN ECEREZETIC
eguitearèn gañean.



JAINCOAC BERE itzare-
 quin, ta bere vorondatez
 eguinzuan ecer-ezetic Mun-
 dua, bere gloriaraco, edo
 bere izate andi ecin-ederra-
 goa aguertzeco. Sei egunean eguin zuan
 Jaincoac Mundua, ta zazpigarrenan at-
 seden zuan. Guizona, eguiteco lenago
 moldatu zuan lurrez gorputz bat, eta
 gorputzari emancion, bere anceco eguin
 zuan, anima bat. Guizona da Jain-
 coaren imagiña, ta anzecoa; ceren Jain-
 coa ezagutu, ta maytatu dezaquean, ta
 orretaraco eguiña da guizona. Lenengo
 Gui-

Guizonari ceritzan *Adàn* : onen saietse-
 ezur batez eguin zuan Jaincoac , be-
 rarèn lagun izán behar zuan , emacu-
 mea ; jaquin cezaen biac , alcarri onguí
 nai beharco cioela , ta Alcarrequin vici
 beharco zuela , biac gorputz bacar bat
 baicic , czpazuqueen bezala ; eta one-
 la eguin zuan Jaincoac ezcontza , edo
 Matrimonioa. *EVA* ceritzan lenyicico
 emacumeari. Adàn , ta Eva , biac ipi-
 ni cituan Jaincoac , Parabisua ceritzan,
 berjera , lore-baratza , edo toqui zabal
 eder batean , zorionecoac bezala , atse-
 guin contentuz , ta behar zuen guciac be-
 teric an vicitzeco. Auqueran ceuzque-
 en , nai zuenean , jateco , Parabisu ar-
 co fruta guciac ; ta etzien Jaincoac
 debecatu , zuaitz edo arbola baten fru-
 ta baicic. Larru-gorrian ibilliagatic , etzi-
 rán batere lotsatzen ; Erzuen alabaña
 gaitzquiric , ez eta gaitzeraco griñaric
 ta gogoric. Il-gabe , ta neque gabe vici-
 beharrac cirán eren erara , ta noizbait
 eramango cituan Jaincoac , eriotzarèn ort-
 zetara gabe , emengo Parabisutic Ce-
 rucora. Guizon-emacumearaz gañera eguin
 cituan

cituan Jaincoac Aingueruac : oec dirà
gorputz-gabeco ispiritu uts batzuec.

Galdeas , ta Eranzuac.

- G.** Nore eguin zuan Mundua ?
E. Jaincoac.
G. Cer zaz , edo certatic eguin zuan ?
E. Gai-gabe , ta ecerezetic.
G. Nola ?
E. *Eguin bedi* esan , ta bestegabe.
G. Cèrgatic eguin zuan ?
E. Bere gloriagatic , edo bere izate , ta
edertasun ecin-neurri-garriac eracus-
tea gatic.
G. Cèr zaz eguin zuan lenvicico guizona ?
E. Lurrez eguin zuan gorputza.
G. Eta Anima ?
E. Ecerezetic.
G. Noren anza dú guizonac ?
E. Jainco berarena.
G. Cèrtaco eguin zuan Jaincoac guizona ?
E. Jaincoa bera ezagutzeco , eta maite
izateco.
G. Cer zaz eguiña dà lenengo emacumea ?
E. Guizonaren saiets-ezur batez.
G. Eta cèrgatic ala ? **E.**

- E. Biac aragui batezcoac cìrala adiraza reagatic.
- G. Cèr zan Mundu onetaco Parabisua?
- E. Jayncoac Adàn, ta Eva ipiñi cituan, lorezco baratz, eta zuaitz fruta-du- nez betericaco bergera eder bat.
- G. Nolaco vicitza izango zuen Parabisu artàn?
- E. Guciz zorionecoa.
- G. Noiz il behar zuen?
- E. Inoiz ere ez.
- G. Cèr gauza dirà Aingueruac?
- E. Gorputzic ez duen, ispiritu-tsac,

II. IRACURTZA.

LENVICICO GUIZONAREN *becatua.*

A Ingueru guciac ; Jaincoac eguin cituanean, onac ciràn, eta batzuec beti iraun zuen oncan ; baña besteac gaiztotuciràn, ta orregatic Jaincoac seculaco ondatucituan Infernuco su-lei-zean. Aingueru gaizto oec dirà Dea-bruarèn Aingueruac, edo Demonioac,
gui-

- E. Biac aragui batezcoac cìrala adiraza reagatic.
- G. Cèr zan Mundu onetaco Parabisua?
- E. Jayncoac Adàn, ta Eva ipiñi cituan, lorezco baratz, eta zuaitz fruta-du- nez betericaco bergera eder bat.
- G. Nolaco vicitza izango zuen Parabisu artàn?
- E. Guciz zorionecoa.
- G. Noiz il behar zuen?
- E. Inoiz ere ez.
- G. Cèr gauza dirà Aingueruac?
- E. Gorputzic ez duen, ispiritu-tsac,

II. IRACURTZA.

LENVICICO GUIZONAREN *becatua.*

A Ingueru guciac; Jaincoac eguin cituanean, onac ciràn, eta batzuec beti iraun zuen oncan; baña besteac gaiztotuciràn, ta orregatic Jaincoac seculaco ondatucituan Infernuco su-lei- zean. Aingueru gaizto oec dirà Dea- bruarèn Aingueruac, edo Demonioac,
gui-

guizonai becatu eraguiten ; edo becatu
 raco tentatzen diarduenac. Ispiritu gaitz-
 quin octatic batec , suguearen aotic Eva-
 ri itzeguin , ta janeraci-cion sagar de-
 becatua , ta Eva berac jan , ta janeraci cion
 bere senar Adani. Horduan Jaincoac
 madaricatu zuan suguea , ta adiraci zuan,
 emacumeagandic etorrico zalá , aren bu-
 rua ausico zuana ; edo emacumeagandic
 jaioco zala demonioa garaitu , ta aren escu,
 ta eguin-al guciac galduco cituan , Mun-
 duarén zucentzalle , ta salvatzallea. Adán,
 ta Eva , becatuagatic Jaincoac Parabi-
 sutic atera cituanean , gueldituciran chit
 gaizqui ; galdu zuen ala baña gracia , eta
 graci onec emancien Ceruraco escua , ta
 derecha , galduzuen Ceruco gauzen ja-
 quiundea , erori ciran Infernucó etsaia-
 ren , ta erioaren atzapar gaiztoetan ; ta
 becatuac asaldatu cien , guticia , nai-era-
 guille , ta griñarequin gueldituciran gai-
 zeronz macurtuac. Adanec etzuan izan-
 dú humeric , becatu eguin ezquero bai-
 cic ; ta orregatic aren humeac , ta on-
 dorengo gucioc , vicitzen asi horduco,
 jaió baño ere lenago , amaren sabelean
 arquit-

arquitzen guera becatuz ciquinduae, ta
 becatuari darraizcan, calte ta neque
 gucien azpian.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nor dà Demonioa?

E. Bere eguille Jaincoarèn contra jar-
 rizan, Aingueru gaiztoa.

G. Eta cèr castigu emancion Jaincoac?

E. Betico sua.

G. Certàn arida Aingueru gaiztoa?

E. Guizonac tentatzen, eta nola Jain-
 coa eren becatuaquin ascereracodu-
 en, eracusten.

G. Nola tentatu zuan lenvìcico guizona?

E. Artu zuan etsay gaistoac suguea, eta
 onen ezpañez esan cion emacumeari,
 jan cezala, Jaincoac eragotziric ceu-
 can, sagarra.

G. Eta cèr eguin zuan emacumeac?

E. Berac jan, eta guero Senarrari jan
 eraci.

G. Eta lan gaizto haù ecusi, eta cèr
 eguin zuan Jaincoac.

E. Madaricatu zuàn suguea.

G.

- G. Nola castigatucituan Adán , ta Eva?
- E. Parabisutic ateratzen cituala.
- G. Cèr aguindu-cien?
- E. Emacumeac ausico zuala suguearèa burua.
- G. Cèr esan naí zuan orretan?
- E. Emacumeagandic jaiocozala demboreni buruan , demonioarèn escu , ta indar guciac garaitu . ta galduco cituana.
- G. Nola guelditu zàn guizona becatu eguinezquero?
- E. Guciz urricalquizun , ta on-behar, ala animan , nola gorputzean.
- G. Cer cirán , gorputzean ecusi behar cituan gaitzac?
- E. Era gucico nequeac , eritasunac , edo enfermedadeac , ta criotza.
- G. Eta animan?
- E. Jaquin-eza , ta becaturaco guticia , grina , ta jario macurra.
- G. Adán ta Eva , Senar-emazteac , noiz izandù cituen humeac?
- E. Becatu eguin , ta gueroz.
- G. Orrela gurasoen becatu hau igaro zàn humectara?

- E. Bai, hūmeetara, hūmeen hūmeetara, Oraindaño jaio dirán, ta munduaren azqueneraño jaio-quizun dau-den, hūme gucietara; ta orregatic, Jesu-Christo, ta bere Virgin-aman-drea ez, beste guciac jaiotzen dirá, becatu hau erequin duela.
- G. Nolà deritza?
- E. Becatu originala, edo jatorrizco be-catua, ceren datorquigun gueren gu-rasoac-gandic.

III. IRACUTZA.

UGOLDEA, TA LEGUE NATURALA.

CAIN, ta Abel ciran Adan, ta Evaren lenengo semeac. Abel ona zan, baña Cain gaiztoa, ta bere anaia ona izatea ecin eraman-zuana, ta orregatic quenducion vicia. Cain bezala, aren ondorengoac ere izanciran gaiztoac. *Setb* ceritzan, beste seme bat ere izanzuan Adanec, eta seme onen ondorengoac Iduqui zuen aldi batean Jainco-rea bildurtasuna, ta ezagueta; baña oec
ere,

E. Bai, hūmeetara, hūmeen hūmeetara, Oraindāño jaio dirān, ta munduaren azquenerāño jaio-quizun dardēn, hūme gucietara; ta orregatic, Jesu-Christo, ta bere Virgin-aman-drea ez, beste guciac jaiotzen dirā, becatu hau erequin duela.

G. Nolā deritza?

E. Becatu originala, edo jatorrizco becatua, eren datorquigun gueren gu-rasoac-gandic.

III. IRACUTZA.

UGOLDEA, TA LEGUE NATURALA.

CAİN, ta Abel ciran Adan, ta Evaren lenengo semeac. Abel onazan, baña Cain gaiztoa, ta bere anaia onā izatea ecin eraman-zuana, ta orregatic quenducion vicia. Cain bezala, aren ondorengoac ere izanciran gaiztoac. *Setb* ceritzan, beste seme bat ere izanzuan Adanec, eta seme onen ondorengoac Iduqui zuen aldi batean Jainco-rea bildurtasuna, ta ezagueta; baña oec
ere,

ere, ezcontzaz gaiztoaquin nastu, ta' gaiz-
to tu ciran, ta oregatic Jaincoac artu zuan,
guciac ugolde batean itoric uzteco asmoa.
Seth-en ondorengo gucien artean Noe
bacarric arquituzan, Jaincoa urrical ce-
quiqueonic. Oni bada Jaincoac adiraci-
cion, eguin gogo zuan, munduco guci-
en galtcea, ta esancion, eguin cezala,
oncia bezalaco, Arca, edo cucha andi-
zabal bat, egazti, ta abere mota gucie-
tatic ar-emeac beregan iduquitzeco di-
ña, izan citequeana. Noe bere iru seme-
errañequin, ta abereaquin cuch-oncian
sartuzaneco, erauso cion euriari, ta ber-
rogüei egun, eta gau, bein ere atertu
gabe, iraua zuan, lur gucia urez es-
tali zuan, euri-jasa icaragarri batec. Gui-
zon-emaume, abere, egazti, ta pisti
guciac itociran ugolde artan; eta etzan
ñor viciric guelditu, Noe, onen emaz-
tea, bien iru seme, ta oen iru emaz-
teac baicic: gucitara zorci persona, ta
cuchan gorde ciran vicicorrac. Urac chi-
quitu-ciranean, irtenzan Noe leorrera
bere echetiar guciaquin, eta oen ondo-
rengoz, urteen buruan, betezan berriz

Mundua , ta orrela guera gucioc alcar
ren señideac ; baña ondorengo oec ere,
asco luzatugabe , eguin ciran aurrecoac
baño areagoac , ta are gaiztoagoac. Utzi-
zuen alde-bat eren Jainco egulazcoa , ta
jarri ciran , eren burutic asmatu cituen ,
guezurrezco Jaincoetara. Batzuec Jain-
cotzat artu zuen Eguzquia , besteac Illar-
guia , besteac , gogoac eman eien , edo-
cien gauza. Gurasoentzat etzuen begui-
runic ta errespetoric , emancioen guciac
araguzco becatuari , alcar ecin ecusi zue-
la , ta minduric , guizon odoltuen eran
cebiltzan , ta giz-eralleac , edo guizon-
iltzalleac , lapurrac , ta guezurtiac ciran.
Eztituen jaquin-gabez gaiztaqueri oec egui-
ten , ezpada jaquiñaren gañean. Etzuen
cer ibilli galdez , jaquiteco , gauza gaiz-
toac cirala lapurreta , ta gañeraco , al-
carri eguiten cizten , dollorqueriac , ta
bidegabeac. Ba-ciequien , ta norc nai
daqui bere burutic , ezdeguiola besteri,
beretzat nai ezluqueana. Gueren buru-
tic degun , argui , ta ezagumentu oni-
deritza *Legue naturala* , edo *Legue ecar-*
raizcoa.

Galdeac, ta Eranzuat.

- G.** Nor izandu zàn Munduco lenene go guizon-iltzallea?
- E.** Caïn, bere anai Abèl ilzuan, Adanèn seme bat.
- G.** Cèrgatic ilzuan?
- E.** Cèrgatic hura, zàn bezain, ona izate, ecin ecusi zuan.
- G.** Guizon guciac, Caïn bezala, izandu ciràn gaiztoac?
- E.** Gueienac beintzat bai.
- G.** Eta gucién arteán erzan bat bederic Jaincoarèn gogoco zanic?
- E.** Bay, Noè bacarric gueldituzàn; Jaincoarèn gogoco zanic.
- G.** Eta guizon gaizto aec castigatzeo, cèr eguin zuan Jaincoac?
- E.** Itoac utzi cituan, egui, aldapa, mendí, ta mundu guciarequin bateara, odei-itsasoeratic biraltzen zuala, orretaraco behar zàn, ura, edo ugoldea.
- G.** Cèr eguin zàn Noez?
- E.** Jaincoac gorde zuan, ito gabe, cuchoncian,

- G. Noè bacarric guelditu zàn viciric ?
- E. Hura bacarra bere echeoacquin.
- G. Eta cèr gueyago ?
- E. Lurrean lau-olnca dabiltzan abere, edo animalietatic, ta aidean egatzen diràn egaztietatic pare bana.
- G. Guizon-emacume guciac dirà alcarren anayac ?
- E. Bai: gucioc alabaña gatoz Adànen, ta Noerèn odoletic.
- G. Cer gauza dà *legue naturala* deritzan, jaiozco, ta ecarraizco leguea ?
- E. Dà, cer dàn gauz ona, ta cer dàn gauz gaiztoa, eracusten digun, gueren buruco arguia, ta ezagumentua.
- G. Jaiotzetie degun argui onc cèr eracusten digù Jaincoaren alderaonz ?
- E. Jaincoa bacarric ohoratu, ta adortu behar degula, edo Jaincoari bacarric gurtu behar gatzazcala.
- G. Eta guizonen, edo lagun-urcoèn alderaonz ?
- E. Bestec gurí eguitea, naico ez guenduquean, gauzatic iñori eguin ez diozagula.
- G. Ta guèren alderaonz ?

E. Gure escutic iduqui ditzagula gueren
 pasio, griña, naicunde, gogo gaizto,
 eta gaitzeraco macurtasun oquerrac.

IV. IRACURTZA.

ABRAN, TA BESTE PATRIARCAC.

NOE-ren ondorengo guizonic gucie-
 nac, aurrecoac baño gaiztoagoac, ba-
 ciran ere; oen artean batzuec ba-
 ciran, Jaincoaren sinismena, ta ezaguera zue-
 nac; eta eren buruco arguiac, ta legue
 naturalac eracusten cien, eguiten zute-
 nac. Sem ceritzan, Noe-ren seme baten
 odol ta arrazatic cetocenac, ciran alaco-
 ac; ta gucien artean onguien cebille-
 na, Abran zan. Oni Jaincoac aguertu
 ciozcan bere asmoac, onequin eguin zu-
 an baldin-ezco batzea, eta alcartasuna,
 adirazten ciola: Abran, baldin zue nere
 esanac eguiten badituzu, Ni zurequin
 izango naiz, eta zure eguiteco gucietan
 lagunduco dizut: Ots bada, irten zaite
 bereala cere erritic, Nic eguingo zaitut,
 ecin contatu al adiña, genderen Guraso,
 ta Aitona; Zure ondorengoai emango dizut

E. Gure escutic iduqui ditzagula gueren
 pasio, griña, naicunde, gogo gaizto,
 eta gaitzeraco macurtasun oquerrac.

IV. IRACURTZA.

ABRAN, TA BESTE PATRIARCAC.

NOE-ren ondorengo guizonic gucië-
 nac, aurrecoac baño gaiztoagoac, ba-
 ciran ere; oen artean batzuec ba-ciran,
 Jaincoaren sinismena, ta ezaguera zue-
 nac; eta eren buruco arguiac, ta legue
 naturalac eracusten cienac, eguiten zute-
 nac. *Sem* ceritzan, Noe-ren seme baten
 odol ta arrazatic cetocenac, ciran alaco-
 ac; ta guciën artean onguien cebille-
 na, Abran zan. Oni Jaincoac aguertu
 ciozcan bere asmoac, onequin eguin zu-
 an baldin-ezco batzea, eta alcartasuna,
 adirazten ciola: Abran, *baldin* zuc nere
 esanac eguiten badituzu, Ni zurequin
 izango naiz, eta zure eguiteco guciëtan
 lagunduco dizut: Ots bada, irten zaite
 bereala cere erritic, Nic eguingo zaitut,
 ecin contatu al adiña, genderen Guraso,
 ta Aitona; Zure ondorengoai emango dizut

tet Canaango bazter eder ugariac , ta
 ondorengo orietan bedeincatuco ditut
 munduco guciac , esan ba-lio bezala , zu-
 re odoletic jaiocoda munduarèn Salvat-
 zallea. Sinistu zuan Abranec hau gucia ;
 ta bien arteco batee , alcargo , baldin , ta
 itzarèn ezagun-vide , ta señaletzat , Cir-
 euncisio emancion Jaincoac. Circuncisio
 zan , gorputzaren alde mimbera batetic
 aragui piscabat cañibetaz quentzea. Ja-
 incoac emancion Abrani , *Isaac* ceritzan
 seme bat ; eta eracutsi ciona , sinistu ote
 zuan , eta esan-ciona , eguingo otezuan
 progatzeco eta ecusteco , aguindu-cion ,
 doai-esqueñi , edo Sacrificioan present
 eguin ciozala bere seme maite onezaz ,
 Aldare batèn gañean vicia quentzen-cio-
 la ; baña Abrani , bere semearèn gain col-
 pea ezarteco , besoa jaso zuanean , eragot-
 zi cion Jaincoac. Isaac izandu zan *Jacob* ,
 beste icenez , *Israel* ceritzan , seme baten
 Aita. Jacob , ta Israel deitzen zan , onec
 izandu cituan amabi seme : Oec ciran
 amabi *Patriarcae* , amabi Tribu , edo ama-
 bi familia , ta eheco guraso , buru ta na-
 gusiac , eta oetatic datoz Israeltar guciac .

Amabi oezaz gañera, horduraño vicitu
ciràn, guizon Santuai ere Patriarcac de-
ritzte.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Ugoldea igaro ezquero non guel-
ditu zàn, eta norgan iraun zuan le-
gue naturalac, edo berezco arguiac,
ta Jaincoaren ezaguerac?

E. Sem-en Echecoetan, ta ondorengo-etan.

G. Nor zàn Jaincoarequin adituzana, ta
irz-eman ciona?

E. Abraham.

G. Cèr aguindu cion Jaincoac?

E. Utzi citzala bere Erria, echea, ta
echecoac.

G. Eta cèr esqueñi cion?

E. Aren odoletic, ta arrazatic jaioco ci-
ran, ondorengoan hume-di luce-za-
bal andi bat.

G. Eta cèr gueyago esqueñi cion?

E. Emango ciozcala Canaango Erri, ta
bazterrac.

G. Eta gueyago besteric esqueñi cion?

E. Bai, esqueñi cion aren arrazan ta
ondorean bedeicatuac izango cirala
munduco guciac.

G.

- G. Cér adfraci nai zuan Jaincoac itz
oriequin?
- E. Abrahamen odoletic , ta ondorengoan
batetic jayoco zala mundu galduaren
zucenzallea , ta Salvatzallea.
- G. Eta Jaincoaren , ta Abrahamen arte-
co esqueñi , ta itzen siñua , ta eza-
gun videa cer zan?
- E. Circuncisioa , edo orañago nion , ara-
gui zatichoaren cañibetazco quentcea.
- G. Nor zàn Abraham-en Semea?
- E. Isaac.
- G. Eta cèrgatic quendu nai izandu cion
vicia bere semeari?
- E. Jaincoaren esana eguiteagatic.
- G. Eta cèrgatic Jaincoac aguinducion?
- E. Berequico aren leialtasuna , sinisme-
na , ta fedea progateagatic.
- G. Nor zàn Jacob?
- E. Isaaquen semea.
- G. Nola ceritzan bestela?
- E. Israel.
- G. Cembat seme cituàn?
- E. Amabi.
- G. Nola ceriztèn?
- E. Patriarcac , edo Aitaurrenac.

V. IRACURTZA.

IGITICO GATIBUTASUNA,
ta Pazcoa.

JACOB-rèn semeac ecin eramán zuèn Jeren anai Joseperen onguia, eta orregatic saldu zuèn. Erosleac artu, ta eramán zuen erequin Igitora, ta an egondu zàn luzaro gatibu besterèn mendean; baña Jaincoarequin beti leial, ta orregatic, gatibutasunetic atera, eta eraguin-zuan Igitoco Erreguearèn urrengo guizon. Barcatucien bere anayai, ta etoreraci cituan Igitora, eren Aita, ta echeço guciaquin batean. Il ciran oec, eta oen semeac gueitu, ta ascotu-ciràn Igiton arrigarrizco eran. Lèngoaren ondoren Igiton sartu zan, beste Erregue batec, indartsuegui eguin, ta esçu gueiegui artu cezaen bildurrez, necarazi cituan, lanac lanen gañean ema naz, ta aguindu ere zuan, il citecela, aén artean jaiotzen ciran, seme guciac. Urricaldu zàn Jaincoa, Jacob-rèn illobac, eta ondorengoac Igit-
erri-

errietan ceramaèn nequeaz , eta neque-
petic ateratzeco biraldu zuan , *Moy-
ses* ceritzan , guizon andi bat , bere
anài *Aaron* lagun ematen ciola. Egon-
du ciran oec *Faraonequin* , (hau zan Igi-
toco Erregue gucien icena) eta Jaincoa-
ren icenean agüinducioen , utzi ciezela ,
maite cituan , Israeltarraì , edo Jacobren
odoletic ciranai , Igitotic irteten. Asco
bider esancioen hau Faraoni , ta ambat
bider ucatu-zan , escatzen citzaiona , egui-
tera ; eta eraguiteco , eguin cituan *Moi-
sesec* , Igitoco plagac , gaitzac , edo la-
ceriac deriztèn , mirari , milagro , ta ecus-
teco asco , ta icaragarriac. Gauza oec
igaro ondoan , irten ciran noizbait Igit-
erritic Israeltarrac ; baña irten baño le-
nago , eche bacoitzean ilzuen vildors bat ,
aren odolarequin busti , ta señalatu ci-
tuen eche gucietaco atzac , ta ala eguin
zuen , Jaincoac agüindu cien *BAZCOA*.
Bazcoac esan näidu *igarotzea* : eta Jain-
coac Igitotic atera , ta eren jait-erri , ta
bazterretara igaro ciranaz , beti oroi cite-
cen , eguin behar zuen urte-orò , Igit-
toco Erregueren escupetic irten ciranean ,
eguin

eguin zuen, bezalaco Vildots-afari bat :
 eta Israel-darren ateratze, irtete, ta igarot-
 zean adiraci zuan Jaincoac, berac atera-
 co guinduala noizbait gucioc becatu-pe-
 tic, eta Infernuco etsayarèn menderic,
 eta eramango guinduala Ceru zabal at-
 seguin-contentuz beterà.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Esaitzu, Joseperi guertatu citza-
 izcan, gauzac.

E. Bere anayac, beguitan artu, ta sal-
 du zuen : luzarò egon zan gatibu Igi-
 ton, Faraonen men-pean : ta guero
 igozan, Erreguerèn urrengo guizon,
 ta adisquide izateraño.

G. Ain goiti, ta alacó escuarequin ce-
 goala, nola artu cituan bere anayac?

E. Barcatu cien, eguin cioen, gaizquia,
 ta eracari cituan Igitora eren fami-
 lia, edo echetiar guciaquin batean.

G. Cèr guertatu citzaicn Igiton Jacob-
 ren semeai?

E. Gueyegui tu ciran.

G. Era cèr eguin cien Faraonec?

E.

- E. Galdu , ta bucatu nai izandu citu-
an guciac.
- G. Norc lagundu cien estutasun artán ?
- E. Jaincoac.
- G. Eta nòr autu zuan Jaincoac , Jacob-
ren seme , ta ondorengoac Igitarren
neque-petic aterateco ?
- E. Moyses.
- G. Eta cèr eguin zuan Moysesec ?
- E. Faraoni , Jaincoac aguindu ciona , era-
guiteco , ecuscari , mirari , edo mi-
lagro andi icaragarriac.
- G. Cer zàn Bazcoa ?
- E. Israeltarrac , Igitotíc irten ciran , gau
artan afaldu zuen , vildotsa.
- G. Cèr eguin zàn vildotsaren odolarequin ?
- E. Israeltar gucièn eche-etan señaie bat
ipintzea.
- C. Cèr adiraci zuan , Israeltarrac Igitotí-
c irteteac ?
- E. Jaincoac noizbait ateraco cituala guí-
zon-emasume guciac becatu-petic ,
eta Infernuco etsaiaren atzaparretatie.

VL. IRACURTZA.

ISRAELDARREN EREMUCO

videa, ta legue escriptua.

ATERA cituan Jaincoac Israeldarrac, edo Jacobren ondorengoac, Igitopean ceramaen, morronzatic; ta aen aurecoai eman cien, itzari cerraicala, eramán cituan Canaango bazterretara, edo promisioco Iurrera. Mirari, ecusteco ta milagro andiac eguin cituan Jaincoac Israeldarren bidezco joate onetan. Becaizturic ta aserraturic cerraiten, Faraonegandic igues-eguiteco, idiqui cien Ichasogorriaren erdian, onic busti gabe, igitortzeco, vide leor zabala. Eraman cituan *Eremu*, edo mendi luce batetic; ta berroguet urtean mantendu cituan sas-arteaetan, jateco, ematenciela, Cerutic intzaguisan gau oro erortzen zan, janari gozo bat; eta edateco, aitz batetic jaio-rael zuan, iturric ura. Videz asicirane-tic, laster elduciran, *Sinai* deritzan, mendi batera; eta an eracutsi cien Ja-
inco-

Incoac bere leguea ta vorondateã , Igit-
 artetic irteteã , eguin zuen , lembicico
 Pazcoatic , berrogue-ta-amargarren egu-
 nean. Mendi-gañean aguertuzan , suz ,
 quez , trumoiez , ta chimistaz betericaco
 odei icaragarri bat. Azpico aldean ceu-
 den , Israeldarrac enzun zuen trompeta
 izugarri baten soñua , ta odei-artetic ir-
 ten zan , oju batec esaten ciela : „ Ni
 „ naiz zure Jaun Jaincoa , Igitoco ne-
 „ que-petic atera cindudana. “

1. „ Ez dezu inñolaere nere aurrean ni,
 „ beste Jaincoric iduquico. Ez dezu
 „ eguingo Idoloric batere , ez eta gue-
 „ zurrezco Jaincoren anz-iduri ta ima-
 „ ginatic , hari agurrac eguiteco.
2. „ Ez dezu alferric autan artuco cere
 „ Jaun Jaincoaren icena.
3. „ Gordeco dezu laurembata , edo
 „ zazpigarren eguneco atsedetea des-
 „ nequea , edo descansua.
4. „ Hondraitzatzu cere ait-amac , ta
 „ orrela luzaro vicico cera , Jaincoac
 „ zuretzat daucan , promisioco lux-
 „ rean.
5. „ Inñor ilco ez dezu.

6. » Ezdezu eguingo araguzco becatuoric.
 7. » Ez dezu ostuco.
 8. » Ez dezu esango lagun urcoaren gain
 » guezurrezco lecucotasun , asmacio,
 » edo testimonioric.
 9. » Ez dezu guticiatuco lagun urcoaren
 » emaztea.
 10. » Ezdiruzu naico lagun urcoaren on-
 » dasunac.

Orra Jaincoac, ol bitan escribituric, Moisesi emanciozcan , amar mandamentuac. Oec , ta legue naturaleco , edo legue berezco mandamentuac berebat ciran; baña nola azruaz cijoacen , orregatic Jaincoac iscribitu cituan arrizco ol-etan. Ain andia zan horduco guizonen gaiztaqueria!

Galdeac , ta Eranzuac.

- G.** Nora joan ciran Israeldarrac , Igitotic irten ciranean ?
E. Jaincoac eraman cituan , ta aguinduric ceucan , Canaango lurrera.
G. Certaco eraman cituan ?
E. Lenagotic aguindu zuana , eguítcco.
G. Nòla igaro ciran Itsaso gorritic ?

E.

E. Jaincoac üren erditic vide leorra eguiten ciela.

G. Nòndic joan ciràn ?

E. Eremu sas-arte , edo mendi lucezabal batetic.

G. Eremu artan cebiltzanean , cèr jaten zuen ?

E. Jaincoac Cerutic bidaltzen cien , ta *Mana* ceritzan , janari zuri-gozo bat.

G. Era uric etzucanean , nòndic edaten zuen ?

E. Jaincoac Aitz batean sortu zuan , iturri ugari batetic.

G. Noiz eracutsi cien Jaincoac bere leguea , naia edo vorondatea ?

E. Igit-erritic irten ciranetic , berrogueta amar-garren egunean.

G. Nòn eracutsi cien leguea ?

E. *Sinai* deritzan , mendiaren gañean.

G. Nòla cegoan horduan mendi hura ?

E. Guzia trumoez , suz , ta chimiztez iracequia.

G. Esaitzu , Jaincoac Israeldarrai Sinaico mendian eman cizten aguinte manu edo mandamentuac ?

E. Lenengoa : „ Ni naiz zure Jaun

„ Ja-

„ Jaincoa , Igitoco neque-petic atera
 „ cindudana , &c. edo gañeracoac,
 gorasseago ezarriric dauden bezala.

G. Eta escribituric ceudèn mandamentu
 oec?

E. Bai , arrizco ol bitan.

G. Berriac ciràn mandamentu oec?

E. Iñiola ere , lenagocoac , edo legue
 naturaleco ber-berac ciràn.

VII. IRACURTZA.

ISRAELDAR-AQUIN JAINCOAREN testamentua , ta alcar artzea.

JAincoac nai , ta eraguin zuan Moise-
 sec , *Testamentuco Arca* ceritzan , cu-
 chacho bat , campotic , ta barrendic urrez
 estalia ; ta cuchonetan ipiñi cituan ol le-
 gue-dunac. Cucha gordetzeco eraguin zu-
 an , *Tabernaculoa* ceritzan , ta , bidez cebilt-
 zanean , erraz alda citequean , oial eder-
 rezco estal-pe , edo camp-echecho bat.
 Echecho-aren aurquez cegoan , Jaincoari
 Sacrificioac ofrendac ta presentac eguite-
 co , Aldare bat. Dembor-artaco presen-
 taç

„ Jaincoa , Igitoco neque-petic atera
 „ cindudana , &c. edo gañeracoac,
 gorasseago ezarriric dauden bezala.

G. Eta escribituric ceudèn mandamentu
 oec?

E. Bai , arrizco ol bitan.

G. Berriac ciràn mandamentu oec?

E. Iñiola ere , lenagocoac , edo legue
 naturaleco ber-berac ciràn.

VII. IRACURTZA.

ISRAELDAR-AQUIN JAINCOAREN testamentua , ta alcar artzea.

JAincoac nai , ta eraguin zuan Moise-
 sec , *Testamentuco Arca* ceritzan , cu-
 chacho bat , campotic , ta barrendic urrez
 estalia ; ta cuchonetan ipiñi cituan ol le-
 gue-dunac. Cucha gordetzeco eraguin zu-
 an , *Tabernaculoa* ceritzan , ta , bidez cebilt-
 zanean , erraz alda citequean , oial eder-
 rezco estal-pe , edo camp-echecho bat.
 Echecho-aren aurquez cegoan , Jaincoari
 Sacrificioac ofrendac ta presentac eguite-
 co , Aldare bat. Dembor-artaco presen-
 taç

tac cìran bildots , checor , ari , idi , le-
 poac quendu , ta Aldarearen gañean er-
 reac : eta onelaco presentac esqueñiaz,
 eguiten citzaion horduan Jaincoari , zor
 zaion adoracio , agur , ohore , escu-muñ,
 ta beguitarte. Present-oec Jaincoari es-
 queintzeco ta beraren aurrean ipintzeco,
 'Apaiz-en eracoac cìran Aaron , ta bere
 semeac ; eta gañeraco Levitarrac , edo
 Levi Patriarcaren ondorengoac eguin
 behar zuena , zan , cuchategui , eleizacho,
 edo Tabernaculoa zaitzea , ta ango gau-
 zac zuentzea. Cucha , ta cuchateguia ,
 edo Elizachoa cìran , Jaincoac Israeldar-
 raquin eguin zuan, Testamentu , batze , ta
 alcar-artzearen sinu señaie , ta adiraz-ga-
 rria : eta alcartasun hau zan , Jaincoac
 'Abran-eguin eguin zuan alcartasun bera ;
 bada Isrraeldarren alde berritu cituan Ja-
 incoac , hoen gurasoai eguindaco , esque-
 ñi , aguinde , ta itzac. Aguinde cien ba-
 da berrito Jaincoac Israeldarra , artuco-
 cituala bere Erritartzat , sartuco cituala
 Canaango lur ta bazter ugarietan , ta
 beteco cituala ondasunez. Lur ugari hu-
 ra dà , Jaincoac guri aguinburic daucan ,

Cerua, ta ango egoera atseguina eder-
 qui adirazten digun, adiragarri aintzura,
 ta imagina. Israel-darrac heren aldetic
 eman zuen, Jauna, ez beste Jaincoric ez
 ezagutzeco; eta Jaun bera biotz osoz
 maitatzeco, ta onetsitzeco itza: bai-ta
 ere esanzuen, itzez cioena, eguiten ezpa-
 zuen, nai cequiola Jaincoari, aec Cana-
 ango bazter etatic ateratzea, ta beharrez
 premiaz, ta nequez beteric, nequezco
 bazter-etan erabiltzea. Orra Jaincoaren,
 ta Israeldarren arteco itzac: ta itz oec,
 utseguin gabe, gorde beharco ciralaco,
 siñu edo señaletzat, artu zuan Moisesec
 isipu bat, ta Jaincoari aldarearen gañe-
 an esqueintzen cizaizcan, arien, ta idien
 odolarequin busti cituan Israeldarrac, eta
 an arquitzen ciran, gañeraco gauzac.
 Jaincoac bere aldetic eguin zuan cego-
 cana: itzuliraci zuan Jordango Ibaia go-
 roncz, bere jaiet-bururoncz, gueldiraci ci-
 tuan Ceruan, heren bidean lasterca ci-
 joacen, Eguzquia, ta Illarguia; ta Isra-
 el-darrac Canaango Erri ederren jabe
 eguireco, aguertu zuan bere ahal, ta
 indarra, beste onelaco milagro asco egui-
 naz.

haz. Sartu ciran noizbaít Israeldarrac, Jaincoac aenzat aguinduric ceuzcan Canaango bazter-etan; lur gucia eguin zuen amabi parte edo zati; ta amabi Tribu, edo famili-etatic bacoitzarí eman citzaion parte bat. Baña Israeldarrac urratu zuen Jaincoarí eman cioen, itza; ausi zuen beraren legue santua, eta etzuen eguin aren esanic, batere. Amabi bider baño, gueiagotan asaldatu ciran bidean: ta Canaango lurrean sartu cirancan, an lenagotic viciciran, gendeac galdu lecuan, Jaincoac aguinduric ceucan bezala; aequin bat eguin ciran, ta aen Idolo ta guezurrezco Jaincoai eguin cioztèn, Jainco eguiazcoari bacarric zor zaizcan agurtac.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nola eguiten ciran legue zarreco sacrificio, edo presentac?

E. Abere lepo-gabetu bat Aldarearen gainean erretzen zala.

G. Nòn cegoan Aldarea?

E. Eleizcho edo Tabernaculoren aurreco aldean.

- G. Cèr cegoan Eliz-barrumbe artàn?
- E. Testamentuco Arca.
- G. Cer zàn Arca hau?
- E. Barendic ta campotic urre-olez es-taliricaco cuchacho bat.
- G. Era cèr cegoan cuchan?
- E. Leguea ceuquén, ol biac.
- G. Cein ciràn sacrificio-guilleac, edo Jaincoari presentac eguiten ciozquénac?
- E. Aaron, ta bere semeac.
- G. Cein ciràn Levitac, edo Levitarrac?
- E. Aaronez gañera Levi Patriarcaren Tribu, edo familian ciran, guciac: ta oen eguitecoa zan Tabernaculoco gauzai beguiratzea.
- G. Cer itz ciràn, Jaincoac, ta Israeldarrac alcarri emanicaco itzac?
- E. Jaincoaren ta Abraanen artean lenago igaro ciran, itz berac.
- G. Cer itz emán zuan Jaincoac?
- E. Esan cien Israel-darrai, artuco cituala bere Erritartzat, eguingo cituala Canaango lurren jabe, ta beteco cituala ondasunez.
- G. Lur hau ceren antz-iduria zàn?
- E. Cerua erraz, ta arguiro adiratzten

- zuan, imagin edo siñu eder bat.
- G. Israel-darrac eren aldetic cèr aguindu cioen Jaincoari?
- E. Eren biotz guziarequin maite izango zuela Jaincoa, eta gordeco citucla aren mandamentuac.
- G. Eta cèr, ori eguiten ez-pa-zuen?
- E. Canaango edo Promisioco lurtetic botaac, ta on-beharrez ta premiaz bucatuac izan citecela.
- G. Ongui gordezàn, Jaincoac, ta Israel darrac alcarri eman cioen, itza?
- E. Jaincoaren aldetic chit ongui.
- G. Cèr mirari eguin cituan Jaincoac, Israeldarrac promisioco lurraren jabe eguiteco?
- E. Leortu zuan, *Jordan* ceritzan, Ibaia; ta gueldiraci cituan Eguzquia, ta Illarguia.
- G. Eta nola gordezuen Israeldarrac heren itza?
- E. Gaizqui chit.
- G. Cembat bider arazotu, edo asaldatu ciran, eremu-videan cebilzala?
- E. Amar bider baño, gueyagoran?
- G. Cèr eguin, zuén Canaango Erri es-
- que-

queñien jabetu ciranean?

E. Heren Jainco eguiazcoa utci, ta infernucoac asmaraci ciztèn, Idoloac Jaincotzat artzea.

VIII. IRACUTZA.

IDOLATRIA.

DEnbor-artan Israeldarrac ciran, nor zàn Jaincoa, cequien gendeac: gañeraco gucien Jaincoac ciran, eusqueraz *ce-aguiac* derizten, Idolo, edo Jainco guezurrezco, Jaincoaren ichura ta figura itsusi utsa bai, baña Jaincozco izan bat ere etzuènac. Horduco guizonen ardura, ta gogo gucia zàn, gorputzari cegozcan, atseguin lizun gaiztoen gogoa: etciran bat ere oroitzen heren animaz, ez eta Jainco, ispiritu uts garbi, Cerua-ren ta lurraren eguilleaz. Buruac eman, ta asmatu cituèn, ecin contatu al adina, Jainco, bacoitzari, Erriari cegocan icena ematen cioela; eta guciac-gatic milla guezur, ta ipuñ farragarri esaten cituela. Eguiten cituèn zurezco, arrizco, ur-

queñien jabetu ciranean?

E. Heren Jainco eguiazcoa utci, ta infernucoac asmaraci ciztèn, Idoloac Jaincotzat artzea.

VIII. IRACUTZA.

IDOLATRIA.

DEnbor-artan Israeldarrac ciran, nor zàn Jaincoa, cequien gendeac: gañeraco gucien Jaincoac ciran, eusqueraz *ce-aguiac* derizten, Idolo, edo Jainco guezurrezco, Jaincoaren ichura ta figura itsusi utsa bai, baña Jaincozco izan bat ere etzuènac. Horduco guizonen ardura, ta gogo gucia zàn, gorputzari cegozcan, atseguin lizun gaiztoen gogoa: etciran bat ere oroitzen heren animaz, ez eta Jainco, ispiritu uts garbi, Cerua-ren ta lurraren eguilleaz. Buruac eman, ta asmatu cituèn, ecin contatu al adina, Jainco, bacoitzari, Erriari cegocan icena ematen cioela; eta guciac-gatic milla guezur, ta ipuñ farragarri esaten cituela. Eguiten cituèn zurezco, arrizco, ur-

rezco, ta cillarrezco, guezurra baicic, etzi-
 ran, ichiura gaiztoco Jaincoac, edo Ido-
 loac; ta heren escuctaco lana baicic, et-
 zan gauzari, agur eguiten cioen, Eleizac
 eguinaz, Aldareac jasoaz, ta Sacrificio,
 edo presentac esqueñiaz. Gende itsu aen
 iritçian guezurrezco Jainco, edo Idolo
 oetatic batzuec ciran guizonac, eta bes-
 teac emacumeac. Greciaco, ta Erroma-
 co gendeac *Jupiter* artu zuen Jaincotzat,
 eta hau zala, cioen, Jainco gucien ar-
 rean andiena: guero artu zuen *Juno*, Ju-
 piter-en emaztea zala cioela; eta aen
 ondoren *Marte*, *Venus*, *Baco*, ta beste
 onelaco asco. Igitocoen Jaincoari ceri-
 tzan *Isis*, Onela zoratu, itsutu, ta en-
 gañatu cituan demonioac, Jainco eguiaz-
 coari zor zaizcan, agur ta adoracioac be-
 tetzat izateagatic; eta Jaincoa hondrat-
 zen zuelaco aitzaquian, gaitz itsusi asco
 eraguitea-gatic: orregatic gende itsu zo-
 ratu aec, Idoloai, ta Idoloen barrenen
 sarturic ceuden, demonioai eguiten ciz-
 ten, pestac ciran ordiqueria, deshonet-
 queria, ta onelacoac. Ascotan Israel-
 darrac ere, besteac bezala, ibilli ciran,
 Ido-

Idoloai ceraiztela. Cembat bider Israèldarrac Idoloac-gatic Jaincoa utci zuen, anbat bider Jaincoac aec utzi cituan gatibu heren etsaien escuetan : ta cenbat bider gaizqui eguiña ezaguturic , biurtu ciran Jaincoagana , anbat bider Jaincoac aen artetic autu zuan , gatibutasunetic atera cizaquean , guizon andiren bat.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Orrela Israèldarrac baicic , etzàn horduan , Jainco eguiazcoa ezagutzen zuanic ?

E. Bat ere.

G. Ceri bada , Israèldarrac ez , besteac agur eguiten cioèn ?

E. Heren burutic asmatu , ta heren escuacquin eguin cituen , zurezco , ar-rizco , edo bestelazco Idoloai.

G. Cerèn antza zuen idolo aèc ?

E. Guizon-ena , emacume-ena , ta abere-ena : orregatic gende itsu aèn uste-an , Idolo batzuec ciran Jainco-guizonac , ta besteac Jainco-emacumeac.

G. Nola hondratzen cituèn ?

E.

- E. Agurrac, esqueac, ta presentac eguñaz.
- G. Certatic cetorquien itsutasun hau?
- E. Guizonac heren Jainco eguilleaz azutzetic.
- G. Nola bada àztu-ciran?
- E. Heren gorputza, beste gauzatic go-goan etzequela.
- G. Era nòrc ceuzcan onela itsuturic?
- E. Aen agur, ta beguiruneac, beretzat nai cituan, Infernucoac.
- G. Cèr zan, Idolatriac, edo *Ce-aguirteac* cecarren, ondorea, ta irabacia?
- E. Era gucico gaitzqui itsusiatic guizonai eraguitca.

IX. IRACURTZA.

DAVID, TA MESIAS.

ISraèldarrac, Canaango bazterretan sartu ezquero, lèndavician Juezac, ta guero Erregueac izandu cituen aguintari. Lenengo Erreguea izanduzan *Saul*, ta urrengoa *David*. Hau zan, *Juda* ceritzan, Jacob-ren seme baten odoletic, ta
eche

- E. Agurrac, esqueac, ta presentac eguillaz.
- G. Certatic cetorquien itsutasun hau?
- E. Guizonac heren Jainco eguilleaz azutzetic.
- G. Nola bada aztu-ciran?
- E. Heren gorputza, beste gauzaric go-goan etzequela.
- G. Era norc ceuzcan onela itsuturic?
- E. Aen agur, ta beguiruneac, beretzat nai cituan, Infernucoac.
- G. Cer zan, Idolatriac, edo *Ce-aguirteac* cecarren, ondorea, ta irabacia?
- E. Era gucico gaitzqui itsusiac guizonai eraguitca.

IX. IRACURTZA.

DAVID, TA MESIAS.

ISraeldarrac, Canaango bazterretan sartu ezquero, lendavician Juezac, ta guero Erregueac izandu cituen aguintari. Lenengo Erreguea izanduzan *Saul*, ta urrengoa *David*. Hau zan, *Juda* ceritzan, Jacob-ren seme baten odoletic, ta
eche

ehetic cetorren, guizon andi bat; eta
 odol, ta eche beretic etorri-beharra zan
 Munduco Salvatzallea, Jacob Patriarcac
 alde-aurretic esanic ceucan bezala. Jain-
 coac alá nai, ta Olio Santuz ganzutua
 izandu zan David, ta orobat ganzutuac
 izandudira beste Erregue guciac: ta or-
 tic dator, Erregueai *Christoac*, ganzu-
 tuac, olioztuac, edo ungituac deitzea.
 Dembora berean David ibilli zan Saul-
 en iguesi, ta izandu cituan gudà edo
 guerra andiac, Ceruco gauzen sinistme-
 nic etzuen, gendeaquin. Baña azquenic
 Jaincoac eguin zuan David, bere etsai
 guciac baño, andiagoa, ta indartsuagoa;
 ta beté zuan hondraz, ta ondasunez. Da-
 videc bere mendean ceuzcan, Erri guci-
 en buru ta Erri-nausia, zan Jerusalèn;
 Erri artan craguin zuan Jauregui, edo
 Palacio bat, ta arà eracari zuan Testa-
 mentuco cucha. Eleiz bat eguiteco, go-
 goac ere emancion; baña Jaincoac adi-
 raci cion, eguiteco hau aren semearentzat
 guelditzen zala. Bai-ta-ere adiraci cion
 Jaincoac Davidi, aren ondorengoac izan-
 go cirala Jaincoaren humè leialen Erre-
 gue

gue ta aguintari : aren odoletic etorrìco zala , Jaincoac aurrenetic , ta lendavicitic aguertucion Salvatzallea ; ta Israèlen echean , ta mundu gucian aguinducozuan , Erreguea : Salvatzalle hau izango zala Jaincoaren semea , ta Daviden semea ; eta guizonac Jaincoaren Semea lenengotan ecertan ez artuagatic , guero berac eracarrico cituala guciac Jaincoaren ezagumentura , eta aren legue santua gordetzera. Arrezquero Israèldarrac , ustezuen , Munduaren Salvatzalleari deitucionen Daviden seme Erreguea , ta bestela *Mesias* , edo Christo.

Galdeac , ta Eranzuac.

- G.** Cein aguintaric aguindu , edo gobernatu cituan Israel-darrac , Canaan-go bazterretan sartu ciranetic ?
- E.** Lendanic Juezac , ta guero Erregueac.
- G.** Nòr izanduzan aen lenengo Erreguea ?
- E.** Saul.
- G.** Cein bigarrena ?
- E.** David.
- G.** Cein Tribu , familia , edo eche-coazan David ?
- E.**

- E. Juda cerítzan , Jacob-ren semea-
ren echecoa.
- G. Non vici-oi-zan David?
- E. Gueiencan Siongo mendi-gañean, Je-
rusalengo Ciudade , edo Urian.
- G. Nòra eramanzuan Testamentuco cucha?
- E. Ara bertara , Siongo mendira.
- G. Cer aguindu , edo cèr esqueñi cion
Jaincoac Davidi?
- E. Haren ondorengoac izango cirala se-
cula gucian Jaincoaren Errico Erre-
gue , buru , juzgalari , ta aguintariac.
- G. Eta cèr gueyago?
- E. Haren ondorengoan-danic etorrigo
zala gure Salbatzallea.
- G. Cer gauza dá Christo , edo Mesias?
- E. Gure Salbatzalle haù bera.
- G. Cer esan naidù *Christo* icen onec?
- E. Ganzutua , consagratua , edo Jain-
coarenzat bereiztua.
- G. Eta cergatic haù?
- E. Ceren David , ta beste Erregueac
olio santuz ganzutuac , doainduac , ta
consagratuac izan du ciran.

X. IRACURTZA.

*SAMARIACO, CISMA, EDO
beretztea.*

DAVID-en ondorengo Erreguea izan-
du zan haren seme Salomon : eta
nola David zàn Christo necatuaren , ta
neq-eramalle onaren idurintza ta imagi-
na , ala Salomon Christo berarèn gloria
andi ederrarén aintzura siñu ta imagina.
Baquean , ta atseguin-contentuz berea vi-
citzán Salomon bere denbora gucian , ta
ori baño gueyago dana , Jaincoac eman-
cion , eguiazco jaquiundez apaindua.
Eguin zuàn Salomonec , haren aita Da-
videc lenagotic eguin-gogo-izandu zuan
Eleiz bat , Testamentuco Cucha an ifin-
tzeco , ta an bertan ofrendac sacrificioac
ta presentac Jaincoari esqueintzeco. Is-
raèldarrac vici ciran bazter gucietan
etzan , Salomonen Eleiza besteric ; eta
etzan cillegui , presentac , doai-esqueñi-
ac , ta ofrendac bestatan eguitea. Ala
ción legueac , guri obeto adirazteagatic,

ez dala Mundu gucian Jainco bat, ta le-
 gue bat baicic. Salomonec bere azquen-
 egunetan bere aisia, alferqueria, ta at-
 seguin itsusi ciquiñ-atsacquiñ galduzu-
 an, Jaincoac emanicaco, jaquinduria; eta
 gueiegui maitatu cituan, erbesteco ema-
 cume arroz galduac zoratu, ta sartuzan
 begui bietaraño Idolatrian, edo guezur-
 rezco Jaincoai agur eguiten. Salomonen
 gaizquiac castigatzeco, haren ill-ondo-
 an zatitu, ta berecituzan haren Errei-
 nua. Amabi Tribu, edo familietatic Ju-
 da, ta Benjamin bacarric guelditu ciran
 Salomonen seme Roboanen menpean:
 beste amar echadi edo familiar Jerobo-
 an artu zuen Erreguetzat. Jeroboan onec,
 bere mempecoac Judaco Erreguearen al-
 detic quentzeco, ta Jerusalem joatea era-
 gozteco, asmatuzuan bere burutic legue
 berri bat, eraguin cituan urrezco cecor-
 rac, ta cecor oei agur eguiteco, aguin-
 duzuan bere Erreinu gucian. Onela sor-
 tu zan *cisma* bat. *Cismae* esan naidu, le-
 nagotic buru baten azpian sinistmen, ta
 legue bat zuenac, alcargandic aldeguitea,
 Jaincoaren Eliza urratzea, ta zaritzea.

Eleiz eguiazco gueldituzan Jerusalenen;
eta guezurrezcoa egonzan lendavician Si-
chenen, ta guero Samaria ceritzan, Is-
raélgo Erreinuco erri nausian.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nor izanduzan David-en ondo-
renngo Erreguea?

E. Haren seme Salomon.

G. Nola vicituzan bere denboran?

E. Bere gogora, berac naicituan aisía,
ta atseguin-contentuz betea.

G. Eta etzuan izandu, ori baño, gau-
za obeagoric?

E. Bai suertez-ere, bada izandu zuan
jaquiundea.

G. Echeric, edo orrelaco gauza andiric
eguin zuan?

E. Bai, eguinzuan Jerusalengo Eleiza.

G. Eta ba-zan bestetan Jaincoari non
agur eguin?

E. Ez: etzan, Eleiz bacar bat, eta Al-
dare bacar bat, besteric.

G. Ta ori cergatic?

E. Ez dala Jainco bacar bat, eta Jain-
coa-

- coarentzat agur-era bat baicic , adirazteagatic.
- G. Eta jaquintsu iraun zuan Salomonec azqueneraño ?
- E. Ez baldinbere : araguicortuzan , emacume galgarrietara jarrizan , eta orregatic , Jaincoac emanicaco , jaquiundeac galdu zuan.
- G. Hura ill ezquero cec guertatuzan ?
- E. Haren Erreinuac banatua , ta zatitua guelditzea.
- G. Cec gueldituzan Salomonen semearentzat ?
- E. Tribu edo Echadi bacar bi , Juda , ta Benjamin.
- G. Ccin izanduzan beste amar Tribuen Erregue ?
- E. Jeroboan.
- G. Eta cec eguin zuan onec , bere Erregue-aldia , edo erreguinza iraunco-rrago sendoago ta firmeago eguiteco ?
- E. Eguin zuan cisma bat.
- G. Eta cer da cisma ?
- E. Eleiza urratcea ta banatzea , bat baicic , ez dan , Eleizaz bi eguitea.
- G. Non gueldituzan Eleiza eguiaczoa ?
- E. Jerusalenen. G.

G. Cein izanduzàn Israelgo Erreinuco, ta
 guezurrezco leguearen buru ta nausi?
 E. Samaria.

XI. IRACURTZA.

PROFETEN GAÑEAN.

ISRAEL-darrac, ta Judatarrac alcargan-
 dic aldeguin zuen ezqueroztic, Israel-
 go Erregue guciac izandu ciran gaizto-
 ac, eta Idolo-zaleac, edo guezurrezco
 Jaincoen ondoren cebiltzanac: eta Juda-
 co Erregue-en artean ere ascò izan ciran
 onelacoac. Haec, eta hoc bereganatu
 naizandu cituan Jaincoac, ta orretaraco
 biraldu cizten Profetac. Deitzen dira *Pro-
 fetac*, Jaincoac emanico ispiritu, ta
 arguiarequin gauza gorde estaliac eta
 etorquizunac ecusten dituen guizon gu-
 ciac. Honelà Moises, Samuel, David,
 ta Salomon ciran Profetac. Baña denbot
 artàn *Profetaren* icen hau ematen citza-
 ien batez-ere, munduco aisiac, ta era-
 queriac utzi, ta Jaincoaren amorez ne-
 quezco vici-era bat eguitera, mendietara,

G. Cein izanduzàn Israelgo Erreinuco, ta
 guezurrezco leguearen buru ta nausi?
 E. Samaria.

XI. IRACURTZA.

PROFETEN GAÑEAN.

ISRAEL-darrac, ta Judatarrac alcargan-
 dic aldeguin zuen ezqueroztic, Israel-
 go Erregue guciac izandu ciran gaizto-
 ac, eta Idolo-zaleac, edo guezurrezco
 Jaincoen ondoren cebiltzanac: eta Juda-
 co Erregue-en artean ere ascò izan ciran
 onelacoac. Haec, eta hoc bereganatu
 naizandu cituan Jaincoac, ta orretaraco
 biraldu cizten Profetac. Deitzen dira *Pro-
 fetac*, Jaincoac emanico ispiritu, ta
 arguiarequin gauza gorde estaliac eta
 etorquizunac ecusten dituen guizon gu-
 ciac. Honelà Moises, Samuel, David,
 ta Salomon ciran Profetac. Baña denbot
 artàn *Profetaren* icen hau ematen citza-
 ien batez-ere, munduco aisiac, ta era-
 queriac utzi, ta Jaincoaren amorez ne-
 quezco vici-era bat eguitera, mendietara,

ta basoetara baztertzen ciranaí. Hoetatic bat zan Elias : onec Jaincoari escatu , ta eragotzi zuan curia iru urte , ta erdian ; onec beronéc eguincituan beste onelacó mirari , ta écusari icaragarri ascó ; ta oraindic ere viciric dirau. Ba-dira , Liburuac escribituric utzicituen Profetac ere, nola baitira Isaias , Jeremias , ta beste onelacó batzuec. Hoec esan zuén , *Samaria*, ta *Jerusalen* galduac izan beharéc zuela , baña Jerusalen berritò eguina izangozàla. Etorquizun ceuden gauzac asma-tzean , hitz eguiten zuen noicean bein , Christo edo *Mesias* cegozan, gauzen gañean , ta aguertu zuen , nolacoac izango-ciran haren jaiotza , haren vici-era , haren nequeac , haren Eriotza , ta haren betico Erreinua. Esan ere bazuén, eguingo zuala Jaincoac bere erricoaquin , lenago Israeldarraquin eguin zuan , alianza edo alcartasuna baño , alcar-artze aguiz obeago bat ; eta Idoloac utziraci , ta deituco cituala beregana Munduco gendeguciac.

Galdeac, ta Eranzuac.

- G.** Nòr ciran Profetac ?
- E.** Jaincoaren ispíritu ta arguiz betericaco guizon batzuec.
- G.** Cergatic deitu ciràn Profetac ?
- E.** Ceren alde-aurretic asmatzen , ta aguertzen cituen , etorquizun ceuden gauzac.
- G.** Noiz guciena izandu-ciràn Profetac ?
- E.** Iraèlgo , ta Judaco Erreinuac alcar-gandic aldeguin ezqueroztic.
- G.** Cein dà , dembor-actan omenic , edo pamaric andiena zuen Profeta ?
- E.** Elias.
- G.** Nòla ill zan ?
- E.** Iñola ere ez oraindic.
- G.** Cer eguinzan badà artzaz ?
- E.** Vicizala , Cerura eramana izanduzart.
- G.** Cein dirà liburuac escribitu cituen Profetac ?
- E.** Isaias , Jeremias , ta beste ascò.
- G.** Cer esanzuen oéc lenagotic ?
- E.** Samaria gucia , batere guelditu gabe , osotoró galduco zala.

- G. Eta Jerusalèn-gatic?
- E. Esan zuen, hura ere erorico zala, bafia guerò berriz eguingo zala.
- G. Mesias-gatic eèer esanzuen Profeta aec?
- E. Bai: esanzuen chearó Jesu Christorì guertatuco citzaion guci-gucia.
- G. Eta itzeguin ote zuen, Jaincoaren, ta guizonen arteco, itz alcargo, edo alcar-artze berriren baten gañean?
- E. Bai eguiazqui: esan zuen, alc-artze berri hau izango zala, Jaincoac lenagotic Abran-equin, ta haren ondoren-go Israéldarraquin eguin zuan, batze ta alcar-artzeca baño aguitz onagoa.
- G. Eta esan zuen Profetac, Jaincoac beregana deituco cituala sinitsmen-gabeco gendeac, edo fede-gabe vici ciran, gentilac?
- E. Bai-ta oriere; bada esan zuen, federic etzuen gendeac, Idolo edo guezurrezco Jaincoac utci, ta joango cirala, Jainco eguiazcoari agur eguitera.

XII. IRACURTZA.

BABILONIACO GATIBU-

tasuna.

ISRAELGO , ta Judaco Erregueac , Profeten ongui-esanac , aser-esanac , eta atelecac ongui artulecuan , esquer orde asco naigabe neque ta pena emancizten Profetai ; ta illeraci ere bacituen Profetetatic batzuec. Orregatic ere gueldiric egonduzan Jaincoa , Erregueai , ta Erregue-pecoai ecer eguin gabe ; ta arrigarrizco emetasun edo paciencia-requirituz luzaro beguira egonzan , noiz eren gaiztaqueri ; ta becatuen damuz biurtuco ote ciran argana. Baña gueroenean ere egotzi zuan Jaincoac aen gañera , eren oben-culpac-gatic cegoten , castigu gogorra. Samariaco Erreinaua , zan gucia , arrasatu ta galduzan ; ta amar Tribu edo Familiac saca-banatu ciran Er-besteetan , ta Samariaz campoco bazterretan : eta etziran inoiz arà biurtu. Nabucodonosor, Babiloniaco Erregueac botazuan lurrera Je-

rusalen gucía , errezuan ango Eleiza , eta
gatibu eramán zuan berequin Erri gucía.
Babilonia zán horduan , Munduan zán,
Erriric andiena , indartsuena , ta escuric
guciena zuana ; baña , iñon ciran , doa-
queri , gaiztaqueri , idolatria , ta becatuz
gucía betea. Orregatic ere Juduac et-
zuen utzi Jainco eguiazcoa ; ezta , Moi-
seseac eracutsi cien , haren leguea ere ; eta
denbor-artan aen artean izanduciran San-
tuac ere. Oetatic bat izandu zan Daniel
Profeta , gende gaizto aen artean gar-
biro , ta gaitz-cabe vicituzana , ta Jain-
coa - gandi misterio , edo mirari andiac
icasi cituana. Nabucodonosor Erregueac
eraguinzuan , guizona cirudian , urrezco
tallu , edo estatua bat , eta aguinduzuan,
guciac agur eguin ciozacla urrezco guiz-
anz hari. Danielequin batean aci ciran,
iru guizon gazte , gogortu-citzaizcan Erre-
gueari , ta etzituen eguin , arc nai cituan
agurrac , eta orregatic botaraci cituan la-
bé iracequi batera ; baña Jaincoac gor-
de cituan , suac bat-ere erregabe. Iru
gazte en icuscari hau ecusi , ta ezagu-
tuzuan Nabucodonosor Erregueac , bai-

ta aitortu ere , aguitz andia , ta indart-
sua zala , Jaincoac , edoecin gauza egui-
teco , duan escua , ta ahala.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Jaincoac laster castigatu otè ci-
tuan Israeldarren becatuac ?

E. Ez : luzaró ichodon cien , eguin cezaen
penitencia.

G. Cer eguin zàn Samariaco Erreinuaz ?

E. Deseguin ta galduzan gucia , eta an
vicitu ciran , amar Tribuetaco Isracl-
darrac andic campora atereac , ta er-
bestetuac izandu ciran.

G. Norc lurreratu zuàn Jerusalengo Erria ?

E. Nabucodonosor , Babiloniaco Erre-
gueac.

G. Cér eguin cien Juduai ?

E. Catibu eraman cituan.

G. Eta certàn guelditu zan Jaincoaren
eguiazco leguea ?

E. Gordezuen Juduac , catibu egonciran,
demboran.

G. Cer legue zàn Babiloniaco leguea ?

E. Guezurrezco Jaincoai cegoten , le-
guea

guea, ce-agui-gurtea, Idolatria, edo sorguinqueriaren eracoa.

G. Nor zàn Daniel?

E. Santu andi, ta Profeta andi bat.

G. Cer eguinzen haren iru lagunac?

E. Babiloniaco Erreguearen Idoloari, edo guezurrezco Jaincoari agurrac ez eguiteco, gogortzea.

G. Cer eguin cìen Erregueac Danielen iru lagunai?

E. Labe iracequi batera botaraci cituan.

G. Cer guertatu citzaien àn?

E. Jaincoac milagroaz gorde cituan, erre gabe.

XIII. IRACURTZA.

CERTAN GUELDITU CIRAN

Juduac.

CIRO ceritzan, Persiaco Erregue bategen, Nabucodonosor Erregueari Babiloniaco Erria quendu, ta, an catibú arquite cituan, Juduai utzi cìen, heren Errietara joaten, baita ere Jerusalemengo Eleiza, ta Erria berriro eguiten.

Ciro

guea, ce-agui-gurtea, Idolatria, edo sorguinqueriaren eracoa.

G. Nor zàn Daniel?

E. Santu andi, ta Profeta andi bat.

G. Cer eguinzen haren iru lagunac?

E. Babiloniaco Erreguearen Idoloari, edo guezurrezco Jaincoari agurrac ez eguiteco, gogortzea.

G. Cer eguin cìen Erregueac Danielen iru lagunai?

E. Labe iracequi batera botaraci cituan.

G. Cer guertatu citzaien àn?

E. Jaincoac milagroaz gorde cituan, erre gabe.

XIII. IRACURTZA.

CERTAN GUELDITU CIRAN

Juduac.

CIRO ceritzan, Persiaco Erregue bategen, Nabucodonosor Erregueari Babiloniaco Erria quendu, ta, an catibú arquite cituan, Juduai utzi cìen, heren Errietara joaten, baita ere Jerusalemgo Eleiza, ta Erria berriro eguiten.

Ciro

Ciro onen ondoren etorri zan Greciaco
 Alexandro andia, ta bereganatu cituan
 Munduco bazterric gueienac. Horduan
 Juduac; Ceruco sinitsmenic etzuen,
 gende gaiztoen artean vici-ba-ciran ere,
 etzuen orregatic utzi Jainco eguiazcoaren
 sinistea, ta etziran gueroz biurtu gue-
 zurrezco Jainco etara. Gende gaizto aen
 artean gueldi gueldi sartuaz cijoan Jain-
 co egulazcoaren leguea. Al-ere horduco
 Erregueren batzuec gaizqui erabilli ci-
 tuen Juduac, heren legue santua utzi-
 eraci-naiez; eta Idolo, edo guezurrezco
 Jaincoai agur eraguin-naiez. Antioco ce-
 ritzan, Siriaco Erregue batec artu zuan Je-
 rusalen, loitu ta treshondratu zuan angó
 Eleiza, ta debecatu ta eragotzi cituan,
 Jaincoari an eguin-oi citzazcan, agurrac,
 presentac, doai-esqueñiac ta sacrificioac.
 Judu ascoc, Jaincoaren leguea ez ausit-
 zeagatic, eramán cituen neque-pen tormen-
 tu gogorrac, ta azquenic eriorza. Baña
 Judas Macabeoac, bere anaiacquin ba-
 tean, heren leguea, ta lenagotic zuen
 escua, ta libertasuna ez galtzeagatic,
 erasó cien etsaiái, ta, Jaincoa bere aldó
 zuala,

zuala, garaitu cituan ciranac, eta bera-
ganatu ciran, Judatar guciac atera cituan,
Jainco eguiazcoaren ezagu-era gabe vici
ciran, gentil gaizto aen uztarri-petic.
Judas hau, ta onen ondorengoac izan
ciran aldi batean Judatarren buru, ta
aguinari; ta hoetatic batzuec izanduci-
ran Erregueac. Baña Munduaren Jabè
eguin ciran, Erromatarrac etorri, ta quen-
du cien Juduai, edo Judatarrai, zuen,
escu gucia. Hau gucia aldè aurretic esa-
nic utzi zuen Profetac.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nor izandu zàn, Juduac Babilo-
niaco catibu-tasunetic atera cituana?

E. Ciro, Persiaco Erreguea.

G. Certaco zàn, Juduac fede-gabeco
gendeen artean vicitzea?

E. Gende ber-ai Jainco eguiazcoaren
ezagumentua emateco.

G. Juduac, Babiloniatie irten ezquero,
biurtu, edò itzuli oté ciran lenagoco
Idolo, ta guezurrezco Jainco-etara?

E. Ez baldinbere.

G.

- G. Nòr izanduzan , Jaincoàren leguea utzirazteagatic , Juduac galzqui erabilli cituan , lenengoa ?
- E. Siriaco Erregue , Antioco Greciatarra.
- G. Nòrc asiera emancion Greciatar , edo Griegoen aguinde , edo Imperioari ?
- E. Alexandro Andia ceritzan , guizon batec.
- G. Nor ciran , Antioco Erregueari gogortu , ta gudà edo guerra eguincioenac ?
- E. Judas Macabeo , ta beré anaiac.
- G. Cèr irichì zuen hoec guerra ematearequin ?
- E. Heren Erriac , ta Erritarrac Griegoen mempetic ateratzea.
- G. Nòr gueroz izanduzan Juduen buru ta aguintari ?
- E. Judas Macabeo onen beronen eche-coac , ta ondorengoac.
- G. Nòrc gueroenean galdu cituan Judatarrac ?
- E. Erromatarrac bucatu cituen.

XIV. IRACURTZA.

JUDU ISPIRITU-COIAÇ, TA
aragui-còrrac.

Herodes, Munduan izandu ciran, guizonic gaizto-en-etatic bat, eguinzan Judeacó Erregue, bide gabe, ta derecha gabe, orretaraco Erromacó Aguintari edo Emperadoreac laguntzen ciola. Ongui ciequien hordudanic Juda-tarrac, laster etorrico zala Mundura Mesias, edo Christo. Ordea Juda-tarren artean batzuec ciran ispiritu-coiac, ta besteac Aragui-corrac. Juda-tar aragui-corrac etzeuqueen eren gogoan, gorputz aragui-corrari dagocana, baicic. Jaincoari ba-cerraizcan; jarrai hurá etzan onez, ez-pada, Jaincoagandic gari, ardo, urré, cillár, artalde andiac, ta guisa onetaco ondasúnac iristeco, ustez; onela heren emazte, ta humeacquin, aisian, nai adiña aberaturic, ta nai bezala vicitzeco. Etziran Jaincoaren bildúr, gauz gabearen, behartasunaren, gaitzaren, critasunaren,
eta

eta hiltzearen bildurragatic baicic, Judatar ispiritu-coiac, edo espiritualac cerraizcan Jaincoari gogoz, ta viotzez: maitè zuen Jaincoa, ta agur andiac eguiten ciozqueen, ceren ori, ta aguitz gueiago zorzaion haren, guciraco duan, escu, edo ahalari, jaquiunde ecin-gueiagoco ari, ta ontasun ecin-obeagoari. Ala Judatar aragucorrac, nola ispiritu-coiac ezagutzen zuen, dembora guichiren barrunen, Profetac cioenez, etorrico zala Mesias, edo Christo; baña gucien usteac etziran era batecoac. Aragui-corrac Christoren gañeco Profeten itzetan aditzen zuen, letrac azaletic ta campotic ciona; eta ez, barrendic, ta mamitic adiracitzen zuana. Ustezuen, Profetac liburu santuetan esanzuena, gucia zala gorputzaren alderaco, eta ez animaren oneraco. Cerizten, Mesias, Christo, edo Jaincoaren seme guizon eguiñac lureco Erregue izan beharco zuala; eta izango zala, David Erreguea baño, gudari, edo guerrari andiagooa, ta Salomon baño, aberatsagoa; ta Judatarac haren Erregue-aldian vicico cirala aisian, heren gogora, ta nai adiña,

atseguin contentu pozez beteac, Mundu-
co beste gende guciac heren azpian, ta
escupean ceuzquecla. Bestelacoac ciran
Judatar ispiritu-corren asmoac. Hoec eza-
gutzen zuen, ba-dirala ondasunac, lurre-
co ondasun guciac baño aguitz ta aguitz
andiago, ta nai-garriago diranac. Orre-
gatic etzuen ùste emen munduan zoriòn
edo doatasun osó beteric, ezpada gueró
Ceruan, araguiaren erresurrecio edo viz-
tea ezquero; ta Mesias-gandic lenic, ta
gucienic uste zuena, zán, Jaincoa eza-
gurtzeco, ta maitatzeco behar degun, me-
sedeac laguntza, ta gracia.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nòr izanduzan Judatarren Erregue,
Erromaco Aguintarien azpian vici-
ciranean?

E. Herodes.

G. Nòiz betezan, Jaincoaren semea gui-
zon eguiteco, dembora?

E. Herodesen beraren Erregue-aldian.

G. Cèin ciran Judatar aragui-corrac?

E. Lurreco ondasunac izateagatic baicic,
Jain-

- Jaincoa serbitzen etzuenac.
- G. Nolacoa , uste zuen , izango zala Christoren Erregue-aldia ?
- E. Uste zuen , Christo izango zala, emengo beste Erregueac bezalaco , lurreco Erregue bat : ifinico cituala Munduco Erri , ta gende guciac Judatarren escu-pean , ta manuaren azpian ; ta vicico zala ondasunez , hondraz , ta atseguin-pozez betea.
- G. Cèin ciran Judatar ispiritu-coiac ?
- E. Gogoz , naiez , ta viotz onéz Jaincoa serbitzen zuenac.
- G. Cèr , uste zuen , emango ciela Jaincoac ?
- E. Emengo aldia eguin , ta Ceruan beticico vicitza.
- G. Cèr zan , Mesias edo Christo-gandic batez-ere ichodoten zuena ?
- E. Bera ezagutzeco , maitatzeco , eta onesteco , behardegun , gracia ta laguntza.

XV. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN JAIOTZA.

Herodes Judeaco Erregue zan, demboran, ta Cesar Augusto Erromaco Emperadore ta Aguintari zan-ean, vicizan, *Nazaret* ceritzan, Galileaco Errian, *Maria* icena zuan, santutasun andico donçella garbi bat. Joseph ceritzan, guizon santu batequin ezcondua ba-cegoan ere, beti virgiñ garbi vicitzeco, asmoan cegoan, ta ala vicitu zan. Tribu, echalde edo Echadi batecoac ciran *Maria*, ta Joseph; bada biac cetozen Judaren Echeitic, ta Daviden odoletic. *Maria* Virgiñ oni bidaldu cion Jaincoac S. Gabriël Ainguerua, adiraztera, Mesias, edo Jesusen Ama izan behar zuala: eta Mariac eman zuan orretaraco bere baiezcoa, Virgiñ, ta ama Ispiritu Santuaren lanez ta bitartez izango zala, jaquindu zuan ezquero. Hordu, ta úne artan Aita Eternoaren Itza, Jaincoaren Semea, Eternidade gucian Jaincoagan egonduzana, eta

Aita

Aita bezambateco Jainco zana, eguin zan aragui, edo eguinzan, gu gueran bezalaco guizon, gureac bezalaco gorputz bat, eta anima bat Maria Virginiaren sabel garbian eguiazqui artzen cituala. Jesus jaiotzeco cegoan, egunetan aguinduzuan Augusto Erromaco Emperadoreac, haren mempean arquitzen ciran, guciac billacezaela, nongoac ciran, nondic cetocen, eta nola cerizten. Orañago guñion bezala, S. Joseph, ta Jesusen Ama Maria David Erregue andi Santuaren odoletic, ta Echetic cetocenac ciran; eta Eche hau Belenen arquitzen zan. Elduciran Belengo Errira, eta etzuen arquitu, non onac sartu, horducò alabaña beteac ceuden ostaru, ta eche guciac. Bazan, Belengo Errian sartu baño lenago, Echola, edo lur uts-pe bat, ta Echola onetan jaiio zan Jesus Ama Virginiagan dic, arguia vidriotic irteten dan, eran. Jaiio zanetic, zorcigarren egunean eguinzan, Legue zarrac aguinduricaco, aur jaiio-berriaren Circuncisioa, ta ifini cioen Aurrari, Salvatzallea esan naiduan, *Jesus icena*. Circuncisioa zan, aurrari bere gorputzeco

putzeco alde mimbera batetic araguí piscab
 bat cañibetaz quentzea. Egun batzuen
 buruan etorri ciran, Eguzquia sortzen
 dan, aldetic iru Erregue Magoac, edo
 jaquintsuac, Jesusi escu-muñ humillac, ta
 presentac eguitera, eta present oec izandu-
 ciran urrea, incensua, ta mirra. Hero-
 desec aditu zuanean, iru Erregueac ce-
 tocela, Judatarren Erregue jaio-berriari
 agur eguitera, artu zuan, Erregue ber-
 riac Erreinua quenduco ciolaco sospe-
 chac, gogoan-beharrac, eta bildurrac; eta
 aguindu zuan, illicitecela Belen-inguruco
 aur guciac. Baña S. Josec Jesus, ta ha-
 ren Am-andre Maria artu, ta igues-eguin
 zuan Igitora, ta an vicitu ciran, Hero-
 desen illberria aditu arteraño. Guero bi-
 urtu ciran Nazareco heren errira, ta an
 vicituzan Jesus, ogueita amar urte bete
 cituan arteraño, inore nor zan, ezagutu
 gabe, bere amac, eta San Josec aguint-
 zen cioena, eguiten zuala, eta San Jose-
 ri zurguintzan, edo arotzian laguntzen
 ciola.

Galdeac , ta Erantzua.

- G.** Nor izandu zàn *Jesu-Christo*, gu-re Jaunaren Ama ?
- E.** Virgiña Santa Maria.
- G.** Cein Tribu , edo Echadicoa zàn *Jesu-Christoren* Ama ?
- E.** Judá , edo Judas ceritzan , Jacob Patriarcaren seme baten Echadicoa.
- G.** Eta cèin echetacoa ?
- E.** David Erreguea-renecoa.
- G.** Nòrequin ezcondu zàn ?
- E.** Eche bereco San Joserequin.
- G.** Nola jaquindú zuan , Mesiasen Ama izàn behar zuala ?
- E.** Jaincoac bidaldu cion , San Gabriel Arcangeluac esan , ta jaquindu zuan.
- G.** Jesus-en Ama izateco , noiz eman-zuan Virgiña Mariac bere baiezcoa ?
- E.** Orregatic ere Virgiñ garbi gueldi-tuco zala , Ainguervuac esan cioncan.
- G.** Eta cèr guertatu zàn horduan Ama Virgiñagan ?
- E.** Verbo Eternoa , edo Itz beticoa eguin zan aragui,

- G. Verbo , edo Itz beti dirauen ori
cer da?
- E. Jaincoaren Semea.
- G. Cer dà Jaincoaren Semea araguitzea?
- E. Gu guizon gueran bezala , hura ere
guizon eguitza.
- G. Nón jaio zàn Jesu-Christo?
- E. Belenén ondoan cegoan , estalbe , edo
Echola batean.
- G. Cèr esan naidú *Jesus*-en icenac?
- E. Salvatzallea , edo erremediatzallea.
- G. Cein ciràn , Jesusi agur eguin cioen
lenengo Gentilac?
- E. Eguzquiaren sortaldetic etorri ciran
Erregue Magoac , edo jaquintsuac.
- G. Cèr eguin zuan horduan Herodesec?
- E. Aguindú zuan , ill citecela Belen-in-
guruco aur guciac.
- G. Nòla gorde zan , ta libratu zan Jesus
aurra?
- E. Igitora eraman zuan San Josec.
- G. Nòla vicitu zan bere demboran?
- E. Bere Am-andre Maria Virginiac , ta
San Josec aguintzen cioena , eguiten
zuala.
- G. Eta Jesusèn Aita zàn San Josec?

- E. Ez, baña alà zala, uste zuan Munduac.
 G. Cèr languite , edo oficio zuan San Josec?
 E. Zan Zurguiña , edo Arotza.

XVI. IRACURTZA.

ORAINDAÑO ESAN DANAREN BIL- gura laburra.

JAincoac ecerezetic eguin zuan Mundua , edo eguin cituan Ceru lurrac, Itsaso odeiac , Eguzqui izarrac , eta Ceruan , ta lurrean diran , gauza guciac. Oen artean eguin cituan guizona , ta emacumea , baita Aingueruac ere. Aingueruac aurrenetic guciac ciran ònac ; baña laster batzuec gaiztotu ciran , eta oec dira infernucoac. Oetatic batec suguearen aoz emacumeari itz eguin , ta eraguin cion becatua ; ta guero emacumeac eraguin cion berè senar Adani. Horduan Jaincoac mardaricatu zuan suguea , ta esan cion , emacume-agandic etorrico zala , hari burua ausico cion , Munduaren Zucenzallea , ta Salyatzallea. Adanen becatua igaro zan haren

- E. Ez, baña alà zala, uste zuan Munduac.
 G. Cèr languite , edo oficio zuan San Josec?
 E. Zan Zurguiña , edo Arotza.

XVI. IRACURTZA.

ORAINDAÑO ESAN DANAREN BIL- gura laburra.

JAincoac ecerezetic eguin zuan Mundua , edo eguin cituan Ceru lurrac, Itsaso odeiac , Eguzqui izarrac , eta Ceruan , ta lurrean diran , gauza guciac. Oen artean eguin cituan guizona , ta emacumea , baita Aingueruac ere. Aingueruac aurrenetic guciac ciran ònac ; baña laster batzuec gaiztotu ciran , eta oec dira infernucoac. Oetatic batec suguearen aoz emacumeari itz eguin , ta eraguin cion becatua ; ta guero emacumeac eraguin cion berè senar Adani. Horduan Jaincoac mardaricatu zuan suguea , ta esan cion , emacume-agandic etorrico zala , hari burua ausico cion , Munduaren Zuentzallea , ta Salyatzallea. Adanen becatua igaro zan haren

haren hume, ta ondorengo gucietata; eta orregatic Jesu-Christo, ta bere Amandrea ez, beste gucioc jaiotzen guera, becatu hau guerequin degula, ta deritza becatu *originala*, edo *jatorriz* degun becatua. Adan eta Evaren lenengo Semeac izandu ciran *Cain* gaiztoa, ta *Abel* ona, eta *Cainec* il-zuan Abel. Guero jaio zan *Seth*. Onen ondorengoac noizbait gaiztotu ciran, ta gucien artean, *Noe* bacarric arquitu zan, ona zanic. Oni Jaincoac aguertu cion, Mundua galtzeco, artu zuan, asmoa, eta aguindu cion, eguin cezala cucha-guisaco Oni bat; eta bere Emazte, ta iru Seme-errañacquin, ta aurreraco behar ciran, abere, ta egaztiacquin, sar cedilla an. Berroquei egun, ta gau, beinero atertu gabe, erori zan, euri-jasac estali-zuan urez Mundu gucia, eta ito ciran, Cuchan gorde ciran ez, beste vicicor guciac. Etziran orregatic cenzatu Noeren ondorengoac; bada asco luzatu gabe, heren Jainco eguiazco Munduaren eguillea utzi, ta jarri ciran, heren burutic asmatu cituen, edo infernucoac eracutsi citen, Idolo edo guezurrezco Jaincoetara.

Ez baldin bere ezagumenturen gabez : ba-
 ciequien alabaña , inore esan gabe , one-
 tan , eta beste gauz ascotan gaizqui egui-
 ten zuela. Nore nai bere burutic duan , ar-
 gui , ta ezagumentu oni deritza *legue na-
 turala* , edo jatorrizco leguea. Demboren
 contuari darraizcanac , eta urteen cembra-
 tezcoaren billan dabilzanac , dioc , zaz-
 pi dirala Munduaren adiñac , edo eda-
 deac. Lenengoa da , Mundua asizanetic ,
Noeren demboraco Ugolderaño ; ta bate-
 tic besterañoco , urteac , dioe , dirala
 milla , seieun , berroguei , ta amazapi .
 Noec izandu cituan , *Sem* , *Cam* , ta *Jafet*
 ceriztea , iru seme . *Sem* , ta haren
 ondorengoan batzuec onac izandu ciran .
 Oetatic bat zan *Abran* . Oni Jaincoac
 aguertu ciozcan bere gogò ta asmoac , eta
 esan cion : *Abran* , baldin zue nere esanac
 eguiten ba-dituzu , nic eguingo zaitut hu-
 me ascoren guraso , zure humeen ondo-
 rengoei emango diztet Canaango bazter
 ugariac , ta zure odoletic datorrena izan-
 go da Mundu galduaren zucen-vidca , Sal-
 vatzallea , ta erremediatzallea . Jaincoac
 eman cion *Abrani* , *Isaac* ceritzan , Seme
 bat .

bat. Isaac onen Semea zan Jacob, ta onec izandu cituan, *Patriarcac* cerizten, amabi seme. Ugoldetic Abranen demborafio igaro ciran laureun, oguei, ta sei urte; ta hau da Munduaren bigarren adiña.

Jacobren semeac saldu zuen Igitora heren anai Joseph. Lenengoan catibu egonba-zan ere, guero, Jaincoac nai, ta eguin zan Erregueren urrengo guizon; ta gosete batean deitu cituan beregana bere Aita Jacob, ta bere anaiac. Joseren demboraco Erregueren ondoren sartuzan Igiton beste Erregue bat, ta onec gogorqui artu cituan Jacobren humeen ondorengoac; baña Jaincoac *Moisesen* bitartez aterà cituan, Igiton ceramaen, neque-petic, ta eraman cituan Canaango bazterretara. Abranen aldiatic Israeldarren ittete onetaraño igaro ciran laureun oguei, ta amar urte. Hau da irugarren adiña.

Berroguei urtean ibilli ciran bidean Israeldarrac, Igotitic, Jaincoac aguinducion, lurrera joateco. Bidez asi ciranetic, laster eldu ciran, *Sinai* deritzan, Mendibatera; eta an eracutsi cizten Jaincoac,

of bitan iscribituric , bere leguecõ amar mandamentuac. Ol oec gordetzeco , eraguin zuan Jaincoac , Testamentuco *Arca* deritzan , cucha bat ; eta berritu cituan Israeldarren aldè , aen gurasoai eguindaco esqueñiac , ta aguindeac , ta emanicaco itzac. Israeldarrac emancioen Jaincoari , bera , beste Jaincoric ez ezagutzeco , itza ; baña Canaango Errietan heren itzaz azturic , ta ango gende gaiztoquin bat-eguinic , aen Idolo-tzarrac artu cituen Jaincotzat. Israeldarren lenengo Erreguea Canaango lurrean izanduzan *Saul* , bigarrena *David* , ta irugarrena *Salomon*. Onec eraguin zuan Jerusalengo Eleiza ; ta onen seme *Roboanen* aldian Israeldarrac aldeguin zuen alcargandic. *Juda* , ta *Benjamin* cerizten , Tribu-familia , edo Echadi bi bacarric gueldituciran *Roboanequin* ; beste amar Tribu edo familiac *Feroboan* artu zuen heren Erreguetzat. Onec sortu zuan cisma , edo erdiratu zuan Jaincoaren Eleiza , legue eguiazcoa utzi , ta bere mempecoentzat legue berri bat asmateen zuala. Israeldarrac Igitotic Jaincoac atera cituanetic , Salomonec

lomonec Jerusalengo Eleiza eguin zuan arteraño , joan ciran laureun , laroguei, ta zazpi urte ; ta dembor hau da Munduaren laugarren adiña.

Gaiztoac , ta Idolo-zaleac izandu ciran gueroz Israelgo Erregue guciac , baita Judaco batzuec ere. Jaincoac , guciac ondu-naiez , bialdu cizten Profetac ; baina alferric , bada orregatic ere , aec gueroago , ta gaiztoago. Azquenic ecusi zuen heren gañean , cegoten , nequea ta castigua. Samariaco Erreinua galduzan , ta Israeldarrac etziran guciego ará biurtu. *Nabucodonosor* Erregueac deseguin zuan Jerusalem gucia , erre zuan ango Eleiza, eta catibù eraman cituan Babiloniara Judatarrac. *Ciro* , Persiaco Erregueac , andic atera , ta bialdu cituan , Jerusalengo Erria , ta Eleiza berrirò egultera. Horduco , Salomonec Jerusalengo Eleiza eguin zuanetic , igaro ciran laureun , iruroguei , ta zorci urte ; ta hau da Munduaren bost-garren adiña.

Ciro Erregueren ondoren sartu ciran Canaango Errietan Greciaco Erregueac , eta oec chit gaizqui erabilli cituen Judatar-

rac.

rac. Judas Macabeoac , bere anaiaquin batean , eraso cien Greciatarrai , ta aterra cituan bere Judatarraç , Gentil gaiztoaen uztarri-petic. Baña azquenic Erromatarraç etorri , ta ecertaco escu gabe utzicituen Juduac edo Judatarraç. Demboronetan , *Augusto* Erromaco Emperadorezala , jaio zan *Jesu-Christo* Belenen Maria Virginiagandic. Juduac Babiloniaco catibutasunetic libratu ciranetic , *Jesu-Christo-ren* jaiotzaraño joan ciran bosteun , oguei , ta amabi urte , ta hau da Munduaren seigarren adina. Urte oec , ta lenagocoac alcargana batu , ta Munduasizanetic , *Jesu-Christo* jaio zan arteraño igaro ciran gucitara *lau milla* urte. Aladioc oraingo guizon jaquintsuren batzucec ; baña Eleizan , Eguerri Vezpera goicean enzuten deguna , da , *Jesu-Christo* jaio zanean , ba-cituala Munduac *bost mil-la* , eun , *laroguei* , ta emeretzi urte. Munduaren zazpi-garren adina da Jesusen jaiotzatic azquen-juicioco eguneraño. Noiz izango dan azquen hau ? Jainco berac bai , baña bestec ez daqui.

XVII. IRACURTZA.

SAN JUAN BAUTISTA.

JESU-Christo , gure Jauna , ogeita
 amar urtecoa zala , aguertu zan Pro-
 feta andi San Juan Bautista , *Zacarias-*
en , ta Santa Isabel , Maria Virginiaren
 aidearen Semea. Mendi-Eremu-Basoetan
 vici oi zan Profeta andi hau , lenagoco
 Profetac baño viciera necagarriago bat
 eramala , ta arganutzen ciran , guciai pe-
 nitencia eguiteco , eracusten ciela : *Ceren*
(cion) *Ceruetaco Erreinua urrean dagoan*.
 Sinisten zuenai , ta Jaincoagana biurtzen
 ciranai , ematen cien , San Juanec *Ba-*
taioa ; edo (berebat dana) garbitzen ci-
 tuan *Jordango* Ibaian ; Judatarrac , heren
 becatuen loi ciquiñac quentzeco , legue-
 ac cionez , garbitu oi ciran bezala. Bata-
 io , edo garbiqueta onetatic cetorquion
 San Juani *Bautista* icena. *Mesias* edo
 Christozat artu nai izanduzuen San Juan,
 haren Sermoiac enzutera , juaten ciranac ;
 baña San Juanec esan cien , etzala hura
 Chris-

Christo , baicic haren etor-vidca zucenzeco , haren aurtetic Jaincoac bialduricaco , guizon bat. Besteen artean joanzan Christo San Juan-gana , eta aetatic bat ba-liz bezala , escatu cion , bataia cézala hura ere. San Juanec etzuan aldi artaraño ecusi bein ere gure Jesus ; eta al ere ezagutu zuan ecusi horduco ; ta bataiatu zuan Jordan-Ibaico urarequin. Bataio , edo garbiera artan bedecatu cituan Jesusec irac , ta eman cien , Bataioco Sacramentuan becatuac baratzeco , indarra. Horduan idiqui ciran bat-batetan gañeco Ceruac , ta jetsi zan Espiritu Santua, usò idurian , Jesusen buru gañera : ta hau ecusi , ta esan zuan San Juan Bautistac : *Ona Munduco becatuac quentzedituan , Jaincoaren bildotsa : Moisesec eman zuan leguea ; baña Jesu-Christoren bitartez etorri zan gracia , ta eguia.*

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Noren Semea zan San Juan Bautista ?

E. Zacarias Santu , ta Maria guciz Santu-
ta-

taren aide Santa Isabel-ena.

G. Non vici oizan?

E. Eremu ta basoetan, bere gorputza lazqui necatzen zuala.

G. Itz eguin otezuen artzaz lenagoco Profeta?

E. Esanzuen, izango zala Mesiasen aurretic etorrico zana, edo Mesiasen aurretic bialdua.

G. Nolacoac ciran San Juanen Sermoiac edo predicuac?

E. Bere enzunleai becatuen penitencia eraguiten cien, bezalacoac.

G. Eta cer eguiten cien, haren esanac ongui artzen cituenai?

E. Bataiatu.

G. Nola bataiatzen cituan?

E. Jordan Ibaico urtan bustirazten cituala.

G. Bataiatu zuan Jesu-Christo?

E. Bai: bada Jesu-Christo berac naitzuan, bataia cezan San Juanec, Bataioco ura bedecitzeco, ta santuguiteco.

G. Cer guertatu zan Bataio artan?

E. Eculteco andi bat: Espiritu Santua jetsi zan, usoa cirudiala, Jesusen burua-

buruaren gañera.

- G. Cer esan zuàn San Juanece horduan?
 E. Bataiatzen zan, hura zala, Munduco
 becatuac quentzen dituan, Jain-
 coaren bildotsa.

XVIII. IRACURTZA.

APOSTOLUEN DEIA.

SAN Juan Bautistac Jesus bataiatu
 horduco, adiraci cion Espiritu San-
 tuac Jesus berari, baztertu cedilla, San
 Juan cegoan, Mendi artaco Ere mu ba-
 tera. Ere mu artan atera zuan Jesusec ba-
 rau luce garbi bat, ta necatu zuan bere
 gorputza, berroguet egunez, ta gauez
 bocadu bat artu gabe, ta ur tantaric ere
 edaten etzuala. Berroguet egunen buruan
 eldu zan ara infernucoa, Jesus tentatzeras
 baña bere al-eguin guciaquin ere etzuan
 atera etsai gaiztoac, naizuanic, gure
 Jauna gandic, ta bere indar guciac gal-
 duric, igues eguin zuan Infernuetara. Ere-
 mutic jetsi zan Galileara. An esan cien lau
 Arranzaleri, jarraciozacle. Arranzale oec

buruaren gañera.

- G. Cer esan zuan San Juane horduan?
 E. Bataiatzen zan, hura zala, Munduco
 becatuac quentzen dituan, Jain-
 coaren bildotsa.

XVIII. IRACURTZA.

APOSTOLUEN DEIA.

SAN Juan Bautistac Jesus bataiatu
 horduco, adiraci cion Espiritu San-
 tuac Jesus berari, baztertu cedilla, San
 Juan cegoan, Mendi artaco Ere mu ba-
 tera. Ere mu artan atera zuan Jesusec ba-
 rau luce garbi bat, ta necatu zuan bere
 gorputza, berroguet egunez, ta gauez
 bocadu bat artu gabe, ta ur tantaric ere
 edaten etzuala. Berroguet egunen buruan
 eldu zan ara infernucoa, Jesus tentatzeras
 baña bere al-eguin guciaquin ere etzuan
 atera etsai gaiztoac, naizuanic, gure
 Jauna gandic, ta bere indar guciac gal-
 duric, igues eguin zuan Infernuetara. Ere-
 mutic jetsi zan Galileara. An esan cien lau
 Arranzaleri, jarraciozacle. Arranzale oec

ciran Simon edo Pedro , ta onen anaï Andres ; ta *Jacobo* , ta *Juan* , Zebedeo aren Semeac. Guero deitu cituan besteren batzuec , ta aen artean *Matheo*. Guciac uzten zuen , Jesusec deitu horduco , zuen, gucia , berari jarraitzeagatic : ta onela, dembora guchiren buruan , bereganatu cituan Discipulu ascò , edo bere eracustearen icasle ascò. Jesusec bere icasleen artetic autu cituan amabi *Apostoluac*. *Apostoluac* esan naidu *bialdua* , ceren gure Jaunac bere *Apostoluac* bialdu cituan, Mundu guciari bere leguea, ta Ceruraco bidea eracustera. Apostoluen artean lenengoa zan *Pedro* , guero onen anaï *Andrès* : *Jacobo* , edo *Santiago* , ta *Juan* , Zebedeoaren semeac ; *Phelipe* , *Bartolomè* , *Matheo* , *Thomàs* , *Jacobo* , Alfeoren semea , haren anaï *Judas* , edo *Thadeo* , Cananeaco *Simon* , ta *Judas* Iscariote, gure Jesusen saltzalle traïdorea. Andresen anaï *Simoni* deitu cion Jesusec icengoitiz *Arria* : esatenciola : *Zu cera arria* , ta *arri* onen gañean jasoco det nic nere *Eleiza* , ta emango dizquitzut *Ceruetaco Erreinuaren* gultzac.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. JESU Christo , bataiatu zàn ez-
quero , nora joan zan ?

E. Eremura , edo desiortora.

G. Ta cer eguin zuan àn ?

E. Barautu berroguet eguncan.

G. Eta cèr gueiago ?

E. Izan cituan Infernuco bere etsai gal-
garri gaiztoarequin bere tentu-peleac.

G. Nola deitu cituan bere icasteguiraco,
edo escolaraco icasleac , edo Dis-
cipuluac ?

E. Esanaz , cerraizcala , ta , zuen gucia
utziric , bertatic jarraitu cioen.

G. Cer esan nai dù Discipuluac ?

E. Maisu baten esanac enzuten dituen,
ta arc eracutsiac eguiten , diarduen,
personac.

G. Cer esan nai dù icen *Apostoluac* ?

E. Esan nai du *Bidalduac*.

G. Cembat autu cituan Jesu-Christoc ?

E. Amabi.

G. Esaitzu orien icenac ?

E. San Pedro , ta onen anai San An-
dres;

dres ; Santiago , ta San Juan , Zebedeoaren semeac ; San Felipe , San Bartolomé , San Matheo , Santo Thomas , Santiago , ta San Judas , Alfeoren semeac , San Simon , ta Judas Iscariote traidorea.

G. Cergatic San Pedro icendatzen dà gucien lenengo ?

E. Ceren Jesu-Christoc esan zuan , hura izango zala haren Eleizaren cimenduarria.

G. Cer esan cion gueiágo ?

E. Emango ciozcala Ceruetaco Erreinua-
ren guiltzac.

XIX. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN *predicua.*

ERRIRIC-erri cebillen Jesu-Christo Evangelioa predicatzen , edo Ceruetaco Erreinuaaren berri ona ematen. Berri hau zan , eldu zala , guizonac , Jaincoa ezagutzera , deitzeco , dembora : berá zala , ancinacó Patriarcae ta Profetae
uste

dres ; Santiago , ta San Juan , Zebedeoaren semeac ; San Felipe , San Bartolomé , San Matheo , Santo Thomas , Santiago , ta San Judas , Alfeoren semeac , San Simon , ta Judas Iscariote traidorea.

G. Cergatic San Pedro icendatzen dà gucien lenengo ?

E. Ceren Jesu-Christoc esan zuan , hura izango zala haren Eleizaren cimenduarria.

G. Cer esan cion gueiágo ?

E. Emango ciozcala Ceruetaco Erreinua-
ren gultzac.

XIX. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN *predicua.*

ERRIRIC-erri cebillen Jesu-Christo Evangelioa predicatzen , edo Ceruetaco Erreinuaaren berri ona ematen. Berri hau zan , eldu zala , guizonac , Jaincoa ezagutzera , deitzeco , dembora : berá zala , ancinacó Patriarcae ta Profetae
uste

uste zuen , Christo , edò Mesias : ta
 Mundu galdua ontzeco , guizon eguin
 zan , Jaincoaren semea : eta argan si-
 nistu , ta penitencia eguiten zuenac , iri-
 sico zuela becatuen barcacioa , ta secula-
 co vicitza. Jaincoaren icenean itz eguiten
 zuala , sinisterazteco eguiten cituan mira-
 culu , edo arrigarrizco mirari ascò. Be-
 guien ichi-idiqui batean , ta hitz bacar
 bat esanaz sendatzen cituan eritasun , edò
 gaitz guciac : itsuai ematen cien icusme-
 na , gorrai enzumena , eta mutuai hitz-
 mena : gaitz-quiñac ateratzen-cituan gu-
 zon-emacumeen gorputzetatic , ta vizten
 cituan illac. Bere vici-eraquin eracusten
 cien guciai , nola vici beharzuén , Cerua
 irabazteco. Zan viotzez umilla , biguña ,
 beraá , ta erraza : ceramazquian eme-
 qui , premiaren , edo gauzen gabearen
 aldetic cetozquion , nequeac , ta naiga-
 beac : urricaltzen zan , Jaincoagana itzuli
 nai zuen , becatariac ; baña aserre zan ,
 gaitzean gogorturic vici ciran becataria-
 quin. Bere egulteco gucietan ecer naiet-
 zuan beretzat : eguiten zuan , gucia ,
 eguiten zuan , guizonac , bere Aita Jain-
 coa

coa ezagutzera, ta maitatzera, eracartegatic: eta gau gucia, gueienez, oracio-guiten, igarotzen dituan. Bere icasleai, eracutsi cien otoiña, edo oracioa da.

1. Aita gurea Ceruetan zaudena, erabil bedi santuqui zure icena.
2. Betor Zure Erreinu.
3. Egun bedi Zure vorondatea, nola Ceruan, ala lurtean.
4. Egun iguzu gure egunoroco oguia.
5. Eta barca-zazquiguzu gure zorrac, gure gueren zordunai barcatzen diezregun bezala.
6. Eta ez-gaitzatzula utzi tentamendutan erorten.
7. Baicic libra gaitzatzu gaitzeticu Ala-biz.

Galdeac, ta Erantzuc.

G. Certan aritu zan Jesu-Christo?

E. Erri andi, eta ochiquetan predicatzen, edo Ceruraco bidea eracusten.

G. Cer predicatzen zuan?

E. Ceruetaco Erreinuaren Evangelioa, edo berri ona.

- G. Cer dà Ceruetaco Erreinua?
- E. Jaincoa ezagutzea, ta beti vicitzea.
- G. Cer cion Jesu-Christoc beregatie?
- E. Cion zalà Mesias, Christo, ta Jaincoaren Semca.
- G. Cer eguin behar zala, cion?
- E. Argan sinistu, ta penitencia eguin.
- G. Certaco eguin penitencia?
- E. Becatuen barcacioa iristeco.
- G. Nola eracusten zuan, zalà Jaincoac bialdua?
- E. Mirari, miraculu, edo arrigarrizco lanac eguinaz.
- G. Eta cer miraculu eguiten cituan?
- E. Itz bat esatea, ascó zuan, eritasun, gaitz, ta enfermedadec guciac sendatzeco.
- G. Eta cèr gueiago?
- E. Gaitz-guiñac, edo demonioac ateratzen cituan guizonen gorputz-etatic, eta vizten cituan illac.
- G. Cer otoitz, edo cèr oracio teracutsi zuan?
- E. *Aita gurea.*
- G. Esazu.
- E. *Aita gurea*, eta gañeracoa.

XX. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN ETSAIAC.

MUNDU gucia arritua ceucan Jesu Christoc , eguiten cituan , gauz andiaquin , ta guciac cerraizcan noranai, bai-ta Eremu edo Basoetara ba-cijoan ere. Judatarrac ez ezen , bai-ta Gentilac, edo Jaincoa ezagutzen etzuen , gendeacere cebiltzan alcarren leian , nondie Jesus icusico zuen , eta nola haren itzac enzungo cituen. Escriba, ta Fariseoac ciran, Jesus beguitan arturic ceuqueenac ; Eta heren becatuac gatic eguiten cizten atelecac , ecin eraman cituenac. Escribac ciran Juduen Maisu Eracusleac ; ta hoen jaquinea , ta gaiztaqueria aguertzen cien guciai Jesu-Christoc. Fariseoac ciran, Jaincoaren legueá , heren ustez , inñore baño , obeto gordetzen zuen guizon bazuac ; baña gueienac ciran , irudipenezco lan onacquin mundu gucia engañaturic ceuqueen , buru-arro ondasun-zaleac. Sacerdoteac ere , ta Errico Cargudunac

dunac ecin ecusi zuen Jesus ; Cerren ala-
 deaurretic ; etorquizun gucia cequienac
 bezala , esaten cien , dembora guichiren
 buruan , deseguiñac , eta galduac izan-
 go cirala Jerusalengo Erria , ta ango Tem-
 ploa , edo Eleiza. Desagun beingoan :
 Judatar aragui-corrac , Jesus ain pobre,
 beharsu , mansó , ta humil ecusi ta,
 ecin sinistu zuen , edo etzuen sinistu nai,
 citequeala Mesias , edo Jaincoac gucien
 oneraco Mundura bialdu zuan guizona.
 Etzuen aditu nai Jesusen doctriña , ta
 hau enzutean , suac artzen cituan , ce-
 ren eracusten cien , ecertan ez iduquit-
 zeco oraingo vicitzaco aberastasun , atse-
 guin , ta ondasunac ; eta esaten cien,
 jarraitu nai cionac , haren ondoren,
 gurutzea soñean ceramala , ibilli beharçò
 zuala , ta alde-batera utzi beharçò citua-
 la munduco gauza guciac , bai-ta bere
 burua ere ; edo eguin beharçò etzuala,
 gogo gaiztoac escatzen cion gauzaric. Et-
 zegozcan , bide gabeco hitz lotsa garri as-
 co esan ciozqueen Jesu Christori bere et-
 saiac ; eta azquenic ill eracitzeco asmoa
 artu zuen. Orretaraco valiatu ciran, Judas

Iscariote ceritzan ; Jesu-Christo beraren
discipulo batez ; ta onec eman cien, Jau-
na erai saltzeco , ta aen escuetara era-
mateco hitza , baldin saltze onen alde
eman nai-baiciozqueen , amabost ezcutu
valio zuen , oguei ta amar diru cillarrezco.

Galdeac, eta Erantzuc.

G. Ascoc jarraitu eioen Jesu-Christori?

E. Guclac , eta alde gucietatic cerraiz-
can leiaea , hura ecusteagatic , ta ha-
ren esanae enzteagatic.

G. Etsairic izandu ba-zuan?

E. Judu aragui-cor guclac ciran haren
etsaiac.

G. Cergatic bada oec becaitzen ciran
argana?

E. Ceren eracusten cien , izan citecela
pobre behartsu humillac.

G. Cein izan du ciran Jesu-Christo-ren
etsairic andienac?

E. Escribac , fariseoac , eta Errico
aguintari , ta Cargu-dunac.

G. Cein ciran Escribac?

E. Guizon aditu jaquintsu , legitea era-
custen zuenac,

- G. Cein ciran Fariseoac ?
 E. Besteac baño , obeto leguea gordet-
 zen züela , cioen , guizonac.
 G. Eta ongui vici ciran ?
 E. Campotic , ta ciruditenez bai , baña
 barrendic , eta izatez ez.
 G. Noraño igozan , Jesu Christori bere
 etsaiac cioen , gorrotoa , ta
 gaitzerizcoa ?
 E. Hura iltzeco , asmoa artzeraño.
 G. Norc eman cien , Jesus saltzeco , ta
 aen escuetara eramateco , itza ?
 E. Judas Iscariote ceritzan , amabi
 Apostoluetatic batec.
 G. Cembatean saldu züan ?
 E. Cillarezco oguei ta amar dirutan.

XXI IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN PASIOA.

CEmbilzan cembilzan , gueroenean ere
 Escriba , Fariseo , ta gañeraco Jesus-
 en etsaiac Pazcò demboran eldu ciran,
 Jesus preso aréraztera , ta lembait len
 illa-

- G. Cein ciran Fariseoac ?
 E. Besteac baño , obeto leguea gordet-
 zen züela , cioen , guizonac.
 G. Eta ongui vici ciran ?
 E. Campotic , ta ciruditenez bai , baña
 barrendic , eta izatez ez.
 G. Noraño igozan , Jesu Christori bere
 etsaiac cioen , gorrotoa , ta
 gaitzerizcoa ?
 E. Hura iltzeco , asmoa artzeraño.
 G. Norc eman cien , Jesus saltzeco , ta
 aen escuetara eramateco , itza ?
 E. Judas Iscariote ceritzan , amabi
 Apostoluetatic batec.
 G. Cembatean saldu züan ?
 E. Cillarezco oguei ta amar dirutan.

XXI IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN PASIOA.

CEmbilzan cembilzan , gueroenean ere
 Escriba , Fariseo , ta gañeraco Jesus-
 en etsaiac Pazcò demboran eldu ciran,
 Jesus preso aréraztera , ta lembait len
 illa-

illarañtera. Pazcò vespera zan , ostegun batean joan zan , bere discipulu , edo icasleacquin batean afaltzera. Afaltzen ceudela , artu zuan bere escuetan ogui bat , bedecatu zuan oguia , puscatu zuan , ta eman cion bacoitzari bere zatia , edo ogui-pusca , esaten ciela : *Arezazue, jan ezazue ; hau dà , zuecatit saldua izangodan , nere gorputza.* Guerò Caliz , edo ed-onci batean artu zuan ardoa , bedecatu zuan , ta eman cien , esaten ciela : *edazue gucioc : hau da nere odolà , Testamentu berricò Odola , zuecatit isuria izango dana , eguizue hau , nizaz oroitzen ceratela.* Irten zan guerò afalteguitic, baita Jerusalengo erritic ere , ta joan-zan bere Apostoluacquin , Gersamani, ceritzan , lecu batean arquitzen zan, Hortu, edo baratz batera. An escatucion bere Aitari , al-ba-zan , quen ciozala Pasiocò Caliz latz , edo edari miña ; ta eman ciozala beste bideren bat , munducò gaizto-en zorrac ateratzeco ; baña ala bear bada , esancion bere Aitari , *eguin bedi zue nai dezuna.* Bitartean bildu cituan Judas traidoreac Soldaduac , eta beste

gui-

guizon armadun aseó, ta orieo Jesus
 preso artu, ta loturic eramanzuen, bein,
Anas eritzan, Eliz-guizon andiaren eche-
 ra, ta guero urte hartaco Apaiz-Nagusi
 Caifas-enera. Oneco, eta onen echean
 batu ciran, beraren lagunac, lecuo,
 edo testigu guezurfac billatu, ta esan-
 zuen, ill-gaia zala Jesu Christo, *reus*
est mortis, eta quenda behar eitzaiola
 vicia. Apostoluac, Jesus etsaich artean
 utzi, ta guciac ies eguin zuen, ta San
 Pedroc ere iru bider ueatu zuan, esaten-
 zuala, etzuala ezagutzen guizon hurá.
 Caifas-en echeic eramán zuen Jesus, Er-
 romatarrae Judeacò Provinciaren Aguin-
 tari ifini zuen, Pilatosen echera. Pilato-
 sec ezaguturic, Jesus zala guizon on
 culpa gabecoa, ascò bide hartu cituan,
 hurá bere etsaich arzaparotatic ateratzeco,
 baña alferrie guciac. Pilatos-en echean
 eramán cituan azoteac, gute Jauna, eta
 aranzacò coroa gogot bat ifini cioen be-
 re buruan, istaz ta burlaz, bere burua
 Juduen Erregue eguin zualaco, bañza-
 quiarequin.

Galdeac, ta Erantzuar.

G. Cér demboratan ill-zàn Jesus?

E. Pazcoetan.

G. Cér eguin cien bere Apostoluak,
aequin eguin zuan, azqüeneco afatian?

E. Bere gorputza, ta araguaia eman cizten.

G. Nòla eman cien bere gorputza?

E. Artu zuan escuetan oguia, bedei-
catu zuan, ta eman cien, ciola: *Hau
dà nere Gorputza.*

G. Nòla eman cien bere odolà?

E. Artu zuan Caliza ardoarequin, ta
esan cien: *Hau dà nere odolà, odol
in Testamentu berritò.*

G. Cér eguin zuan Jesusec afal-ondoan?

E. Oliba-mendira joan zan, Jaincoari;
oracio-eguitera, edo otoiz eguitera.

G. Cér eguin zuan Judas-ec horduan?

E. Gende armadunez lagunduric etor-
ri zan, Jesus, cegoan, toquian
preso artzera.

G. Nòta eramán zuen Jesus?

E. Calfas Apaiz Nausiaren echera.

G. Cér eguin zuen horduan Apostoluac?

E.

- E. Heren Jauna bere etsaien artean utzi,
ta guciac igues eguin züen.
- G. Cer eguin züan San Pedro?
- E. Ifu bider ucatu züan Jesus, ta esan-
züan, etzuala ezagutzen guizon hura.
- G. Nora eramán züen Caifasen echetic?
- E. Pilatos - enera.
- G. Cer eguin zán an Jesu Christorequin?
- E. Azotatu, ta aranzaz coroatu.

XXII. IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN ERIOTZA.

GUeroanean Pilatosec, gogaituric,
damuturic, ta gogoaren contra
bá-zan ere, eman zuan, Jesu Christo
gurutzean iltzeco sententia: ta eramán-
araci züan, gurutzea bizcarrean züala,
Golgotha edo *Calbaria* ceritzan, toqui
batera. An gurutzean iltzez josi zuen la-
pur biren artean. Gurutzeco eriotza zán
dembor-artan, iñori eman cequiqueon,
castiguric lotsagarriena, ta treshondra-
garriena, esclavo edo besteren-pecoai
baicic, ematen etzirtzaiena; ezta edo-
ceñ

- E. Heren Jauna bere etsaien artean utzi,
ta guciac igues eguin züen.
- G. Cer eguin züan San Pedroc?
- E. Ifu bider ucatu züan Jesus, ta esan-
züan, etzuala ezagutzen guizon hura.
- G. Nora eramán züen Caifasen echetic?
- E. Pilatos - enera.
- G. Cer eguin zán an Jesu Christorequin?
- E. Azotatu, ta aranzaz coroatu.

XXII. IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN ERIOTZA.

GUeroanean Pilatosc, gogaituric,
damuturic, ta gogoaren contra
bá-zan ere, eman zuan, Jesu Christo
gurutzean iltzeco sentencía : ta eramán-
araci züan, gurutzea bizcarrean züala,
Golgotha edo *Calbarioa* ceritzan, toqui
batera. An gurutzean iltzez josi zuen la-
pur biren artean. Gurutzeco eriotza zán
dembor-artan, iñori eman cequiqueon,
castiguric lotsagarriena, ta treshondra-
garriena, esclavo edo besteren-pecoai
baicic, ematen etzirtzaiena ; ezta edo-
ceñ

ceñ gaiztaqueri gaitic eré , baicic andienac gatic. Egonduzàn Jesu-Christo gurutzean , Profetac lenago esanitaco , guetia eguin arteraño : illundu zàn Eguzquia haren iltzeco demboran , icaratu zàn lurra , zabaldu ciran obiac edo sepulturac , vitzuciran aetan ceutzan illac. Hau gucia guertatu zàn , Pazco-eguna zàn , osirial barean , Israèldarrac , Jesu-Christoren aintzura , ta imagina zàn , vildotsa iltzen , eta sacrificatzen züen , egunean. Era onetan gure Jesusen eriotza izanduzàn , Aita eternoari eguin citzaion , escañi , present , ta eguiazeo Sacrificioa ; ta onen anz irudi , edo imaginac baicic etziran lenagoeo Sacrificio guciac. Eriotz hau izandu zàn , Jaincoaren Justiciari munduco becatu guciac gatic eman behar citzaion , ordaña. Jesu Christoc obenic edo culparic batere gabe pagatuzüan becatari culpahunen zorra : atercituan bere odolarequin demonioaren azpitic ; eta bere eriotzarequin idiquicien , Ceruan beti vicitzera joateco , videa.

Galdeac, ta Erantzuc.

G. Nola ill zàn Jesu Christo?

E. Gurutze batean ilcez josirie, lapur biren erdian.

G. Nolaco castigua zàn inori gurutzean invidia, quentzea?

E. Izan-al-eitequcan treshondra-garriena, ta lotsa garriena.

G. Cereguin zàn, Jesus ill-zanean?

E. Illundu zàn Eguzquia, icaratu zàn lurra, ta viztu, edo erresucitacuciran illac.

G. Cergatic Jesu-Christo ill-zàn, Pazco-bildotsa iltzen zàn, egunez?

E. Ceren bildots hau zàn haren irudi-anza, eta eracus-gartia.

G. Nolatan Jesusen eriotza izandu zàn Sacrificioa?

E. Ceren bera bacarric ascó zàn, gugana aserre cegoan Jaincoa palacatzeco, ta munduco becatu guaien zorra ateratzeco.

G. Certaco ciràn bada gañeraco, edo lenagoco Sacrificioac?

E.

E. Ciran , Jesu - Christoc bere Aitari eguin behar cion , sacrificioa adiraz-teco , edo ciran Sacrificio onen iru-di-anzac.

G. Cergatic esaten dà , Jesusec crosi guinduala , edo erredimitu guinduala bere Odolarequin ?

E. Ceren ascatu , ta atera guinduan demonioaren mendetic.

G. Eta cergatic esaten dà , deseguin zuala, ta galdu zuala erioa ?

E. Ceren bere eriotzarequin idiqui cigun betico vicitzaraco bidea.

XXIII. IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN PIZTEA , EDO
Erresurreccioa.

JESU Christo ill-ezquero , Josec , ta Nicodemus-ec eretsizuen gurutzetic haren gorputza , ta aroma , edo uquendu usai-gozo-dún batequin ganzutu , ta ifini zuen obi , edo sepultura batean. Baciequin horduco Escriba , ta Fariseoac , nola Jesusec esanie ceucan , viz-tu-

E. Ciran , Jesu - Christoc bere Aitari eguin behar cion , sacrificioa adiraz-teco , edo ciran Sacrificio onen iru-di-anzac.

G. Cergatic esaten dà , Jesusec crosi guinduala , edo erredimitu guinduala bere Odolarequin ?

E. Ceren ascatu , ta atera guinduan demonioaren mendetic.

G. Eta cergatic esaten dà , deseguin zuala, ta galdu zuala erioa ?

E. Ceren bere eriotzarequin idiqui cigun betico vicitzaraco bidea.

XXIII. IRACURTZA.

JESU CHRISTOREN PIZTEA , EDO
Erresurreccioa.

JESU Christo ill-ezquero , Josec , ta Nicodemus-ec eretsizuen gurutzetic haren gorputza , ta aroma , edo uquendu usai-gozo-dún batequin ganzutu , ta ifini zuen obi , edo sepultura batean. Baciequin horduco Escriba , ta Fariseoac , nola Jesusec esanie ceucan , viz-tu-

tucózala , ta viciric illen artetic jéqui-
 co zala ; ta haren discipuluac , obitic
 gorputza ostu , ta eramán cezaelaco bil-
 durrez , ifini cituen , obia zaitzeco , gu-
 ardac. Baña Jesu - Christo igande ba-
 rean , ill zanetic , irugarren egunean je-
 qui zán viciric illen artetic , ta obi-zaiac
 guelditu ciran erdi-illac , edo illen eran.
 Nequez sinistu zuen Apostoluac Jesus
 piztu zanic ; bada erzuen sinistu , Jesus
 bera eren beguiz ecusi , escuz uquitu,
 ta erequin mai batean jaten ecusi artera-
 ño. Cerura igo baño , lenago ascotan
 aguertu citzaien berroguéi egunetan , ta
 bitarte onetan eracutsi cizten gauz-jaquin
 behar ascó , ta aguindu cien , cijoacela
 Munduco bazter guciétara , gendeai
 Evangelioa eraeustera , edo Ceruetaco
 Erreinuaren berri oná ematera , ta guciac
 Aitaren , ta Semearen , ta Espiritu San-
 tuaren icenean bataiatzera. Onéz gañera
 eman cien , becatuac barcatzeco , escua
 îndarra , ta podorea : eta aguindu cien,
 aequin egongo zala Munduaren azquene-
 raño. Alá ere , aec beguira cegozcála,
 igozan Ceruetara ; ta àn dagò , criaturá
 gu-

guciac baño gorago , Aita Jainco guciz altsuaren , edo guciz poderosoaren escuián ; baña beti diardu , bere irabaci edo merecimenduac gu gatic Jaincoari aguertzen , ta bere Eleizari laguntzen , illac eta viciac juzgatzera , Cerutic ber- ritz datorren arteraño.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Jesu - Christo ill ezquero , cèr eguin zan haren gorputzaz ?

E. Obi , edo sepultura batean ezarria izandu zan.

G. Cer eguin züen horduan haren etsaiae ?

E. Obi-zaiac , edo Guardac ifini cioz- queen.

G. Cein egunetan Jesus piztu zan ?

E. Igande batean , ill zanetic irugarren egunean.

G. Bereala sinistu züen Apostoluac , piz- tu zala Jesus ?

E. Ez ain laster ; etzuen sinistu , ecu- si , ta gucia uqitu arteraño.

G. Cembat demboran egondu zan haen artean , noizean bein aguertuaz ?

E.

- E. Berroguei egunetan.
- G. Cèr aguindu cien?
- E. Cijoazela , Mundu gucian predicat-
zera , ta bataiatzera.
- G. Ta bataioa aguintzean , cèr era-
cutsi cigun?
- E. Jaincoa dàla Aità , dàla Semca , ta
dàla Espiritu Santua.
- G. Cer escù indar , edo podore eman-
cien Apostoluai?
- E. Becatuac barcatzeco indarra , ta
podorea.
- G. Nola utzi cituán?
- E. Aec cecus-cela , igo zan Ceruetara.
- G. Cerura joan zan , egun hura ezque-
ro , cèr egoera dú an , edo no-
la dago?
- E. Dàgo , Criatura guciac baño , gora-
go , eseriric Jaincoaren escuico aldean.
- G. Nola izan-al-diteque hori , baldin
esan-ba-cien Apostoluai , aequin egon-
go zala , munduac cirauen arteraño?
- E. Alasse dago , badà beti Cerutic
laguntzendio bere Eleizari.
- G. Nola laguntzen dio?
- E. Bere irabaciac gure osasúnaraco ta
one-

oneraco Jaincoari escañilaz.

G. Ez dà gueiago biurtuco lurrerà ?

E. Bai : etorrìco da, viciai, ta illai contuae artzera Munduarē azqueneco egunean.

XXIV. IRACURTZA.

*ESPIRITU-SANTUAREN ETOR-
era Apostoluen gain.*

PAzcoatic berroguei, ta amar egunen buruan eguin oi zuen Judatarrac, *Pentecostes* ceritzan, pestà andi bat, Jaincoac bere legue santua eracutsi cien, egunaz oroitzeco, edo acordatzeco. Onelacó egun batean, Jesu Christo piztu zanetic berroguei, ta amat-garrenan, Discipuluac toqui batean alcarrequin ceudela, enzun zàn bat-batean, Cerutic bëra baletor bezala, eche gucia betè zuan aice indartsuarena bezalaco ots andi bat; ta ùne artan aguertuciran, suezcoac cirudien, mi batzucc, ta jarri ciran Apostoluen gainean. Horduan guciac bete ciran Espiritu Santuz, ta asi ciran hitz eguiten hitzcunz-era ascoz. Onela hitz eguiteac adirazten zuan, Mun-

oneraco Jaincoari escañilaz.

G. Ez dà gueiago biurtuco lurrerà ?

E. Bai : etorrìco da, viciai, ta illai contuae artzera Munduarē azqueneco egunean.

XXIV. IRACURTZA.

*ESPIRITU-SANTUAREN ETOR-
era Apostoluen gain.*

PAzcoatic berroguei, ta amar egunen buruan eguin oi zuen Judatarrac, *Pentecostes* ceritzan, pestà andi bat, Jaincoac bere legue santua eracutsi cien, egunaz oroitzeco, edo acordatzeco. Onelacó egun batean, Jesu Christo piztu zanetic berroguei, ta amat-garrenan, Discipuluac toqui batean alcarrequin ceudela, enzun zàn bat-batean, Cerutic bëra baletor bezala, eche gucia betè zuan aice indartsuarena bezalaco ots andi bat; ta ùne artan aguertuciran, suezcoac cirudien, mi batzucc, ta jarri ciran Apostoluen gainean. Horduan guciac bete ciran Espiritu Santuz, ta asi ciran hitz eguiten hitzcunz-era ascoz. Onela hitz eguiteac adirazten zuan, Mun-

ducò guizon-emacume guciai eracutsi
 behar ciela Apostoluac Jesu-Christoren
 Eyangelioa , edo arc esan cituán , ta
 eguia cituán , gauzen berria. Chit icara-
 tu ciran Judatarrae , eta San Pedroa,
 Apostolu gucien buru eguinic , adiraci
 cien , cer zán , beguien aurrean ceu-
 queen , miraria , eracusten ciela , onen
 gañean Profetae alde-aurretie esanic ceu-
 que-ena , ta piztu zala , haec gurutz-
 iltzatu zuen Jesu Christo , arc bidaldu-
 ciela Espiritu Santua , lenagotie aguin-
 du cien bezala ; hura zala Jauna , ta
 Mesias , edo Jaincoaren seme guizon
 eguiña , ta inor Cerura ecin citequeala,
 ezpazan haren icen Santuan , ta bere
 becatuen Penitencia eguiñaz. San Pedro-
 ren hitzqueta , edo Sermoi hau enzun-
 zuenetatic , iru milla-taraño ondu ciran,
 ta bataiatu ciran. Apostoluac , ta Espiri-
 tu Santua artu zuen , gañeraco guciae
 guelditu ciran guciz biotz-aldatuac , len
 ciran ez-bezalacoac , ta bestelacoac , eta
 Escritura Sagraduan ezarririe dauden
 gauzac aditzeco , Ceruracó arguiz argui-
 tuac, Ezagutu zuen , guizon-emacume

guciac becatariac dirala , Jaincoren la-
guntza ta graciaren beharra duela , ta
ez dala graci hau iristen , Jesu-Christo-
gan sinistu ta baicic. Dembora berean
guelditu ciran Jaincoaren amoriozco suz
iracequiac : su ohec eman cien , Jaincoa-
ren mandamentuac gordetzeco , poz-at-
seguin gozo bat ; ta eguia mundu guci-
an aguertzeco , indar andi garai-ecin bat.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Ceri deitzen cioèn *Pentecostes* Ju-
datarrac ?

E. Jaincoac leguea eman cien , eguncan
eguiten zuen Pestati.

G. Egun onetan cer guertatu citzaien
Apostoluai ?

E. Espiritu Santuz bereac izatea.

G. Eta cer eguin cien Espiritu Santuac ?

E. Arguitu cituan aen adimenduac , ta
adiraci cizten , Escritura Sagraduan
dauden , eguiac.

G. Eta cer gueiago ?

E. Eman cien Jaincoaren amorioa , edo
Jaincoari ongui nai izate andi bat.

G. Eta cer eguin zuen Apostoluac , Es-

- piritu Santua artu zuen, une artan?
- E. Hitzcuntzera ascotan hitz eguitea.
- G. Ta onelacò hitzquetac cèr esan nai zuā?
- E. Mundu gucian predicatu beharco-
zuela Evangelioa.
- G. Cèr esan zuān horduan San Pedro?
- E. Gende guciaren aurrean esan zuan
Jesu Christo zala Mesias, edo Aita
Jaincoac Mundura bidaldu zuan seme
Jaincoa; ta onèc bidaldu ciela Es-
piritu Santua.
- G. Cèmbat Jaincoagana eracarrà cituan
lenvicico Sermoi onequin?
- E. Iru milla.
- G. Cergatic Espiritu Santua bidaldua izan-
zàn, Pentecostes ceritzan, egunèan?
- E. Legue berria aguertzeagatic edo pu-
blicarzeagatic, legue zarra aguerta-
zan, egun berean.

XXV. IRACURTZA.

[GENTILEN, EDO LEGUE-GABECO
Gendeen Deia.

A Scò izandu ciran, Apostoluac era-
cutsi ta Jesus-ganatu ciran, Juda-
tar-

- piritu Santua artu zuen, une artan?
- E. Hitzcuntzera ascotan hitz eguitea.
- G. Ta onelacò hitzquetac cèr esan nai zuā?
- E. Mundu gucian predicatu beharco-
zuela Evangelioa.
- G. Cèr esan zuān horduan San Pedroc?
- E. Gende guciaren aurrean esan zuan
Jesu Christo zala Mesias, edo Aita
Jaincoac Mundura bidaldu zuan seme
Jaincoa; ta onèc bidaldu ciela Es-
piritu Santua.
- G. Cèmbat Jaincoagana eracarrì cituan
lenvicico Sermoi onequin?
- E. Iru milla.
- G. Cergatic Espiritu Santua bidaldua izan-
zàn, Pentecostes ceritzan, egunèan?
- E. Legue berria aguertzeagatic edo pu-
blicarzeagatic, legue zarra aguertu
zan, egun berean.

XXV. IRACURTZA.

[GENTILEN, EDO LEGUE-GABECO
Gendeen Deia.

A Scò izandu ciran, Apostoluac era-
cutsi ta Jesus-ganatu ciran, Juda-
tar-

rarrac ; bañā ascōz guelago , eracuste
 hurā ezertan artu etzuenac , eta Apos-
 toluac gogorqui erabilli cituenac. Eren
 setan gogorturic guelditu ciran , Judatar
 hoc il-zuen San Esteban. Santu hau zan,
 Apostoluac , Eleizaren servitzeraco or-
 dendu cituen , zazpi Diacono-etatic bat,
 eta Jesu-Christoc eracutsi zuana sinistara-
 eitzeco , eriotza eramān zhan , *Protomari-
 tir* , edo lenengo Martiria. Guerō Sama-
 rriatarrac artu zuen , ta sinistuzuen Jain-
 coaren hitza : ascō ondu ciran , ta bata-
 iatu ciran ; eta Espiritu Santua artzeco,
 Apostoluac ifini cizten escuac buruen ga-
 ñean , onela ematen zuela Confirmacio-
 co Sacramentua. Andic guerosseago etor-
 ri ciran Eleizara , ta sinistu zuen Jesu
 Christogan Gentillac edo legue bague
 vici ciran , gendeac. Oetatic lendavicioa
 izandu zan , lenagotic Jaincoa ezagutzen
 zuan , eta oracio ascō , ta limosna an-
 diac eguiten cituan , *Cornelio* Capitai Er-
 roma-tarra. Oni bidaldu cion Jaincoac
 Aingueru bat , esatera , billa cezala Pe-
 dro , argandic jaquiteco , cer leguin be-
 har zuan. Horduco Jaincoac eman cion

Pedrori eguiteco onen berría ; ta onen-
 besterequin Cornelio ren Echera joan , ta
 hitz eguiten asi zà neco , ango guciac ar-
 tu zuen Espiritu Santua , edo graci uga-
 riagoa , ta hitzcuntz ascotan hitz egui-
 reco doaia. Bertatic batai-araci cituan San
 Pedroc , eta horduan asi zan aguertzen,
 Gentilai , Jesusen Eleiz berriraco eguin
 citzaien , deiaren gauz estalia , edo
 misterioa. Dei mysteriozco hau dà Jain-
 coac bere nai-on utsez , beste gabe,
 sinismenic etzuen Gendeac Jesu-Christo-
 ren fede , sinismen , ta graciara ecartea,
 Juduac ecarri cituan bezala , eta Judú
 gogortuen lecuac sartzea. Jesu-Christoc,
 Cerura igo ezquero , amabi Apostoluaz
 gañera deitu zuan amairu-garren bat,
 Gentilai eracusteco , ta amairu-garren
 Apostolu hau dà San Paulo.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Nor izandu zàn Protomartir edo
 lenengo Martiria ?

E. San Esteban.

G. Cer dà Martiria ?

E. Lecucoa edo Testigua. **E.**

G. Ceren testiguanza edo lectucotasuna eguin zuén Martiriac?

E. Evangelioan ceuden, eguiena.

G. Nor izandu ciràn Juduen urrena Evangelio sinistuzuen lenengoac?

E. Samariatarrac.

G. Eta nòr Gentilen artetic?

E. Cornelio ceritzan Erromaco Capital bat.

G. Esazù nola izandu zan gauz hori.

E. Cornelio zan, Jaincoaren bildurru zuan, guizon bat, otoiz edo oracio ascò, ta limosna andiac eguiten cituana. Ainguerú batec esan cion, billa cezala San Pedro, edo eramantaraci cezala bere Echerà. Horducò contuan cegoan San Pedro.

G. Eta cèr guertatu zan, Cornelioren echean sartu zanean?

E. Eraeusten asi-zaneco, ala hare, nola haren ehecò guciac artu zuen Espiritu Santua.

G. Cèr egnin zuàn horduan San Pedroc?

E. Bereala batai-araei cituan.

G. Cèr gauz andi estali, edo cèr mysterio asi zan horduan aguertzen?

E.

E. Jaincoac, Jesu-Christogan sinisteco,
Gentillai eguin cien, deia.

G. Eta certan dagò mysterio hau?

E. Jaincoac Gentillai deitecan, Juda
sinisgortac utsic utzi zuen; lecuia be-
tetzeco.

G. Cerc eraguin cion Jaincoari dei hau?

E. Bere ontasun ongui-nai urricaltasun,
edo misericordiac, ez bestec.

G. Nor izandu zàn Gendeen, edo Gen-
tilen Apostolua?

E. San Paulo.

G. Noiz deitu zuàn gure Jaunac?

E. Cerura igo ezquero.

XXVI. IRACURTZA.

ELBIZ-GUITEA.

A Postoluac, Espiritu Santua artu,
ta banatu ciran Lurraren lau baz-
terretan; eta Jesu-Christoc aguindu cien
bezala; joan ciran bata batera, bestea
bestera, Munduco guciai eracustera.
Baña lenago batu ciran guciac toqui ba-
tean, ta maneatu zuen *Credoa*; edo cein
ciran

E. Jaincoac, Jesu-Christogan sinisteco,
Gentillai eguin cien, deia.

G. Eta certan dagò mysterio hau?

E. Jaincoac Gentillai deitecan, Juda
sinisgortac utsic utzi zuen; lecuia be-
tetzeco.

G. Cerc eraguin cion Jaincoari dei hau?

E. Bere ontasun ongui-nai urricaltasun,
edo misericordiac, ez bestec.

G. Nor izandu zàn Gendeen, edo Gen-
tilen Apostolua?

E. San Paulo.

G. Noiz deitu zuàn gure Jaunac?

E. Cerura igo ezquero.

XXVI. IRACURTZA.

ELBIZ-GUITEA.

A Postoluac, Espiritu Santua artu,
ta banatu ciran Lurraren lau baz-
terretan; eta Jesu-Christoc aguindu cien
bezala; joan ciran bata batera, bestea
bestera, Munduco guciai eracustera.
Baña lenago batu ciran guciac toqui ba-
tean, ta maneatu zuen *Credoa*; edo cein
ciran

tiran fede-dün eguiazcoac ezagutzeco,
 eguin zuen ezagun-vide siñu señale edo
 simboloa. *Credoan* daude laburqui bildur-
 ric , Jesu-Christoc , ta haren icenean
 Eleizac eracutsi dizquigun eguia sinitsbe-
 harrac. Ara nolacoa dan :

“ Sinisten det Aita Jaincó , guciz
 “ altsu , Ceruaren ta lurraren Criatzal-
 “ leagan : Eta haren Seme bacar Jesu-
 “ Christo gure Jaun , Espiritu - Santua-
 “ ren lanez , ta graciaz sortuagan , jaio
 “ zan Maria Virginia-gandic , padecitu
 “ zuan Poncio Pilatos-en mendean : izan
 “ zan gurutz - iltzátua , illa , ta obira-
 “ tua : jaitsi zan infernetara : ta irugar-
 “ ren egunean jequizan viciric illen ar-
 “ tetic : igo zan Ceruetara : an dago jar-
 “ riric Aita Jainco guciz altsuaren es-
 “ cuitic : andic etorrico dà viciac , eta
 “ illac juzgatzera. Sinisten det Espiritu-
 “ Santu-agan : Eleiza Santa Catholica :
 “ Santuen Comunioa : becatuen barca-
 “ cioa : araguiaren erresurrecioa : vici-
 “ tza beticoa. Alabiz.

Apostoluac , Eleizac , edo Christau-
 batzeac eguitean , utzi zuen Eleiz bacoit-
 zcan

zean Ipizticu, edo Obispo bat, ta one-
 quin batean Sacetdoteac, eta Diaco-
 noac. San Pedroc ezarri cituan, irú Elei-
 zac dirá lenenac. Oetatic bat dà Erroma,
 ta emen ifini zuan bere jarlecu, Cata-
 dera, edo silla: eta nola horduan Er-
 romá zan Munduaren buru ta aguintari,
 ala San Pedroc an ezarri ta ifini zuan
 Eleiza, da Eleiz gucien burú ta lenengo.
 San Paulo ere etorri zan Erromarà, eta
 biac eramán zuen Martirioa, Neron
 aguintari zala. Jesu-Christoc eguin zuan
 San Pedro Apostoluen burú; orregatic
 haren ondorengo Ipizticú, Aita Santua
 deritzaná, Jaincoac ala nai, ta da Ipiz-
 ticú gucien lenengoa, Jesu-Christoren
 ordeco, ta gucien Elizaren burú: agul-
 ri dana.

Galdeac, ta Erantzua.

G. Cer eguin zuén Apostoluac, Mun-
 duan banatu ciran baño, lenago?

E. Eguin zuen *Credoa*.

G. Cer dà *Credoa*?

E. Christau fede-dun eguiazcoen siñalea.

G. Esazú *Credoa*. **E.**

- E. *Sinisten det Aita Jainco &c.*
- G. Cer eguiten zuen Apostoluac, Eleizac Errietan ifintzeco?
- E. Ordentcen ta uzten zuen Erri bacoitzean Ipizticu bat Sacerdoteaquin, ta Diaconoquin.
- G. Norc eguiñac eta ifiniac dira irü Eleiz nagusienac?
- E. San Pedroc.
- G. Non ezarri zuan berè Silla, edo eser-lecua?
- E. Erroman.
- G. Cèrgatic?
- E. Ceren dembor artan Erröma zan Munduaren buru ta aguintari.
- G. Cèr degu orrequin?
- E. Aita Santu Erromacoa dala Elizaren burü aguiridana.
- G. Cèrgatic?
- E. Ceren dan San Pedroren ondorengo, eta ceren haren silla, ta jar-toqui berean eseriric dagoan.
- G. Nor dà Elizaren buru aguiri ez dána?
- E. Ceruan dagoan Jesu-Christo berà.

XXVII. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN , TA APOSTOLUEN ERACUSTEA.

JESU-Christoc eracutsi zuan , gucia hitzez eracutsi zuan , ta bat-ere esribitu gabe. Orobat eguin zuen Apostoluac lendayician ; bada heren Maisuagandic icasi cituen , eguiac berac eracutsi cizten ondorengo icasleai , hocc ere heren ondorengoai eracústeco gaiari uzten cituela. Ala Apostoluac eracutsi zuena igarozán lenengo Ipizticu-etara , hoetatic hoen ondorengoetara , ta onela gaurco egunean , eracústeco , cargua duen-étara. Eracústearen jarraio ta ondore oni latinez deritza *Traditio* ; ta cusqueraz adirazteco , esan dezaquegu , dala barac besteari , escutic escura bezala , ematea ; ta bere aurrecoac eracutsi cioen , hura bera ondorengoai eracustea. Bi alderaracoa dà beraz Jaincoaren hitza : *hitzoribitus* , ta *hitzoribitu gabea*. Jaincoaren hitz *iscribitu-gabea* dà , gure lenengo Guraso

Adani eracutsi ciona , ta Munduaren asi-
 etatic Moisesen dembor-araño iraunzua-
 na ; eta gueroz ere , escribituac ez dau-
 den , eguia batzuec gordè cituana. Hitz
 escribitua da anciñacó , ta oraingo le-
 gue bietacó liburutetan dagoana ; ta liburu
 hoef , baterá bilduric deritzte *Biblia*.
 Anciñaco Leguecò , edo Testamentu
 zarrecò liburuac dira Moises-enac , ta
 Profet-enac : oraingó Testamentu , edo
 Legue berricoac dira , Apostoluac , ta
 Evangelariac iscribitu cituenac : guciac di-
 ra sinists-beharrac , ceren Espiritu San-
 tuac aguertuac , eta eracutsiac diran.
 Orobat sinistu-behar dira , escribituac
 ez izanagatic , aurrenetic asi , ta , es-
 cutic escura bezala , Christau gucioi
 eman zaizquigun eguiac , guciz ere Elei-
 zac bere batzarre , edo Concilioetan
 erabaqui , ta eracutsi dituanac.

Galdeac , ta Erantzuae.

G. Cembat aldetaraco dà Jaincoa-
 ren hitza ?

E. Bicoa : iscribitua , ta iscribitu gabea.
 G.

G. Cer dà hitz escribitu gabea?

E. Da , Apostoluetatic Ipizticuetara , eta hoetatic gugana , escutic escura bezala , igaro , ta etorri zacuna.

G. Cer dà Escritura :

E. Legue zarrean , ta berrian escribitu ciran Liburuac , batera bilduric, dauzcan , *BIBLIA* , edo Liburu andi bat.

G. Norenac dira Legue , edó Testamentu zarrecó Liburuac :

E. Moises-enac , ta Profet-enac.

G. Moises en dembora baño lenago , nola , aztu gabe , iraun zuen , ta gorde ciran Fedeco eguiac :

E. *Tradicioz* , edo Gurásoac heren humeai , ta hocc humeai , ta ondoren goai eracutsiaz.

G. Nore escribitu cituàn Legue berrico liburuac ?

E. Apostoluac , eta Evangelariac.

G. Cergatic gáude behartuac , Escriturac diona sinistra ?

E. Ceren Espiritu Santuac eracutsia dan.

G. Eta *Tradicioa* , edo lenagocoac hitzez eracutsi ciguena sinistu behardegu?

E.

E. Orobat ; bada hau ere Espiritu Santuaren eracustetic datorquigu.

XXVIII. IRACURTZA.

*JERUSALENEN GALTZE-PENA,
ta erortea.*

EVangelioaren berria banatu , ta etziran berealacoan galdu Jerusalengo Erria , ta Judeaco Erreinua ; bada iraun zuen , legue-gabeco Gendez Christau-
Eleiz berria batu zan arteraño. Ala behar ere zan ; Ceren Israeldarren anciñacó Elizari cegocan , Legue berricó Elizaren ondó , cimendu , ta sustrai izatea. Baña gueroenean ere , Jesu-Christoc alde-aurretic esanic utzi zuan bezala , elduzan , Jerusalem galtzeco , dembora. Judatarraç asaldatu ciran Erromatarraren contra : hoc inguruan artu zuen Jerusalengo Erria : asi zan guda edo guerra cruel gogor bat ; eta sortuzan gose ain icaragarria , non Amac heren semeac jatera behartu ciran. Aldi onetan il-ciran Jerusalem milla bider milla , ta eun milla per-

E. Orobat ; bada hau ere Espiritu Santuaren eracustetic datorquigu.

XXVIII. IRACURTZA.

*JERUSALENEN GALTZE-PENA,
ta erortea.*

EVangelioaren berria banatu , ta etziran berealacoan galdu Jerusalengo Erria , ta Judeaco Erreinua ; bada iraun zuen , legue-gabeco Gendez Christau-
Eleiz berria batu zan arteraño. Ala behar ere zan ; Ceren Israeldarren anciñacó Elizari cegocan , Legue berricó Elizaren ondó , cimendu , ta sustrai izatea. Baña gueroenean ere , Jesu-Christoc alde-aurretic esanic utzi zuan bezala , elduzan , Jerusalem galtzeco , dembora. Judatarraç asaldatu ciran Erromatarraren contra : hoc inguruan artu zuen Jerusalengo Erria : asi zan guda edo guerra cruel gogor bat ; eta sortuzan gose ain icaragarria , non Amac heren semeac jatera behartu ciran. Aldi onetan il-ciran Jerusalemen milla bider milla , ta eun milla per-

persona. *Tito* ceritzan , *Vespasiano* Emperadorearen semé batec lurrera egotzi cituan eche guciac , erre raci zuan *Temploa* , edo *Eleiz nagusia*. *Onela* , ambat *Profeten* , ta *Jesu-Christo* beraren odola isuria izan zan , zori gaiztoco *Erri doacabe* hura castigatu zuan *Jaincoac*. *Jesu-Christo* *Erredentoretzat* ezagutu , ta aitortu nai izandu etzuen , *Juduae* guel ditu ciran catibu *Erromatarren* azpian ta mempean : erbestetuac eta alienatuac izan ciran heren *Errietatic* , ta banatuac *Mundu* gucian , ta arrezqueró , vicitegui jaquinic ez duela , milla , ta zazpi eun urteren buruan vici dira guciz urricari ta on-behar eguiñac. *Hordudanic* galduciran *anciñaco* legueco *Ceremonia* guciac ; bada *arteraño* *Christaumentzat* ere *cilleguiac* ciran.

Galdeac , ta *Erantzua*.

G. Cergatic *Jerusalengo* *Erriac* , *Evangelioa* *Munduan* barreatu edo publicatu , ta ere , noiz bait iraun-zuan erorigabe ?

E.

E. Legue-gabeco Gende en Eleiz berria Judatarren Eleiz zarraren sustrai ta cimenduaren gañean ipintzeagatic.

G. Norc lurrera , egorzi zuan Jerusalem?

E. Tiro ceritzan , Vespasiano Emperadorearen seme batec.

G. Gende ascó ill zan horduan?

E. Milla bider milla , ta cun milla persona.

G. Andia izandu zan gosea?

E. Ain andia , non emacumeren batzuec jan cituen heren humeac.

G. Cergatic Jaincoac ain gogorquirò castigatu zuan Erri hura?

E. Ceren Jesu-Christori eriotza eman cion.

G. Cer eguin citzaien guero Juduai?

E. Guelditu ciran besteren mémpeco, ta mundu gucian banatuac.

G. Eta guero?

E. Orobat arquitzen dira orandic ére.

G. Cembat démborá da?

E. Milla , ta zazpi-eun urte baño gueiago.

XXIX IRACURTZA.

ELEIZAC BERE ETSAIEN ALDE TIC

*ecusi zuan neque , jarraio gaizto,
edo persecucioa*

A Postolu guciac , aen icasle , edo
Discipulu guciac , lenengo Aita
Santuac , eta lenengo Ipizticu edo Obis-
poac , guciac eramau zuen Martirioa , ta
eman zuen heren vicia , Jesu-Christo-
ren Evangelioac ciona , eguia zala,
Mundu guciari siniste-racitzeagatic. Jesu-
Christo Cerura igo ezquero , irur-eun
urtean Christau-Eleizac ecusi zuan gait-
zic , eta nequeric asco bere etsaiac-gan-
dic ; ta ecin-contatu-al-adiña izan ciran,
horduan Jesu-Christogatic vicia eman
zuen guizon-ematic , ta zar-gazteac.
Christauac etzioen iñori gaitzic eguiten,
onic asco baicic : Ala ere mundu gu-
ciac beguitan artuac ceuzcan ; ceren
eramau ecin cituen , guezurrezco Ja-
incoai eguiten citzaizten , agurrac , ta
gáñeraco aen arteco gaiztaqueri itsusi
naz-

nazca-garriac. Ascotan Emperadoreac , eta Cargudunac artu zuen , guciac beingoan gáltzeco , asmaoa. Botatzen cituen erriñic urrutira , quentzen cizten heren ondasunac , sartzen cituen carçeletan , ta iltcen cituen. Baña Christauac etciran batere bildurtzen : orregatic etsaiac aec castigazeco , cebiltzan asmatzen castiguriç gogor-enac : urratzen cizten gorputzeco aragui guciac burnizcô azcazalaquin , ta ortzaquin : erretzen cituen surtan : sartzen cituen olio iraqiñean , ta berun urtuan : botatzen cituen , artzac , eta leoiac ceuden , tóquira , oec heren atzaparraquin puscatu , ta jan citzeen : larririquitzen cituen , ta ateratzen cizten sabélac : cerratzen cituen batzuec , ta eguiten cituen erdi bi : besteai ebaquitzen cizten oñac , eta escuac : ateratzen cizten beguiac , ortzac , ta azcazalac. Onelaco nequeac ceramazquienac , ta eramaten , ilceraño irauten zuenac , deitzen ciran *Martiriac*. Alacoac izan ciran San Lorenzo , San Vicente , San Sebastian , Santa Ines , Santa Apolonia , ta beste onelaco ecin contactu-al adiña. Santu oen obi , edo sepul-

ruren ondoan batu oiciran Christauae,
Jaincoa alabatzera, ta Santu berac Jain-
coarequico bitarteco artzera,

Galdeac, eta Erantzuae.

G. Nola ill ciran Apostoluac?

E. Guaiac eraman zuen Martirioa : bai
ta Apostoluen lenengo icasle edo
Discipuluac ere.

G. Cembat demboran iraun zuan ; Chris-
tauac etsaien aldetic ecusi zuen, ne-
que, edo persecucioac?

E. Irureun urte.

G. Cer gaiztaqueri eguin zuen bada Chris-
tauac, etsaiac ain gaizqui aec eta-
biltzeco?

E. Bat-ere ; airtiti eguiten zuen, eguin
al ongui gucia.

G. Cergatic bada beguitan arturic ceuz-
queen?

E. Ceren, Gentilac, guezurrezco Jain-
coai eguiten cizten, agurrac, buru-be-
rac, eta gaiztaqui ac eramaten etzitzen.

G. Eta Gentilac aei cer eguiten cien?

E. Quentzen cizten haciendac, ta ill-
crazten cituen, G.

- G.** Eta aspertzen ciran onembesterequin?
- E.** Ez baldin bere : ceren Christauac etzeuqueen ecertan eriotza ; ta orregatic , aec castigatzeco , asmatzen cituen bestelacó castigú , ta nequepénac.
- G.** Cer neque , edo cer castigu zán bada, Christauai ematen citzaiena ?
- E.** Zabaltzen cituen erre-burni , edo parrilla gorituen gañean , ta erretzen cituen , jateco araguaia erretzen dan bezala ; urratzen cizten gorputzeco araguiac burnizco atzazalaquin , ta ateratzen cizten , cupida gabe , ortzac , ta azcazalac.
- G.** Christauac nolá hondratzen cituen Martiri Santuac ?
- E.** Batzen ciran aen obien ondoan , Jaincoa alabatzeco , ta oracio-guiteco.

XXX. IRACURTZA.

ELEIZACO BAQUEA , TA MONGEEN *asitzea.*

CEmbat gueiago ciran , Jesu-Christoren fedegatic , Martirioco eriotza ceramaen , Christauac , ambat gueia-

- G.** Eta aspertzen ciran onembesterequin?
- E.** Ez baldin bere : ceren Christauac etzeuqueen ecertan eriotza ; ta orregatic , aec castigatzeco , asmatzen cituen bestelacó castigú , ta nequepénac.
- G.** Cer neque , edo cer castigu zán bada, Christauai ematen citzaiena ?
- E.** Zabaltzen cituen erre-burni , edo parrilla gorituen gañean , ta erretzen cituen , jateco araguaia erretzen dan bezala ; urratzen cizten gorputzeco araguiac burnizco atzazalaquin , ta aterratzen cizten , cupida gabe , ortzac , ta azcazalac.
- G.** Christauac nolá hondratzen cituen Martiri Santuac ?
- E.** Batzen ciran aen obien ondoan , Jaincoa alabatzeco , ta oracio-guiteco.

XXX. IRACURTZA.

ELEIZACO BAQUEA , TA MONGEEN *asitzea.*

CEmbat gueiago ciran , Jesu-Christoren fedegatic , Martirioco eriotza ceramaen , Christauac , ambat gueia-

go ciran , berriró Christautzen ciranae.
 Orregatic bein-ere gogoratu etzitzaieñ,
 heren buruac gordetzeco gaitzguilleai era-
 sotzea , cilleguizanic. Azquenic , nequez-
 co irureun urteren buruan , Jaincoac be-
 re Eleizari eman cion baquea , Constan-
 tino Emperadorea Christau eguinzanean.
 Horduan asi ciran Christauac , nai beza-
 la , ta libertade osoarequin Jaincoa ser-
 vitzatzen ; baña dembora berean chris-
 tauric gueienetan epeldu zan, Jesu-Chris-
 tori jarraitzeco , gogoa. Aseóc cioen au-
 requin , Christauac cirala ; baña etzeuz-
 queen , viotzeraño sarturic , Jesu-Chris-
 toc eracutsi cituan , eguiac ; etzituen ala-
 baña gogotic utzi lurrecò aberastasunac,
 ta atseguintasunac , ez-eta artu Ceruraco
 ustea ta esperanza. Orregatic , Evange-
 lioac ciona , obequi gorde nai zuenac , ir-
 ten ciran gend-artetic , ta sartu ciran men-
 di eremú basoetan. Onelacoac deitzen ci-
 ran Mongeac , edo *Bacartarrae* , ta òne-
 nac ciran , San Antonio andiac eracutsi,
 ta Igiton vici ciranae. Pobre behartsuac
 bezala , vici ciran , ur ta ogui barau ci-
 rala , doi-doi artzen zuela , viciarenzat
 be-

behar zuena , ta esculanetan ari cirala : al-
 carri hirtz eguin gabe , guciencan isilic oi
 ceuden : lo guichi eguiten zuen : maiz
 ciarden oracioguiten , ta Escritura San-
 tua gogoan erabilten. Viciera hau zabal-
 du zan guerò Christau-Errietan , San Be-
 nitoc orretaràco eracutsi zuan , Erregue-
 la gordetzen zala , guciz ere Eguzquiz
 ononzeco alde oetan.

Galdeac , ta Erantzunac.

- G.** Nequezco , edo persecucioco dem-
 boran ascò guichitu ciran Christauac ?
- E.** Ez , baicic gueiagotu : cembat gue-
 iago iltzen ciran , ambat gueiago ce-
 tozen Jesu-Christoren sinismen , ta
 leguerà.
- G.** Ta heren buruac gordetzeco , ta ne-
 queetatic ateràrzeco , erasotzen cien-
 etsai neque-emallei ?
- E.** Jaincoac debeatutic dauca , Princi-
 pe , edo Buru aguintari nagusien con-
 tra asaldatzea , nàiz dala edocin
 aitzquirequin.

G. Nor izandu zàn , Christau eguin zàn
lènengo Emperadorea?

E. Constantino.

G. Nola guelditu ciran horduan Chris-
tauen gauzac?

E. Ascoz obeto ; bada Jaincoaren ser-
vitzoraco , bazuen , nai adiña escu,
ta libertadè.

G. Noiz epeltzen , ta galtzen asi zàn
Christauen Jaincoaganaco gogoa , ta
zor zaion ongui naia ?

E. Dembor artan bertan , etsai gabe,
ta neque gabe vici ciranean.

G. Cer eguin zuen , besteac baño Chris-
tau obcagoac izan nai zuenac ?

E. Gaiztoac-gandic aldeguin , ta baz-
tertu , ta bacartasunean vici.

G. Nola cerizten onelacoai ?

E. Mongeac edo *Bacartarrac*.

G. Nola vici ciran ?

E. Ascó barautuaz , beharra eguiñaz,
ta beti oracio-guiten.





CHRISTAU - DOTRIÑAREN
bigarren parte , edo
zatia.

I. IRACURTZA.

FEDEA , ESPERANZA , TA
Caridadea.

CHRISTAU dotriñac , edo
Christauari eracusten zaionac
ditu lau zati edo partè ; eta
dira *Credoa* , edo *sinisten*
det Jainco &c : Aita gurea :
Jaincoaren leguecò Manda-
mentuac , ta *Elizacò Sacramentuac*. Cre-
doan arquitzen da, fedearquin sinistu be-
har deguna : *Aita gurean* , esperanzare-
quin escatu behar deguna : *Mandamentuac*
era-

eracusten digue , Jaincoaren amoreaga-
 tie eguin behar deguna : eta *Sacramen-
 tuetan* , oec ematen diguen gracia. Onela
Erligioa deritzan virtutea , edo Jaincoa
 hondratzeco ta servitzatzeco , eguin be-
 har dan , gucia dago bilduric fedean , es-
 peranzan , ta caridadean. Ecin irichi-dit-
 zaquegu gueren indarracquin virtute oec :
 Jaincoac eman beharco dizquigu bere on-
 tasun , ta urricaltasun , edo misericor-
 diatic. Fedearquin sinisten ditugu,
 Jaincoac bere Elizari , edo Adanegan-
 dic asi , ta oraindañoco fededun gucien
 batze edo batzàrreari aguertu diona : bai-
 taere anciñacó Patriarcac , Profetac , ta
 Apostoluac eracusten diguen gucia , ta
 ori gucia eguia dala , Jaincoac bere mi-
 lagroaquin adiraci duana , naiz dala iscri-
 bitua , naiz hitzeribitugabea. Jaincoac
 gauza guciac ecusten ditu , diran bezala,
 ta ecin dezaque , ezdan , gauzaric. Ecin
 engaña diteque , ta ecin engaña gaitza-
 que : ta orregaric firmequirò , ta du-
 daric batere gabe, sinisten degu esan duan
 gucia , gueienean ongui aditu ecin ba-
 degu ere. Esperanzarequin ichedetén di-
 tugu,

tugu , iríchico ditugulaco uste guciarequin , Jaincoac aguindu dizquigun onguiac , orain emen beraren graci santua, ta guerò Ceruan beticò vicitza. Caridadearequin Jaincoa maite degu , ta onesten degu , bèste gauz guciac baño guciago ; ta beragatic lagun urcoari nai diogugueren buruai bezala. Caridade edo maintanza dà , fedea , ta esperanza baño virtutè andiagoa ta ederragoa , ta aec gabe Ceruan beti gurequin iraungo duana.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cembat gauzatará dator Christaudoctriñ gucia?

E. Lautará.

G. Cein dirà oriec?

E. *Credoa , Aita gurea , Jaincoaren Le-guecò Mandamentuac , ta Elizaco Sacramentuac.*

G. Cembat virtutetan dagó *Erligioa* edo Christauaren Jainco-arequico eguin vide , ta eguiteco gucia?

E. Irutan.

G. Cein dirà?

E.

- E. Fedea , Esperanza , ta Caridadea.
- G. Ta irichi ote ditzaquegu guereñez , ta ñore eman gabe , virtute oec ?
- E. Ñola ere : gure indarraz goragocoac dira , eta Jaincoac doarie emán beharcó dizquigu.
- G. Cer eguiten du gugan fedea ?
- E. Sinisteracitzen digu firmequí , Jaincoac bere Eleizari aguertu dion , gucia.
- G. Nondic edo nola daquigu , Jaincoac guizonai hitz eguin diela ?
- E. Berac eguin dituan mirari miraculu , ta gauz arrigarrien bitartez.
- G. Eta cergatic ain firmequí sinisten degu , esan digun , gucia ?
- E. Ceren Jaincoa ecin engaña ditequean , ta ecin engaña gaitzaquean.
- G. Cer eguiten du Esperanzac ?
- E. Icheden Jaincoagan , berac esquendizquigun ónac , ongúiac , ta ondasunac.
- G. Cer dirá ondasun oec ?
- E. Vicitz onetan gracia , ta bestean gloria.
- G. Cer dà Caridadea ?
- E. Jaincoari , ta lagun urcoari zaien , amore , ongui-nai , ta maitanza.
- G. Iru virtute oetatic cein da andiena ?
- E. Caridadea. II.

II. IRACURTZA.

TRINIDADEA, EDO IRUTASUN
Santua.

CRedoa, edo Christau-siñalea dà *sinisten det Aita Jainco &c.* (lenago fol. 105. ezarria dagoan bezala.) Sinisten degu ba-dala Jainco eguiazco bacar bat, gauza gucien Jaun Soberano ecin gueiagoo, dan gucia eguin duana, gucia zaitzen duana, gucia gobernatzen duana, guciz ona, ta Santua, nai duan gucia daguiqueana, beti zana, gauz dāna, era beti irauteco dagoana. Da bere Criatura gucien Aitā, bada berac eguiñac dirā guciac, ta irauten duen artean, dirauē, ceren Aita onac bezala dauzcan bere escuz. Bañā gauzari dāgocan bezala hitz eguiten degula, da bacarric bere seme bacarraren Aita. Semē hau da, Aitac bere barrumbean, Criatura guciac bañō, lenago sortu zuan *Verboa*, edo Hitza, ta *Jaquiundeā*; eta onēn bitartez Aitac eguin zuan, eguindan,

dan , gucia. Berdin-berdiña da Aitare-
 quin Semea. Aitac ezagutzendu bere bu-
 rrua , ezagutu ditequean adiña , ta duan
 ezagun-garri-tasunari dagocan bezala, ones-
 ten , ta amatzen du bere Semea , onec
 ere bai bere Aita : eta bien alcarrequico
 amore onén bitartez dator Aitagandic , ta
 Semeagandic , batarequin , ta bestear-
 quin berdin dan , Espiritu Santua. One-
 la Jaincoagan dira Aita bat , Seme bat,
 eta Espiritu Santu bat. Iru oetatic bata
 iñola ez da bestea ; ta iru oetatic bacoiz-
 rza , beste biac bezala , da Jaincoa ; ce-
 ren Aita-tasuna , Semeta-suna , ta Es-
 piritu-Santu-tasuna gauza banà , edó be-
 reciac izanagatic ; Jaincotasun bat baicic
 ez da Irutasun, edó Trinitade hau gucia.
 Eta ecin izanditeque Jainco bazar bat bai-
 cic ; bada bi balira , ecin luque batac,
 besteac duana , ta ez lizaque Jaincoa,
 dan bezala , oso-beté Soberano ecin go-
 ragocoa , ecin gueiagocoa , ecin ederragocoa,
 ecin obeagocoa , utsic ta gaberac ez duana.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Esazu Credoac.

E. Sinisten det &c.

G. Cer dà Jaincoa ?

E. Da gauza gucien Jaun gorena , Soberranoa , ta nagusia.

G. Cergatic deitzen diozù guciz altsua , edo guciz poderosoa ?

E. Ceren gucia eguin duan , ta nai duan gucia daguquean.

G. Cergatic deitzen diozú Aita ?

E. Ceren berac eguin guinduan , zaitzen-gaituan , escutic bezala gauzcan , ta bere humeai bezala beguiratzen digun.

G. Cein dà Jaincoaren Seme eguiazcoa , eta egoquia ?

E. Da beraren Hitz andia , beraren Jaquinduria , berac beregan sortua.

G. Jaincoaren seme hau berdin dà bere Aitarequin ?

E. Bai ; Aita bezain andia , ta ederra da , ta aita adiñacoa.

G. Aita Jaincoac amatzen ta onesten dú bere Semea ?

E.

- E. Bai , eta Seme Jaincoac ere maitè du bere Aita.
- G. Nola deritza Aitareñ , ta Semearen amore oni ?
- E. Deritza , ta dá Espiritu Santua.
- G. Norgandic dator hau ?
- E. Batagandic , ta bestegandic , Aitagandic eta Semeagandic.
- G. Ta Espiritu Santua Aitarequin ta Semearequin berdin dà ?
- E. Bai : irurac dira berdin-berdiñac.
- G. Iruretatic bata badà bestea ?
- E. Ez : irurac dira bana.
- G. Bacoitza dà Jaincoa ?
- E. Bai : iruretatic bacoitza Jaincoa da.
- G. Ta orregatic irurac ote dira iru Jainco ?
- E. Iñola ere : Aita , Semea , ta Espiritu Santua , irurac dira Jainco bera bacar bat.
- G. Izan diteque Jainco bat baño guciago ?
- E. Orissé da , iñola ecin datequean, gauza bat.

III. IRACURTZA.

JAINCOAREN SEMEAREN ARAGUTT-
zea edo Encarnacioa , ta gure Erospena
edo Erredencioa.

JAincoaren Seme bacarra dà Jesu-Christo , gure Jauna : esan naidu, beti danic , eta eternidade gucian Jaincoagan cegoan , Hitz andi edo Verboá eguin zala aragui , ta vicitu zala gurequin. Jaincozco Hitz andi hau beti zan Jaincoa , eta Jainco izatea utzi gabe, ceritzan demboraz eguin zan guizon , beregana artzen cituala , ta berequin batutzen cituala , gureac bezalaco gorputz bat , eta anima bat. Alaz-guci-arren cre Jaincozco Hitz araguitu hau , edo (oro bat dana) Jesu-Christo Jainco eguiazcoa , ta guizon eguiazcoa Persona baeat bat da. *Espiritu Santuaren graciaz ta vertutez sortu zan , jaio zan Maria Virginia gandic.* Jaiotze hau izandu zan nornai ar-ritu cezaqueana , ta zana milagroa beteá : orregatic Jesusen Ama , Jesus jaio bañq

lenago , jaïotzean , ta jaïo ezquero , eta beti-beti izandu zan Virgina garbia. Jesus, Ama Virginaren Sabelean vicitzen asi zanic utzi zuan bere Aita eternoac Espiritu Santuz , graciaz , berezco Santutasunez , doaiez , ta vertutez , ecin gueiagoraño betea , ta dan becuric chiquienaraco gairic bateré gabe. Gugatic , gure oneraco , gure erremediaco , gure animen osasunaraco , gu Cerurátzeco , ta àn gloriaz ta atsedent-contentuz betetzeco, eguin zan guizon Jaincoaren seme Jaincoa. Chedè onegatic beragatic *padecitu zuan Poncio Pilatosen mendean : izan zan gurutz-iltzatna , illa , ta obiratua.* Ain andia zan , cigun , amorioa , non povic , ta nai oso batequin eman cituan bere odola ta vicia , gure Erospen-agatic , gu erredimitzeagatic , ta demonioaren catibutasunetic aterátzeagatic.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cein dá Jesu-Christo gure Jauna?

E. Dà Hitz edo Verbo araguitua.

G. Cer gauza dá Hitz araguitu hau?

E.

- E. Da Jaincoaren Semea.
- G. Cer esan naidu , araguitu zala , edo aragui eguin zala esateac?
- E. Esan nai du eguin zala guizon.
- G. Eta orregatic Jaincoaren Semea aldaturu zan , edo len zanetic besteric eguin-ba-zan?
- E. Ez : guizon eguin zan baño lenago, zan hurà bera , ta len bezala Jainco guelditu zan.
- G. Baditu gorputz-animac , guè ditugun bezala?
- E. Bai : ceren dan guizon oso , utsic gabecoà , ta guiza-tasunari dagozcan, gauza guciac dituana.
- G. Guizona dan ambatean , noren semea da?
- E. Santa Maria Virginarena.
- G. Tá Jainco denez noren Semea da?
- E. Bacarric Jaincoarena , ta ez besterena.
- G. Persona bi dira , bada , Jaincoaren Semea , ta Mariaren Semea?
- E. Ez , baicic , Jesu-Christo bacar bat.
- G. Cergatic esaten dà , Espiritu Santuaren obraz , vertutez , ta graciaz concebitua , ta sortua izan zala Jesu-Christo?

E. Ori esaten dà guri eracusteagatic, miraculuz, eta guizonec orretan eguitoric etzuala, sortuzala Virgina baten erraietan, ta jaio zala guero, haren Virgintasunari calteric batere eguin gabe.

G. Eta cer gueiago onetan esan nai izandu zan?

E. Jesus, Ama Virginaren Sabelean vicitzen asi zan, lenengo une doi-doi, edo puntu artan zala Santua berez bere izatez, ta jatorriz, becaturaco gairic batere gabe.

G. Norgatic, edo certaco Jaincoaren Semca guizon eguin zan?

E. Gugatic, ta gure onagatic, gure animen osasunaraco, ta gu Cerura eramateco.

G. Certaco izandu ciran haren Pasioa, ta Eriotza?

E. Gu erosteco, ta demonioaren catibutasunetic ateratzeco,

IV. IRACURTZA.

JESU-CHRISTOREN INFERNUETARA
jesteá , haren piztea , ta Cerura
igotzea.

JESU-Christo ill , ta haren gorputza, gurutzetic eretsia , ta obì edo Sepultura batean ezarria izandu zan , ta Anima jetsi zan Inférnuetara : esan naidu, jetsi zala , Munduaren asieratic horduraño izan ciran , Santuac ceuden , lürpeco atsedem toqui batera. Jaincoaren Semeac atera cituan andic , an ceuden , Santuac, ta eramam cituan berequin Cerura , hara igo zanean. Haren Animac eriotzan aldeguin zuan bere gorputzagandic ; baña Jainco-tasuna , batagandic , ta bestea-gandic quendu gabe , beti guelditu zan biaquin batua. Jaincoaren Semea zan , obì edo Sepulturam egon zana ; ta hura berà Inférnuetara jetsi zana. *Iru garren* egunean viztu zan , Escriturac esan zuen bezala, edo jequi zan viciric illen artetic ; bada Davidec , eta beste Profetac alde-aurre-
 tic

tic esanic ceuqueen , guero Jesu-Christo-
 requin guertatu zan , gucia. *Igo zan Ce-
 ruetara : an dago jarriric Aita Jainco gu-
 ciz Aldunaren escuitic.* Dio , *dagoala jar-
 riric* , guri adirazteco , guciz bere erara
 dagoala atseguin-contentu , ta atsedete
 oso bete batequin ; eta Aingueruen , ta
 guizonen Erregue eguiazco , eta Juecic
 gorëna danac bezala , baduala , Ceruan,
 ta lurrean naiduan gucia eguiteco , aha-
 la escua ta podorea. Jaincoaren *Escuitic*
 aditzera ematen digu Jesu-Christoren di-
 ñatasun ta anditasun ecin goragocoa ; eta
 guizona dan ambatean ere , Criaturá gu-
 ciac baño , goragocoa dala.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Jesu-Christo ill , ta nora joan zan
 haren Anima guciz Santua ?

E. Inférnuetara jetsi zan.

G. Cer diozu ? Becatu mortalean illzen
 diranac , eren neque-pen-tormentuac
 daramazquien , lürpeco su-leicera ?

E. Ez , baicic , Jaincoaren grácian ill ci-
 ranac ceuden , atsedenteguirá.

G.

- G. Cer bada, arteraño etzan iñor Ceruan?
- E. Ez, Mundua eguin zan ezqueroztic, ill ciran justuen Animac, Jesu-Christo etorri cedin, ceuden beguira, harc Cerura eramateco.
- G. Jesu-Christoren gorputza obian berecia, edo quendua cegoan haren Jaincotasunagandic?
- E. Ez, obian ere zan, ta beti izanduzan Jaincoaren Semearen gorputza.
- G. Cergatic esaten dà, Jesu-Christoc padeccitu zuala, ta viztu zala Escrituren arauan, edo Escriturac cioen bezala?
- E. Ceren arequin eguin zan, gucia Profetac lenagotic esana utzi zuen.
- G. Nola dago Jesu-Christo Ceruan?
- E. Jaincó guciz Aldunaren escuian eseriric.
- G. Cer bada, Jaincoac ba-du escuico, edo ezquerreco escuric?
- E. Ez, baña ala esan oida, Jesu Christoren diñatasun andia guri cracusteagatic.
- G. Cergatic esaten dà, eserita dagoala?
- E. Naiduan bezala atsedeten dagoala, adiracitzegatic.

- G. Eta cergatic gueiago?
 E. Jueza dala , era Erreguea dala , adite
 zera emategatic.

V. IRACURTZA.

'AZQUEN-JUICIOA.

JESU-Christo Ceruan atsedeten bada-
 dago ere , ez dà orregatic bein ere
 guzaz äztutzen , beti gäuzca bere gogo-
 an , beti ari dà gure aldera , era harc
 eguin cituan irabaciagatic , artzen ditu-
 gu , Jaincoac eguiten dizquigun , gra-
 ciac , favoreac , mesedeac , ta ontarte
 guciac. Bera dà , bere Aita gugatic er-
 regutzen duan , Apaiz nausia , arequin
 gure bitartecoa , eta beinere guelditu
 gabe , bein gurutzearen gañean eguin
 cion , Sacrificio edo doai-escania , beti
 aguertzen diona. Beguira dagocu Cerutic,
 eta zaitzen ta gobernatzen du bere Elei-
 za , Artzai , Eracusle , eta beste Eleiz-
 guizonen bitartez , oei bere graciarequin
 laguntzen diela. *Andic etorricò dà , viciac
 eta illac juzgatzera.* Noizbait bucatu-be-
 harra

- G. Eta cergatic gueiago?
 E. Jueza dala , era Erreguea dala , adite
 zera emategatic.

V. IRACURTZA.

'AZQUEN-JUICIOA.

JESU-Christo Ceruan atsedeten bada-
 dago ere , ez dà orregatic bein ere
 guzaz äztutzen , beti gäuzca bere gogo-
 an , beti ari dà gure aldera , era harc
 eguin cituan irabaciac gatic , artzen ditu-
 gu , Jaincoac eguiten dizquigun , grä-
 ciac , favoreac , mesedeac , ta ontarte
 guciac. Bera dà , bere Aita gugatic er-
 regutzen duan , Apaiz nausia , arequin
 gure bitartecoa , eta beinere guelditu
 gabe , bein gurutzearen gañean eguin
 cion , Sacrificio edo doai-escania , beti
 aguertzen diona. Beguira dagocu Cerutic,
 eta zaitzen ta gobernatzen du bere Elei-
 za , Artzai , Eracusle , eta beste Eleiz-
 guizonen bitartez , oei bere graciarequin
 laguntzen diela. *Andic etorricò dà , viciac
 eta illac juzgatzera.* Noizbait bucatu-be-
 harra

harra dà , aguerrian dagoan , Mundu hau ; eta horduan suac erreco du , aguiridan , *gucia*. Eguzquiac , eta Illarguiac galduco due eren arguia , Izarrac erorico dira Cerutic , emengo gauz guciac irabiatuco dira , ta ibillico dira , batzuec gorá , besteac berá , batac alde bàtera , besteac bèstera , joco due Aingueruac Trompetaren soñua , alde gucietatic baturacico ditue illac , vitzuco dira oec , ta irtengó dirá obietatic. Horduan jetsico dà Cerutic Jesu-Christo odeien gañean , ahal podorè , ta Sober-andiz beteric. Onac ifiniracico ditu bere escuico aldean , ta gaiztoac ezquerrecoan. Nori berea emateco , gucial artuco dizte eren vicitzaco contuac. Onac eramango ditu Cerura , ta gaiztoac ondatuco ditu Infernucó su-leicean. Ez daqui ifiorc , Juicio , edo contu-artze hau noiz izango dan ; baña gauza jaquiña dà , izaten danean , icararicara utzico duala Mundu *gucia*.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. JESU-Christoc , Ceruan dagoala,
contú eguiten dio bere Eleizari?

E. Bai , andic ere zaitzen ta gobernaten du , bere Arzai , Mez-emalle, edo Sacerdoteen bitartez.

G. Ta Jesu-Christo berà Sacerdotea da?

E. Bai : da gugatic beti bere Aitari esque ta esque dagocan , Apaiz edo Sacerdote nausia.

G. Ta orretaraco cer Sacrificio esqueintzen dio bere Aitari , edó cer present eguiten dio ?

E. Gurutzearen gañean eguin cion , hurà berà.

G. Biurtuco dà berriz lurrera ?

E. Bai : Munduac bucatu beharduan, azquenecó egunean etorríco dà, viciac eta illac juzgatzera.

G. Cer eguingo dà azquenecò egun artan?

E. Lurraren gañean aguirí dan , gucia erreco da.

G. Eta cer guertatuco dà Ceruan ?

E. Izarrac eroríco dirá , Eguzquia , ta
Illar-

Illarguia illunduco dira.

G. Eta cer eguingo due Aingueruac ?

E. Trompetaren soñuarequin batuco-
ditue guizon-emasume guciac.

G. Nolacoa etorrico dà Jesu-Christo ?

E. Odei baten gañean aguertuco da , po-
dorez Magestadez ta Soberandiz betea.

G. Nola juzgatuco gaitu ?

E. Bacoitzari dagocan bezala : ongui vi-
ci ba-guera , Cerura eramango gai-
tu ; eta gaizqui vici bá-guera , Infer-
nura egotzico gaitu.

G. Noiz izango dà Juicio hau ?

E. Inore ez daqui.

VI. IRACURTZA.

ESPIRITU SANTUA.

ESpíritu Santua da amorioa Caridadea,
edo maitanzà ; eta Caridade hau
da Jainco bera : esan naidu , Aita eter-
noac , ta bere Semèac alcar amatzen-
duela , alcar maite duela , ta alcarrequi-
cò amorio onetatic datorrela , biac beza-
la , Jainco dan , eta biaquin berdin dan ,

Es-

Illarguia illunduco dira.

G. Eta cer eguingo due Aingueruac ?

E. Trompetaren soñuarequin batuco-
ditue guizon-emasume guciac.

G. Nolacoa etorrico dà Jesu-Christo ?

E. Odei baten gañean aguertuco da , po-
dorez Magestadez ta Soberandiz betea.

G. Nola juzgatuco gaitu ?

E. Bacoitzari dagocan bezala : ongui vi-
ci ba-guera , Cerura eramango gai-
tu ; eta gaizqui vici bá-guera , Infer-
nura egotzico gaitu.

G. Noiz izango dà Juicio hau ?

E. Inore ez daqui.

VI. IRACURTZA.

ESPIRITU SANTUA.

ESpíritu Santua da amorioa Caridadea,
edo maitanzà ; eta Caridade hau
da Jainco bera : esan naidu , Aita eter-
noac , ta bere Semèac alcar amatzen-
duela , alcar maite duela , ta alcarrequi-
cò amorio onetatic datorrela , biac beza-
la , Jainco dan , eta biaquin berdin dan ,

Es-

Espiritu Santua. Dà , biac bézala , Jainco ta Jaun , edo biac diran , Jainco be-
 ra , irúrac Personá banà ba-dira ere. Or-
 regatic , Aitari , ta Semeari eguiten-
 zaizten , ohore ta agur guciac zor zaizca
 orobat Espiritu Santuari , eta alà ema-
 ten diozcagu , esaten degunean : *Gloria*
Aitari , ta Semeari , ta Espiritu Santuari ,
asieran zan bezala , orain , ta beti , ta
mendeen mendetan. Amen. Biz alà. Espi-
 ritu hau da , Profeten , Evangelarien,
 eta gañeraco Jainco-agandic icasi zuenea
 ezpañez hitz eguin zuan , Jaincozco Es-
 piritua. Deritza *Espiritu Santua* , ceren
 ematen digun , jatorrizco vicitzaz gorago
 dan , gure espirituaren edo animaren vi-
 citza , Santu-tasuna , eta Jaincoaren go-
 goco ta adisquide eguiten gaituan , gra-
 cia. Espiritu Santuaren emaitz edo doai
 hau dà , Jaincoac gure viòtzetara isurí
 duan , bere amorioa ; eta amorio onec
 ar-eracitzen digu pocic eta gustoz , gueren
 vorondatea Jaincoaren vorondatearequin
 bat eguiteco , ta are naiduana nai-izateco,
 gogoà ta asmoa : eta asmo onequin , gu-
 re vorondatea utzi , ta Jaincoac nai dua-

ña artzen deguncan, horduan eguiten ditugu, Cerua irabazteco diña diran, obra ónac. Guc guerenz ecin deguque atsequin-gustoric, gure gorputzari, ta aragui gaiztoari dagozcan gauzetan baicic: orregatic bada ecin daguiquegu gauzonic, Jaincoac Espiritu Santuaren doai, ta graciarequin laguntzen ez digula.

Galdeac, ta Erantzua.

- G.** Cer dà Espiritu Santua?
E. Jaincozco amorioa dan, Jaincò bera,
G. Norgandic dator?
E. Aita-gandic, ta Semea-gandic.
G. Dà biauquin berdin?
E. Bai: aec bezala dà Jaincoa, ta Jauna.
G. Nola agur-eguiten diogu Aitarequin, ta Semearequin batean?
E. Esanaz: *Gloria Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari &c.*
G. Cergatic deitzen diogu Espiritu Santua?
E. Ceren berà dan, gure ispirituaren vicitza dan, gracia, ta Santu-tasuna, edo Jaincoarequico ónac, ta Santu-
 tuaç

- tuac eguiten gaituan , gracia.
- G. Cer gauza dà Espiritu Santuaren doai hau ?
- E. Dà Jaincoaren amorio , beraren graziaz ta doaric artzen deguna.
- G. Cer eguiten dú guban , edo cer atzeratzen dù gugandic amorio onec ?
- E. Eraguiten digu gustoz pocic ta gogotic , Jaincoac nai duana.
- G. Eta gusto atseguin poz hau dà etorquia , edo , bestec eman gabe , guerez deguna ?
- E. Inola ere : Jaincoac eman behar-co digu.
- G. Cerèn atseguin-gustoa degu bada guerez ?
- E. Gure vorondateac , ta gorputzac escatzen diguna eguiteco gustoa.
- G. Nola bada eguin alditzaquegu , Cerua irabazteco lanac , ta eguitecoac ?
- E. Jaincoaren graciarequin , ta Espiritu Santuaren doaiarequin.

VII. IRACURTA.

ELEIZARENA.

ELeiza dà Fededun , edo Sinisle gu-
 cien batzarrea ta batasuna ; edo dà
 Jainco eguiazcoa , beraren Legue egui-
 azcoac eracusten duan bezala , servit-
 zutzen duen , Fededunen bilguma junta,
 edo Congregacioa. Eleiza da *bat* , *San-
 tua* , *Catholicoa* , *Apostolicoa*. Dà asco al-
 cargana buru baten azpian ongui ta behar-
 dan bezala batutzea , ta dá azquenic , Je-
 suChristo buru duan , gorputz bat. Ecin
 beraz Eleiza egonditeque zatitua pusca-
 tua edo erdiratua. Orain diogun , Eleiz
 hau ezda arrizco Eleiza , baicic Jaincoa-
 ren sinismena duenez eguitendana. Here-
 geac dira , Eleizac sinisten duanaz , bes-
 te gauzaric eracusten duenac. Cismaticoac
 dira , Erromaco Aita Santua Eleizaren
 burua dala ucatzen duenac , edo aparte-
 co Eleiz bat asmatzen ta eguiten duenac.
 Eleiza dà ona ta *Santua* , ceren eracus-
 ten duan , gucia dan ona , ta *Santua* , ce-
 ren

ren Eleizaco Sacramentuac diran santuac, ceren Jesu-Christo beraren burua dan guciz ona, guciz santua, ta santutasun guciaren iturtia; eta ceren Eleizan biltzen diran, fededunac santuac diran, guciac ez-pa-dira ere. Orain Eleizan onac eta gaiztoac alcarrequin nastuac vici dira; baña azquen-juicioco egunean alcargandic berecico dira, eta onac alde batera, ta gaiztoac béstera ifiniac izango dira. Eleiza dà *Catholicoa*, edo gucieracoa, ceren dan dembora gucietacoa, toqui gucietacoa, guciaquicoa, ta gucienzat. Orain dan, Eleiz bera zan lenengo guraso Adanen, Noeren, Abrahamen, eta Moises-enerañoco Patriarquén demboran ere, ta Eleiz onec beronec iraungo du Munduaren azquenerañoc. Moisesen ondoren izan ciran, haren anai Aaronen odoletic cetocen Apaiz nausiac, eta oec bucatu, ta Jesu-Christo. Guerò Jesu-Christoren ordeco guelditu zan San Pedro, ta oni jarraitu cioen oraındañoco Erromaco Aita Santuac. Eleiza luzatzen, ta zabaltzen dà Munduaren lecu gucietaña, ta gucietan aitortzen du fede ber-

ber-berã , ta ditu Sacramentu bêrac, Ez dà Santuric , Eleiz Ama Santuaren batasunean baicic , ta Eleizatic campoan vici diranentzat ez dago Ceruric. Azque-
nic Eleiza deitzen dà *Apostolica* , ceren eracusten duan , Apostoluac eracutsi zuen, hura bera ; eta ceren oraindaño izan di-
tugun Apostoluen ondorengo Arzai era-
tusleac , batez ere Eleiz gucien Burua
dàn , Erromaco Eleizan.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cer gauza dà Eleiza ?

E. Da buru baten azpian vici diran , si-
nistè , edo fede-dunen batasuna ta
bilcuia.

G. Cein dira Sinislè fede-dunac ?

E. Erligio , edo Legue eguiazcoari dar-
raizcanac.

G. Ta cein dà eguiazco Leguea ?

E. Jaincó berac eracutsi diguna.

G. Nondic edo nola ezaguteco degu,
Eleiz eguiazcoa otè dan , edo ez ?

E. Orretaraco ba-dira lau sifnu , señale,
edo ezagun-bide ; eta dira Eleiza bat ,

- Santua*, *Catholicoa*, ta *Apostolicoa* Iza-
tea. Lau sînu oriee dituan, Eleiza
edo Fededunen batzca dà bada egui-
azco Eleiza.
- G. Eleiza nola dà bat?
- E. Ceren Buru bacar baten azpian ba-
tua dagoan.
- G. Cein dà Eleizaren Burua?
- E. Jesu-Christo.
- G. Eta ez dū emen aguerrian beste
buru bat?
- E. Bai : ta ori dà Erromaco Aita San-
tu, San Pedoren ondorengoa.
- G. Nor dirà Heregeac?
- E. Eleiz eguiazcoac dionaz, beste gau-
zatic eracusten duenac.
- G. Cein dirà Cismaticoac?
- E. Aparteco Eleiz bat eguin nai duenac.
- G. Eleiza nolatan dà *Santua*?
- E. Dà *Santua* eracusten duanagatic, di-
tuan Sacramentuac-gatic, eta Jesu-
Christo bere Burua-gatic.
- G. Eleiz-gorputz onen vicicai, edo
miembro guciac Santuac dira?
- E. Ez guciac : Eleiza ònaz, ta gaiztoaz
nastua dāgo, ta alà egongo ere dà
Mun-

Munduaren azqueneco eguneraño.

G. Cer esan nai du *Eleiza Catholicoac* ?

E. Eleiza gucieracoac , eta guciaquicoac
-aimbat.

G. Nola dà gucieràcoa ?

E. Ceren Mundua asi ezqueroeco dem-
-bora gucietacoa dan.

G. Leçu gucietarà luzatzen , ta zabalt-
-zen da ?

E. Bai : Eleiza bat bora dà Munduco
-tòqui ta bazter gucietan.

G. Cer adiraci nai du *Apostolicoa* izateac ?

E. Apostoluac eracutsi zuen , doctriña
-bera dancala , ta gordetzen duala
-Eleizac ere.

G. Cer gueiago adirazten du ?

E. Oraindañoeco Afezpicu , ta Eleiz-ar-
-zaiac Apostoluen ondorengoac dirala.

VIII. IRACURTZA.

SANTUEN COMUNIOA.

ORain diogun Comunioa ez dà ba-
-carric Aldareco Sacramentuaren co-
-munioa , ezpada Eleizac Animenzat di-
-tuan , ondasunac Eliz barrumbean vici-

Munduaren azqueneco eguneraño.

G. Cer esan nai du *Eleiza Catholicoac* ?

E. Eleiza gucieracoac , eta guciaquicoac
-imbat.

G. Nola dà gucieràcoa ?

E. Ceren Mundua asi ezqueroeco dem-
bora gucietacoa dan.

G. Leçu gucietarà luzatzen , ta zabalt-
-zen da ?

E. Bai : Eleiza bat bora dà Munduco
tòqui ta bazter gucietan.

G. Cer adiraci nai du *Apostolicoa* izateac ?

E. Apostoluac eracutsi zuen , doctriña
bera dancala , ta gordetzen duala
Eleizac ere.

G. Cer gueiago adirazten du ?

E. Oraindañoeco Afezpiau , ta Eleiz-ar-
zaiac Apostoluen ondorengoac dirala.

VIII. IRACURTZA.

SANTUEN COMUNIOA.

ORain diogun Comunioa ez dà ba-
carric Aldareco Sacramentuaren co-
munioa , ezpada Eleizac Animenzat di-
tuan , ondasunac Eliz barrumbean vici-

diran fede-dun gucienzat izatea. Eleizan
vici diran fededunac, batzuec dira bate-
raco, besteac besteraco, batzuec era-
custeco, besteac icasteco, batzuec aguin-
tzeco, besteac, aguintzen zaiena, egui-
teco; baña oec gucioc, alcargana fedez
ta Caridadez baturic ez due eguiten, edo
ez dira Eliz bazar bat baicic. Guizonac
ditu ecusteco beguiac, enzuteco belar-
riac, hitz eguiteco mihia, uquitzeco es-
cuac, ibiltzeco oñac; ta orregatic ere
oez guciaz ez-da eguiten, gorputz bat
baicic. Gorputzeco cenzu oec alcarrí la-
guntzen dioen bezala, laguntzen dioe al-
carrí Eleizan vici diranac ere, eta batec
eguiten dituan, obra onac gucienac di-
ra, Jaincoaren gracion ba-daude. Elei-
zatic campoan arquitzen diranac, Excu-
micatuac arquitzen diran bezala, ez due
besteen lan onetatic ateratzen, fede-ga-
beac, edo sinismenic ez duenac baño,
probechu, edo on gueiago. Escumicatu
oec dira, eguin dituen, becatu andien
penitencia eguin nai ezduenac, ta orre-
gatic Elizac berogandic quentzen, ta be-
reisten dituanac, orretaraco escua duanac
be-

bezala. Mundu onetan vici gueran bitar-
tean , guda edo guerra degu barren-
ta campoco gure etsaiaquin : orregatic,
guzaz emen eguiten dan , Elizari *deritza*
Eleiz gudarria , edo Soldadescan dabilena.
Baña Cerucoac , lenagotic etsaiac garai-
tu , ta venzutu cituelaco , orain inoren
bildur gabe , baque osoan vici dira : or-
regatic ango Elizari deritza *Eliz garailea*,
edo venzularia. Emen vici gueranoc bes-
teen obra onetan nore bere zatia ta pus-
ca degun bezala ; orobat , Cerucoac Jain-
coari eguiten diozquen esque , ta erre-
gu-etan degu probechú ta onic ascò. Pur-
gatoriocoac ere gure barau , limosna,
otoiz , neque , ta gâñeraco obra óne-
tan düe eren parteà ; bada , guc haen
alde eguiten degunarequin arintzen ta
guichitzen záizte , an daráamazquien
neque-penac,

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cer dà Santuen Comunioa?

E. Eliz-barrumbean eguiten diran , lan
ònen irabacia , Eliz berean vici-
diran gucienzat izatea,

G.

- G. Ta Elizatic campoan vici diranac ex-
 cumicatuac vici diran bezala, Elizan
 eguiten diran, obra ónetatic ateratzen
 due irabaciric, edo ondasunic?
- E. Batere, ez-ta Federic edo sinismenic
 ez duenac ere.
- G. Nondic jaiotzen dà, batec eguiten di-
 tuan, obra ónac gucien óneraco izatea?
- E. Guaiac gorputz baten miembro vici-
 cai ta puscac izatetic.
- G. Cein dirá Elizac excumicatzen dituanac?
- E. Eguin dituen, becatu andien peniten-
 cia eguin nai-ez-duenac.
- G. Santuen Comunioa luzatzen dà Ce-
 ruraño?
- E. Bai; an vici diran Zorionecoac me-
 sederic ascó eguiten digüe eren oracio
 ta esqueaquin.
- G. Comunio hau eltzen dà Purgatoriora-
 ño, edo illen animen Garbitoquirano?
- E. Bai-ta arano ere; bada gauden ro-
 quitic arin ditzaquegu, an daramaz-
 quien neque-penac.
- G. Nola?
- E. Jaincoa erregutuaz, limosnac, eta
 beste lan onac eguinaz.

IX. IRACURTZA.

BECATUBEN BARCAGIOA.

ELIZ barrumbean baicic, ez dà inon bestetan becatuen barcamenic: eta barcacio hau dà, Santuen Comunioari darraican, ondorea. Jesu-Christoren pus-cac gueralaco, arquin ongui bagaude, haren merecimendu ta irabacietatic ateratzen degu norc bere zatia ta partea. Dà Jainco guizona, ta Jainco dan ambatean, du, becatuac barcatzeco, escua ta podorea. Cerura igotzeco aurean escu hau utzi cien, berequin bere Escolan edo Icasteguiari aci cituan icaslè, edo Discipuluari, esaten ciela, *Artu zazue Espiritu Santua; nori ere barcatzen badiozcatzue becatuac, ta baii barcatuco zaizte, ta nori ere ez badiozcatzue barcatzen, ta baii ez-zaizte barcatuco.* Becatuac barcatzeco podorea Apostoluetatic igaro zan, erac ordendu cituen, Mez-emalle edo Sacerdote-etara, oetatic urrengoetara, ta orrela gu gaño. Bataioa dà lenena becatuac

tuac barcatzen dituana , naiz dala gure
 lenengo Guraso Adanegandic datorqui-
 gun , becatu originala , edo jatorrizcoa;
 naiz dirala , batec bere vorondatez eguin
 dituanac. Bataiatu ezquero eguiten diran,
 becatuac barcatzeco , bada beste erreme-
 dio bat , eta dà Penitenciaco edo Con-
 fesioco Sacramentua , becatu mortalac
 barcatzeco , nai ta naiez behardana , ta
 venial barcaquizunenzar ona dana. Becatu
 mortala , edo eriozcoa dà Jaincoaren
 gracia galercitzen duana , ta betico erioz-
 za darraicana. Onelacoac dira guizon-
 itzea , araguzco becatuac , ordiqueria,
 lapurreta , ta besteac. Becatu veniala , edo
 barca-quizuna dà Caridadea guciz itzal-
 ten ezduana , baña epelcen duana: one-
 laco dira , inoren calte gabeco , guezur
 arin bat , behardan baño gucisseago ja-
 te bat , ta beste onelacoac. Becatu chi-
 qui óen barcamena itistea errazago dà ;
 baña chiquiena ere Jaincoarequico
 gaitz andia dà.

Galdeac , ta Eranzuac.

- G.** Elizatic campoan badago becatuen barcamenic?
- E.** Ez dago : Jesu-Christoc du , becatuac barcatzeco escua ta indarra , ta ez bestec.
- G.** Nòri eman cion Jaunac escu hau?
- E.** Bere Apostoluai.
- G.** Eta Apostoluetatic nòrgana igaro zan?
- E.** Obispo engana , ta Sacerdotengana.
- G.** Cér Sacramentuz barcatzen dira becatuac?
- E.** Bataioz , ta Penitenciaz.
- G.** Cer gauza dà becatu originala , edo jatortzico becatua?
- E.** Sortzen gueranean , gueren gurasetatic datorquiguna.
- G.** Cer dà becatu personala?
- E.** Dà personari dagocana , ta guero gueren vorondatez eguiten deguna.
- G.** Cer dà becatu mortala , edo criotzemallea?
- E.** Dà , Infernuu mereci duana.
- G.** Cer dà becatu veniala , edo barcagarria?

- E. Jaincoaren gracia , ta adísquidetasuna gaciz galerazen ez duana.
- G. Nola iristen dà , batec bere naiarequin eguiten dituan , becatuen barcamena?
- E. Confesio , edo Penitenciaren bidez.
- G. Eta jatorrizco becatuarena ?
- E. Bataioaren bitartez , ta orobat bataiatzen danaren , beste becatuena.
- G. Beatu veniala dà izugarria ?
- E. Nolaere dan , bada Jaincoaren aldean becatuic chiquiena gaitz andi bat da,

X. IRACURTZA.

ERRESURREGIOA, TA BETICO vicitza.

EZ degu servizatu behar Jaincoa , orain zorionecoac izateagatic ; ezpada gueroco guretzat gorderic daucan , doctasan , ta zoriona-gatic. Orain munduco ondasan , ta atseguin-contentuac gucicnez gaiztoenzat izan oidira ; ta gauzen gabeac , nequeac , eta atsecabeac ónenzat. Ez degu beraz vici behar , orain ongui izateco ustean ; baicic Jaincoac , iltzen

- E. Jaincoaren gracia , ta adísquidetasuna gaciz galerazen ez duana.
- G. Nola iristen dà , batec bere naiarequin eguiten dituan , becatuen barcamena?
- E. Confesio , edo Penitenciaren bidez.
- G. Eta jatorrizco becatuarena ?
- E. Bataioaren bitartez , ta orobat bataiatzen danaren , beste becatuena.
- G. Beatu veniala dà izugarria ?
- E. Nolaere dan , bada Jaincoaren aldean becatuic chiquiena gaitz andi bat da,

X. IRACURTZA.

ERRESURREGIOA, TA BETICO vicitza.

EZ degu servizatu behar Jaincoa , orain zorionecoac izateagatic ; ezpada gueroco guretzat gorderic daucan , doctasan , ta zoriona-gatic. Orain munduco ondasan , ta atseguin-contentuac gucicnez gaiztoenzat izan oidira ; ta gauzen gabeac , nequeac , eta atsecabeac ónenzat. Ez degu beraz vici behar , orain ongui izateco ustean ; baicic Jaincoac , iltzen

ezen guetaneco Ceruan guretzat daucan,
 zori onaren ustean ; sinisten degu , gu
 iltzen gueranean , ez diralá ilcò gute ani-
 mac ; ta gure gorputzac ustelduco ba-
 dira ere , Jaincoac bere gucialarequin
 osatu , ta batuco dituala cren lenagoco
 animaquin , ta gorputz-animac alà ba-
 turic , beti iraungo duela inoiz alcar-
 gandic aldeguin gabe , edo Ceruan , edo
 benco su-leicean , beticò doatsu , edo
 beticò doacabe. Gorputz-animac alcarre-
 quin berrira batze oni deitzen diogu *ara-
 guiaren erresurreccioa* , edo vicitz berria.
 Munduaren azqueneco eguncan eguingo
 dà vizte berri hau ; ta horduan gucioc
 joango guera Jaincoaren aurrera , bacoit-
 zac , bere vician eguin duan , guciaren
 contua ematera , naiz dala onà , naiz
 gaiztoa : ongui eguiñaren saria izango dà
 betico vicitza , ta gaizqui eguiñarena
 betico eriotza , ta neque-pena. Jesu-
 Christoc dio , oturunz , edo jate andi
 baten anzecoa dala Ceruco vicia , guri
 adirazteagatic ango atseguntasuna : *Er-
 reinua* ere deitzen dio Ceruan vicitzeari,
 eracusteagatic ; lurrean vici diran Erre-
 gueac

gueac baño , doatsuagoac dirala , Ce-
 ruan vici diran , Santuac. Ceruari ema-
 ten zaion *Paraisuaren* icenac esan naidu,
 dala , poz-contentu atseguin-garriz bete-
 ricaco berjera edo baratz bat bezalacoa.
 Bestelacoa dà Infernua , lurraren erdi-
 erdico su-leizea. Infernua dà , argui ga-
 beco presondegui carcela, ta leice guciz
 illun bat. An erretzen dira gaiztoac cam-
 potic , ta barrendic, itzalten ez dan , ta
 secular itzalico ez dan , su batequin. An
 dira berico negarra , ortz-carrasc-otsac,
 ta concienciaren arrà , viotz-barrumbeco
 tristura , damua , urriquia , ta oroitzea,
 nola izan zuen heren buruac neque-pen-
 oetatic gordetzeco , ta beguiratzeco , es-
 cua , ta indarra ; ta ala ere , nola heren
 faltaz galku ciran , ta atsecabezco lecu
 artarà erori ciran. Hau dà , gau ta egun,
 beinere ase gabe , ta atsedeten utzi ga-
 be , utsiquitzen arizaien , ta arico ere za-
 ien arrà , probechu gabeco urriquia, dem-
 bora joanez-guerozco damua ta negarra.

Galdeac, eta Erantzua.

G. Gure Jaincoagandic ichedetengun, utsic-gabeco zori on, ta doatasun oso-betea oraingo vicirzaraco ote da?

E. Ez baldin-bere: onelaco dichà ezdà iristen, illezguero baicic.

G. Gu iltzen-gueranean, gorputzaquin batean iltzen dira gure Animac?

E. Ez: Anima ecin illcorra, edo ecin ill-ditequeana dà.

G. Beticò iltzen dira gure gorputzac?

E. Ez: azquen Juicioco eguncan berriro piztuco dira.

G. Nola eguingo dà vizte hau?

E. Ilciran, guciac biurtuco dira, lenago emen izan cituen, gorputz aec bèrac berriro artzera, ta joango dira Jaincoaren juiciora, eguin dituen, lan on, edo gaiztoen contuac ematera.

G. Contuac eman, ta certan gucl-dituco dira?

E. Onac joango dira Ceruco vicitz beticorà, ta gaiztoac beticò Infernura.

G.

- G. Cer gauza dà Ceruan beti vicitzea?
 E. An .poz-atseguin-contentuz^o beteric
 beti irautea.
 G. Cer esan nai dià Ceruetaco Erreinuac?
 E. Esan degun , ber-hau.
 G. Certan dagò Cerucoen zori on doata-
 sun ta gloria?
 E. Aurpeguiz aurpegui Jaincoa ecustean.
 G. Cer gauza dà betico eriotza?
 E. Jaincoa bein-ere icusi gabe, Infernuan
 beti surtan erretzen ta erretzen egon-
 beharra.
 G. Cer neque dirà , gaiztoac Infernuan
 daramazquien , nequeac?
 E. Dirà sua , illuntasuna, ta concienciá-
 co arrác eguiten dizten , utsiquiac.

XI. IRACURTZA.

AITA GURECO ORACIOA.

AITA gurea asitzen dan , Oracioa dá
 orain esatera noana : *Aita gurea* &c.
 (goràgo 81. orrian.) Ezdegu esaten
 Aita nerea , ezpadà Aita gureà , aditzera
 emateagatic , ez diogula Jaincoari escat-
 zen

- G. Cer gauza dà Ceruan beti vicitzea?
 E. An .poz-atseguin-contentuz^o beteric
 beti irautea.
 G. Cer esan nai dià Ceruetaco Erreinuac?
 E. Esan degun , ber-hau.
 G. Certan dagò Cerucoen zori on doata-
 sun ta gloria?
 E. Aurpeguiz aurpegui Jaincoa ecustean.
 G. Cer gauza dà betico eriotza?
 E. Jaincoa bein-ere icusi gabe, Infernuan
 beti surtan erretzen ta erretzen egon-
 beharra.
 G. Cer neque dirà , gaiztoac Infernuan
 daramazquien , nequeac?
 E. Dirà sua , illuntasuna, ta concienciá-
 co arrác eguiten dizten , utsiquiac.

XI. IRACURTZA.

AITA GURECO ORACIOA.

AITA gurea asitzen dan , Oracioa dà
 orain esatera noana : *Aita gurea* &c.
 (goràgo 81. orrian.) Ezdegu esaten
 Aita nerea , ezpadà Aita gureà , aditzera
 emateagatic , ez diogula Jaincoari escat-
 zen

zen guretzat bacarric , ezpada Eleiz gu-
 ciarentzat , ta fededun gucientzat. Aita
 gurca deitzen diogu , ceren beragandic
 degun gueren vicia , gueran gucia , ta
 degun gucia ; eta ceren , onez gañera,
 beraren gracia eguiten gaituan bere Se-
 me bacar Jesu-Christoren anaiac. Jain-
 coa lecu gucietan , ta non nai dago , or-
 regatic ere *Ceruetan zaudena* esaten dio-
 gu , ceren an aguertzen digun bere aur-
 peguia , ta ceren Ceruac diran , haren
 gloria , ta escu andi-luce gucitaracoa
 aguertzen diguenac. *Erabil bedi santuqui
 zure icena.* Criatura guciac ohoratu be-
 cee Jaincoaren icena. Becatuac dira Jain-
 coaren treshondragarriac , guciz-ere Chris-
 tauac eguiten dituenac ; bada fede-ga-
 beac , Cristauen becatuac icusi , ta us-
 te due ez dala ona , gu vici gueran , le-
 guea , eta orregatic etorri nai ezdue le-
 gue santu onetara. *Betor gugana zure
 Erreinua* : betor zure gracia , erregui-
 ña ez dezan gugan becatuac , ta betor
 guero , ill-ezgueroz uste degun , Ceruco
 gloria , ta seculaco vicitza. Jaincoaren
 vorondatea eguingo da lurrean , Ceruan
 be-

bezala , gueren vorondatea utzi , ta harenari garraizcanean , Aingueruac , ta doatsuac Ceruan darraizcan , eran , eta gaiztoa izango dà gure vorondatea , Jainco-aren-arequin bat eguiten ez danean , ta harc nai duana nai ez duanean.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Esazu *Aita gurea.*

E. *Aita gurea &c.*

G. Cergatic ez diozu *Aita nereac?*

E. Ceren nic neretzat bacarric Jaincoari escatzen ez diodan.

G. Nola dà Jaincoa gure *Aita?*

E. Ceren naizan gucia , ta dedan gucia , argandic artua dedan.

G. Tà bestela ba-cera haren *Semea?*

E. Ba-naiz haren graziaz , ta beragatic naiz Jesu-Christoren anaia.

G. Cergatic diozu Ceruetan zaudena , bestetan baño gueiago?

E. Ceren haren gloria Ceruan obetó aguertzen zacun.

G. Nola santu-guiten , edo santificatzen dà Jaincoaren icena?

E.

E. Criatutac ematen dioen ohorearequin,
edo hondrarequin.

G. Nola eguiten dà *Iurrean Jaincoaren vorondatea?*

E. Haren graciac gugan erreguñatzen,
ta aguintzen duala.

G. Ta gure vorondatea oná dà, Jainco-aren arequirequin bat eguini ez-padago?

E. Inola ere: aitzitic orrela ez dagoan-
nean, gaiztoa dà.

G. Nor dirà, Jaincoaren naimendua edo vorondatea Ceruan eguiten duenac?

E. Aingueruac, eta Cetuan vici diran zorionecoac.

XII. IRACURTZA.

ATA GUREAREN JARRAIOA.

EGUN-orocò ogulac esan naidu egu-
nean egunecò jan-edana, ta vicit-
zeco, behar dan gucia. Guizon guciac,
ala aberatsac, nola beharsuac, jaquinic
eta ezaguturic egon behar due, Jaincoa-
gandic duela jan-edana, ta duen gucia;
ta egunorò biurtu behar guera, gure

E. Criatutac ematen dioen ohorearequin,
edo hondrarequin.

G. Nola eguiten dà *Iurrean Jaincoaren vorondatea?*

E. Haren graciac gugan erreguñatzen,
ta aguintzen duala.

G. Ta gure vorondatea oná dà, Jainco-aren arequin bat eguini ez-padago?

E. Inola ere: aitzitic orrela ez dagoa-
nean, gaiztoa dà.

G. Nor dirà, Jaincoaren naimendua edo vorondatea Ceruan eguiten duenac?

E. Aingueruac, eta Cetuan vici diran zorianecoac.

XII. IRACURTZA.

ATA GUREAREN JARRAIOA.

EGUN-orocò ogulac esan naidu egu-
nean egunecò jan-edana, ta vicit-
zeco, behar dan gucia. Guizon guciac,
ala aberatsac, nola beharsuac, jaquinic
eta ezaguturic egon behar due, Jaincoa-
gandic duela jan-edana, ta duen gucias;
ta egunorò biurtu behar guera, gure

ogüia escatzera, egun gucietan alabaña asitzen ta berritzen da gure prémia beharra, ta necesidadea. Onez gañera *oguiaren* icenarequin aditzen dà gure animen jan-edana bazca, edo alimentua, eta animaren alimentua dà Jaincoaren itza, beraren gracia, ta Aldareco Sacramentu gucz Santua. Escátzen diogu Jaincoari becatuen barcamen gucia; bada gucioc guera becatariac, eta egun-orò eguiten ditugu, guichienez, gure caltean diran, becatu venial barcagarri, ta uts arñac. Aita gurca esaten deguncan, ontzat daramagu Jaincoac guri ez barcatzea, guc besteai barcatzen ez-pa-diegu. Becaturic ez eguítco, escatzen diogu Jaincoari, quenditzala gugandic, becatura garamazquien, tent-aldjac. Eta azquenic escatzen diogu, *beguira gaitzala gaitz gucitic*, bereciqui, *gaiztoa* deritzan, demoniaren crasó-aldiétatic.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Cer esan nai dù gure egun-orocò *oguiac*?

E. Vicitzeo behar ditugun, gauz guciac.

G.

- G. Eta cèrgatic deitzen diogu egun-orocoa?
- E. Ceren egun gucieran degun haren beharra.
- G. Eta cèr gueiago esan nai du?
- E. Gure espìrituaren jan-edaria bazca, edo alimentua.
- G. Cèr dà hau?
- E. Jaincoaren itza, gracia, ta Jesu-Christo gure Jaunaren gorputza.
- G. Guizon guciac eguitèn ditue becatuac?
- E. Bai: gucioc guèra Becatariac.
- G. Ta barcatu behar diegu bestei?
- E. Bai: Jaincoac guri barcatzea, nai-ba-degu.
- G. Cèrc becatu eraguiten digu?
- E. Tentamenduac.
- G. Nola garaitu, edò venzutu alde-zaquegu?
- E. Jaincoaren graciarequin.
- G. Cein dà *Aita* gurearen azquenean esaten degun, gaiztoa?
- E. Demonioa.

XIII. IRACURTA.

GANERACO OTOIZ, EDO ORACIOAC.

AITA gurcaz ateroncean, Christauac gueinean esan oi duen, oracioa dà *Credoa*; ta dà, Jaincoa, berac aguertu dizquigun, eguiac sinistuz, hondrazeco: oni darraica, *ni becataria* asitzen dan, aitormena, edo Confesioa, eta dà, gure becatuen barcamena escatzeco: eta azquenic *Agur Maria*, edo *Ave-Maria*, Ama Virginati, zor zaion, ohorea, ta hondra emateco; eta gugatic Jaincoa otoi ta erregutu dezala, escatzeco. Christau guciac jaquin behar ditue ta esan egunoro oracio hoec, goicean, ta arratsean bederic. Onez gañera, alduenean, joan behar due Elizara, an esaten diran, ta cantatzen diran, Jaincoaren gauzac enzutera. Gauz oetatic gueienac dira, zazpi horduac derizten, Daviden Salmoac, edo cantac; eta dira *Vezperac*, *Completac*, *Matutiac*, *Prima*, *Tercia*, *Sesta*, eta *Nona*, edo hordu lenengoa, irugarrena, seigarrena, ta bederatzigarrena. Alduen

duen bezala leiatu behar dira , Mez-ema-
leac , mez-ematean esaten dituan , ora-
cioac enzutera , ta aditzera : baita-ere
beste Sacramentuac ematen dituenean,
ùra bedecitzen duenean , eta gañeraco
Elizacò bedecicioac eguiten dituenean.
Ordea jaquin behar due , batec gogoa
beste gauzetan daucala , belarri utsaquin
oracioac enzutea , ta au utsarequin itz
ònac esatea ez dala Jaincoa otoiztea , ta
erregutztea , viorzac ta ispirituac lagun-
tzen ezpadio. Oracio gucien , ta Chris-
tauac sinistu behar dituan , eguia gucien
bilgun laburra dà , batec bere aurpe-
guian eguiten duan , gurutzearen siñalea.
Gurutzea gueren gañean eguitean , au-
tan artzen degu Jaincoa , diogula : *Aita-
ren , ta Semearen , ta Espiritu Santua-
ren icenean.* Onela sinisten degu , ta ai-
tortzen degu Trinitade , edo Irutasun
guciz Santua dala Jainco bacar bat , ta
iru personà banà. Escuarequin gurutzea
eguitean adirazten degu , Jesu-Christoc
eguin zuan , gure Erospenà , edo Erre-
dencioa , ta onequin batean Jaincoaren
Semearen araguitzea , edò Encarnacioa.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cein dirà , Christauac guelenean
esan oi dituen , Oracioac ?

E. *Aita gurea , Ave Maria , Credoac , ta
Confesioa , edo Ni becataria.*

G. *Esaitzu Ave Maria , ta Confesioa.*

E. 1. *Agur Maria graciaz betea , Jauna
dà zurequin.*

2. *Bedeicatua cere andreen artean , eta
bedeicatua dà zure Sabeleco Fruitua
Jesus.*

3. *Maria Santua , Jaincoaren Amà , er-
regiëxazu gu becatarioc gatic orain ta
gure eriotzaco borduan. Ala biz.*

*Ni becataria Confesatzen natzaio Jainco
Aita guci-aldunari , Maria beti Vir-
gina Doatsuari , Miguèl Arcangelu
Doatsuari , Joanes Batista Doatsuari,
Pedro ta Paulo Apostolu Santuai , San-
tu guciai , eta zuri , ene Aita , becatu
guelëgui eguin dedala gogoz , hitzez,
ta obrax : nere culpaz , nere culpaz,
nere culpa chit andiaz. Hargatic erre-
gutzen diot Maria beti Virgina Doat-*

suari , Miguèl Arcangelu Doatsuari,
 Joanes Bautista Doatsuari , Pedro ta
 Paulo Apostolu Santuai , Santu guci-
 ai , eta zuri , ene Aita , erregu dio-
 za zuen nigatic gure Jainco Jaunari.
 Biz ala.

- G. Credo esatea dà oracioa eguitea?
 E. Bai-ta haren icena santu-eguitea ere.
 G. Cer dà Aitormena , edo *Confesioa*?
 E. Gure becatuen ezagumentu humill bat.
 G. Eta cèrtaco da?
 E. Becatuen barcacioa iristeco.
 G. Certaco dà *Agur Maria*?
 E. Virgina guciz Santua hondratzeco,
 ta Jaincoarequico gure bitarteco izan
 dedin , escatzeco.
 G. Noiz esàn beharditu bacoitzac lau
 oracio oec?
 E. Egun gucietan , goizean , eta ar-
 ratsaldean.
 G. Cer dirà , Eleizan Eliz-guizónac esa-
 ten dituen oracioac?
 E. Guciz ere Daviden Cantuac , edo
 Salmoac.
 G. Noiz , edo cembat hordutan esaten
 dirà Salmo oec?

- E. Zazpi hordutan , eta ; onela bereizturic , derizte *Vesperac* , *Completac* , *Matutiac* , *Prima* , *Tercia* , *Sesta* , eta *Nona*.
- G. Oracioa , behar dan bezala eguiteco , eta Jaincoa otoizteco , ta erregutze-co , ascò dà aiiarequin itzac utsic esatea ?
- E. Ez dà asco : biotzetie , ta gogoarequin batean esan behar dira oracioac.
- G. Cein dà oracio gucien , ta Christaudoctrina guciaren bilgun laburra ?
- E. Gurutze Santuaren Sinalea.
- G. Cer esan nai due gurutze Santua eguitean , esaten ditugun , hitzac ?
- E. Sinisten degula Irutasun , edo Trinitade guciz Santua , ta deiez gagozcala.
- G. Cer esan nai dù , becoquitie bularrera , ta ezquerreco besa-burutie escuicora escua eramateac ?
- E. Jaincoaren Semearen araguitzea , ta gurutzearen bitartez eguin zan gure crospen , edo Erredencioa.

XIV. IRACURTZA.

AMAR MANDAMENTUAC.

JAincoac Isrraeldarraí , Eremutic iga-
rotzean , eman cizten , Mandamendu ,
edo aguindeac dira , esatera noan hocc :

1. *Ez dezú ihola ere* & gorago , oguei ta
sci-garren orrian datzan bezala.

¶ Euscal-Errietan cracutsi oi díra ,
esatera noan , era onctan.

„ Jaincoaren Legueco Mandamenduac
„ díra amar. *Lenengoa* dà Jaincoa gauza
„ gucien gañcan amatzea. *Bigarrena* , ha-
„ ren icen Santuaz juramentu alperric ez
„ eguitea. *Irugarrena* , Jai-egunac san-
„ tu-guitea. *Laugarrena* , Aita , ta Ama
„ ondratzea. *Bostgarrena* , ez iñor iltzea.
„ *Seigarrena* , araguizco becauric ez
„ eguitea. *Zazpigarrena* , ez ostutzea.
„ *Zortzigarrena* , falsó testimonioric ez
„ alchatzea , ta guezurric ez esatea. *Be-*
„ *deratzigarrena* , lagun urcoaren emaz-
„ tea ez deseatzea. *Amargarrena* , beste-
„ ren ondasunac ez cuticiatzea. Amar Man-
„ damendu oec sartzen díra bitan : Jain-

„ coa

»coa servitu , ta gauza gucien gañean
 »amatzean , ta zure proximoa zure bu-
 »rua bezala.

*EDO VERSUTAN , FRANCIACO
 guisan.*

1. **J**Aincò bat adoraezazu,
doaber maita osoqui.
2. Juramenturic zue ez dezu,
ez ciñic eguingo vanequi.
3. Igandeac beguira zatzu,
Jauna ere serbitza debotqui.
4. Aita eta Ama ohora zatzu,
vici zaitecen lucequi.
5. Iñor obraz ilco ez dezu,
ez vorondatez gaiztoqui.
6. Paillardiza eguingo ez dezu,
obraz ez gogoz liquisqui.
7. Besterena ostuco ez dezu,
ez guardatu injustuqui.
8. Lecucotasunic ez dezu,
ez hitza esango falsoqui.
9. Besteren esposic ez dezu
desiratuco lizunqui.
10. Guticia izango ez dezu
besteren onaren gaizqui.

BAI-TA BESTELA ERE.

ZURE leguèac hauchec dire , Si-
naico mendian berce horduz Moi-
sen emanac Arabian.

Jainco bat onets-ezac , eta adora
devotqui , eta arèn icenaz ez ci-
ñic eguin vanoqui.

Gueiago beguirazac Igandea san-
duqui.

Eta burasoac ondra , bici - adin
lucequi.

Nihor hill eztezaquela , ez biotzez
gaitzetsi , ecen vengatzen Jain-
coa ni behar nauc sinetsi.

Paillardiza igüinari eguioquec ihesa,
gutziz ere desira lagunaren Es-
posa.

Bercerén oná hain gutti beharcoduc
iduqui , guttiz hauzoaren onta-
suna ez uqui.

Fiñean mihiari emoc guardia , ez-
ten guezurti , eta aicen , falseria
irauztera , beldurti.

Hauc

Hauc bi Mandamentura biltzen ditue laburqui , ceñac gogoan harahal baitatzaquec errazqui.

Jainco bat onets-ezac gauza guciengañetic , eta Christau laguna ez heronez beheretic.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Esaitzu Jaincoaren leguecò amar Mandamenduac.

E. Lenengoa da Jaincoa gauza guciengañean amatzea & . 169. orrian dautzan becela.

XV. IRACURTZA.

LENENGO IRU MANDAMENDUAC.

Lenengo Mandamenduan aguintzen zacu , Jaincoa ohoretu , edo hondratu dezagula , gure Creatzalle eguille, ta Jaun Soberandiari bezala zor zaizcan, agurrac ta buru-beratzeac eguiten dioztagula : ta eguiteco oni deritza Jaincoa *adoratzea*. Sinismen edo fedearquin hondrat-

Hauc bi Mandamentura biltzen ditue laburqui , ceñac gogoan harahal baitatzaquec errazqui.

Jainco bat onets-ezac gauza guciengañetic , eta Christau laguna ez heronez beheretic.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Esaitzu Jaincoaren leguecò amar Mandamenduac.

E. Lenengoa da Jaincoa gauza guciengañean amatzea & . 169. orrian dautzan becela.

XV. IRACURTZA.

LENENGO IRU MANDAMENDUAC.

Lenengo Mandamenduan aguintzen zacu , Jaincoa ohoretu , edo hondratu dezagula , gure Creatzalle eguille, ta Jaun Soberandiari bezala zor zaizcan, agurrac ta buru-beratzeac eguiten dioztagula : ta eguiteco oni deritza Jaincoa *adoratzea*. Sinismen edo fedearquin hondrat-

dratzen ta adoratzen degu Jaincoa , be-
 rac Elizari eracutsiric daucana , firme-
 qui sinisten degula : Esperanzarequin ere
 ohoretzen degu Jaincoa , berac aguin-
 duric dauzcan , onguiac uste oso bate-
 quin ichodoten ditugula ; eta azquenic
 maitanzarequin , edo Caridadearequin,
 gueren viotz guciz maite degula , ta ha-
 ren Mandamenduac gordetzen ditugula.
 Obeditu behar diogu bada Jaincoari , hanc
 aguintzen diguna , eguiten degula ; oto-
 iz , edo oracio eguin behar diogu , be-
 har deguna escatzen diogula ; hari zor za-
 ion , ohorea berari bacarric eman behar
 diogu , ta besteric ez degu hondratu be-
 har , beragatic baicic ; ez-ta bera ere , be-
 rac eracusten duan , eran baicic. Bigar-
 rengo Mandamenduan aguintzen digu
 Jaincoac , ez daguigula Juramenturic ,
 eguiaren gañean , behar danean , ta gauz
 onen gañean , baicic. Mandamendu be-
 rean debeatzen zacu *blasfemia* : hau dà
 Infernucò hitzcuntza , eta Jaincoari , ta
 Santuai bidegabezco hitz gaiztoac esatea.
 Irugarrengo Mandamenduac aguintzen di-
 gu , Igandea gorde dezagula , Jaincoac
 Mun-

Mundua eguin , ta atseden zuan , egunaz oroitzen guerala ; ta Jesu-Christo illen artetic viztuzan , eguna gogoan daucagula : eta emen bertan sartzen dira gañeraco Jaiac , eta Pestac. Guclac gorde behar ditugu , Jaincoari atseguitaco, lan onetan diardugula , Jai osoetan Necazarien escu-lanic eguiten ez degula, Meza osoa enzuten degula , Christau-doctrina enzuten degula , becatutic , ta becuraco bide gucietatic igues eguiten degula.

Galdeac , ta Erantzuc.

G. Cer dà Jaincoa adoratzea?

E. Gure Jaun gorenari bezala ohore ta agur eguita.

G. Nola , edo cèr bidez hondratzen degu Jaincoa?

E. Fedcaren , Esperanzaren , ta Caridadearen bitartez ; edo Jaincozco sinistez , Christau-ustez , ta Ceruco maitanzaz.

G. Nola adirazten degu , onesten degula Jaincoa , ongui nai diogula , ta maitè degula?

E.

- E. Bere Mandamenduetan aguintzen diguna eguiten degula.
- G. Cillegui dà criaturai , edo Jaincoac eguinac diran gauzai , hondra ematea?
- E. Bai , Jaincoari beguiratu , ta bera-gatic hondratzen ditugula.
- G. Cillegui dà Juramentu eguitea?
- E. Bai , Juez , edo Aguintariren bateg aguintzen duanean , eta eguin bide andiren bati indarra eman behar zaionean.
- G. Cer dà gure artean Laurembata , edo atsedeteco eguna?
- E. Anciñaco leguean Laurembata zàn bezala , orain Jesu-Christoren Legue berrian dà Igandea , ta onetara datoz gañeraco , gorde behar diran , Jaiac eta Pestac.
- G. Certan ari behar degu egun orietan?
- E. Oracio-guiten.
- G. Eta certan gueiago?
- E. Dotriña icasten.
- G. Cer dira Jaietan eguin ez behar diran gauzac?
- E. Becatua , ta Necazariai dagozten escu-lanac.

XVI. IRACURTZA.

LAUGARREN , BOSTGARREN , TA
seigarren Mandamenduac.

LAUgarrengo Mandamenduac , umeaf
 aguintzen diena , dà heren Gura-
 soac hondratzea , haec eracusten diena,
 humilqui enzutea , aguintzen duena , egui-
 tea , haen atelecac eta castiguac emequi
 eramatea , eta gauz gucietan laguntzea.
 Gurasoen contra eguiten diran , utsac
 contuzcoac dira , eta beste lagun urcoen
 contra eguiten diranac basio , andiagoac.
 Onez gañera aguintzen digu hondra dit-
 zagula Ipizticuac edo Obispoac , Eliza-
 co aguintariac , Sacerdote , edo Mez-
 emalleac , Eleiz-arzai , ta Eleiz-guizonac,
 eracusten diguen , *Maisuac* , Nagusi-
 ac , ta gurequico escuren bat duen , guciac.
 Bai-ta ere aguintzen digu , hondra deza-
 gula Erreguea , ta errespetoa ecarri die-
 zagula , haren ordez aguintzen duen,
 Cargudunai , ezaguturic , Jaincoac ipiniac
 dirala guciac , cein bere toquian. Bots-
 gar-

gartengò Mandamenduac eragozten eta debeatzen du inor iltzea, besteri desho-rezco, ta bidegabezco hitz gaiztoac esa-tea, gaitzen bat eguiten digunari ordaña biurtzea, nor nai gaitzeste, ta begui-tan artua iduquitzea, gaizqui naizco aser-retasuna, gaincz eguina edo gueiegua. Seigarrengoac debeatzen ditu escu-uqui-tze ciquin itsusi, behar ez diran, ara-guizco atsegin, ta lan galgarriac. Gor-de behar dà biotza asmo, gogo, edo Jaunaren beguetan ongui ez dirudien, pensamentuetatic. Igues eguin behar degu lagun gaiztoetic, alferqueriatic, jan-edan gueieguitic, janci edereguietatic, eta mundutarren andi-nai arri, eta eraquerietatic.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Nola hondratu behar ditugu Ait-
amac?

E. Eracusten digüena, ongui artzen de-gula, eta aguintzen digüena eguiten degula.

G. Gauza gaiztoa dà Gurasoi damu,
M
nai-

- naigabe , ta atsecabe egultea ?
- E. Nola ere dan , eta ez chiquia.
- G. Nor dira gure Izpiritu edo Animen Aita espiritualac ?
- E. Obispoac , Sacerdoteac , ta Cerura-có bidea eracusten digüen , guciac.
- G. Certara gueiago behartzen gaitu Mandamendu onec ?
- E. Erregueari , ta haren ordecoai obeditzera.
- G. Inor iltzea debeatzen duan , Mandamentuac eragozten du inor jotzea , colpatzea , zauritzea , heritzea , eta edocen gaitz eguitea , dala animan , dala gorputzean ?
- E. Hori ezecen , bai-ta norbaiti bidegabezco hitzac esatea ere.
- G. Cillegui dá gaitz eguin digunari , gaitza biurtzea , ta arganaco becaitza , gaitzerizcoa , edo gorrotoa biotzean gordetzea ?
- E. Ez orrelacoric , inori opa behar ez dio gaitzic , ez-ta iduqui bear ere inor ganaco gaitzerizcoric , edo gorrotoric.
- G. Cer dà , seigarrengo Mandamenduac araguzco becatuaren icenaren azpian debeatzen diguna ?
- E.

E. Arāguari atseguin ematen dioen lan-
lizun desonestu guciac.

G. Araguari dagozcan, ichura gaiztoco
gauzac icustea, eta haiei beguira ego-
tea becatu dà?

E. Bai: icustea, beguiratzea, hitz-
quetac, gogoetac, pensatzea, gu-
ciac, dirà debeatua.

XVII. IRACURTZA.

**AZQUENECO LAU MANDAMEN-
duac.**

ZAZPI-garren Mandamenduac debe-
catzen du ostutzea; edo besteri be-
re ondasunac, edo hacienda quentzea;
naiz dala issilic, azpitic, engañioz, ta
Jabea ohartzen ez dala; naiz aguerrian,
eta nai, ta nai ez Jabeari bere gauza
quentzen zaiola, edo bere ondasunetan
caltè eguiten zaiola; bestec guri gurea
quentzea naico ez guenduquean bezala.
Inori ecer quendu badiogu, biurtu behar-
diogu, bestela barcatuco etzacu becatua.
Cer bait behar badegu, gueren nequea-

E. Arāguari atseguin ematen dioen lan-
lizun desonestu guciac.

G. Araguari dagozcan, ichura gaiztoco
gauzac icustea, eta haiei beguira ego-
tea becatu dà?

E. Bai: icustea, beguiratzea, hitz-
quetac, gogoetac, pensatzea, gu-
ciac, dirà debeatuac.

XVII. IRACURTZA.

**AZQUENECO LAU MANDAMEN-
duac.**

ZAZPI-garren Mandamenduac debe-
catzen du ostutzea; edo besteri be-
re ondasunac, edo hacienda quentzea;
naiz dala issilic, azpitic, engañioz, ta
Jabea ohartzen ez dala; naiz aguerrian,
eta nai, ta nai ez Jabeari bere gauza
quentzen zaiola, edo bere ondasunetan
caltè eguiten zaiola; bestec guri gurea
quentzea naico ez guenduquean bezala.
Inori ecer quendu badiogu, biurtu behar-
diogu, bestela barcatuco etzacu becatua.
Cer bait behar badegu, gueren nequea-

requin irabaci behar degu, edo Jaincoaren icenean escatu behar degu. *Zortzigarrenac* debeatzen du testimonio falsoa, edo guezurrezco lecucotasuna. Esan nai du, Justiciac lecucò edo testigù deitua dānac, ez diola iñori egotzi behar, eguin ez duan gaitzic, ez-ta bestela ere. Orobat debeatzen du Mandamendu onec, estalia dagoan, iñoren becatua aguertzea barreatzea, ta besteri esatea; bai-ta nolanaizco guezur guciac ere, batez ere lagun urcoaren caltecò diranac. *Bederatzigarren* Mandamenduac debeatzen ditu, Ezconzaz camporaco, araguiaren atseguin gusto, ta lan ciquin desonestuen cuticia, ta nai galdua; bai-ta gauz honen oroitzapena, edo berac nai duala, buruan ta gogoan erabiltea, ta onela, bere barrumbean araguiaren atseguin galgarría artzea. *Amargarrenac* cragozten du, besteren ondasunac zucen contra, edo bide-gabez nai izatea; baña bide onez, cillegui dà, bestec gure gauzac bide onez nai izatea, cillegui dan bezala. Deseo edo nai gaiztoetic jaiotzen dira becatu guciac; eta ez-degu eguiten,

be-

behar-gabeco hondra edo andi-naiaç , on-
dasunen guciegui zalè izateac , eta ara-
guizco atseguin-gurac eraguiten ez di-
gun , gaitzic.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cergatic cillegui ez dà besteren
hacienda ostutzea?

E. Cerèn guc naico-ez-guenduquean,
guri bestec gurea quentzea.

G. Becatu dà , engañioz , ta azpitic be-
zala ostutzea?

E. Nola-nai dà becatu.

G. Cillegui dà , besteri quendua bere-
ztat gordetzea?

E. Ez : biurtu behar dá hal-dan
lasterrena.

G. Guezurrezco lecucotasuna , edo tes-
timonia , Justiciari dagozcan eguite-
coetan ezecen , beste edocin gau-
zatan ere debeatua dago?

E. Beti dà becatu , eta gaitzic eguin ez
duana salatzea debeatua dago.

G. Cillegui dà , inorc eguin duan , be-
catuaz hitz eguitea?

- E. Ez baldin orretaracò behar , edo premi andiric ez-pa-dago.
- G. Cillegui dà guczurra esatea?
- E. Iñola ere : beti esan behar dà eguia.
- G. Cer dà , bederatzi-garren Mandamenduac debeatzen duana?
- E. Atseguin ciquin desonesten cuticia ta naiqueria.
- G. Eta amar-garrenac?
- E. Besteren ondasunaren nai ta cuticia.
- G. Cergatic debeatzen dira cuticia oec?
- E. Ceren becatu-ric gueien en etorqui, ta iturburu diran.

XVIII. IRACURTZA.

ELEIZ AMA SANTUAREN LENENGO iru Mandamenduac.

ELEIZA gure Ama dà , ta orregatic eguin behar degu , arc esaten diguna , eta aguintzen diguna. Bost gauza dira , Eleizac aguintzen dizquigunac. *Lenengoa dà Igandeetan , eta gordè behar diran , beste Jaietan Meza osoa enzutea. Bigarrena dà urtean bein bederic confesatzea,*

- E. Ez baldin orretaracò behar , edo premi andiric ez-pa-dago.
- G. Cillegui dà guczurra esatea?
- E. Iñola ere : beti esan behar dà eguia.
- G. Cer dà , bederatzi-garren Mandamenduac debeatzen duana?
- E. Atseguin ciquin desonesten cuticia ta naiqueria.
- G. Eta amar-garrenac?
- E. Besteren ondasunaren nai ta cuticia.
- G. Cergatic debeatzen dira cuticia oec?
- E. Ceren becatu-ric gueien-en etorqui, ta iturburù diran.

XVIII. IRACURTZA.

ELEIZ AMA SANTUAREN LENENGO iri Mandamenduac.

ELEIZA gure Ama dà , ta orregatic eguin behar degu , arc esaten diguna , eta aguintzen diguna. Bost gauza dira , Eleizac aguintzen dizquigunac. *Lenengoa dà Igandeetan , eta gordè behar diran , beste Jaietan Meza osoa enzutea. Bigarrena dà urtean bein bederic confesatzea,*

satzea, edo *lenago*, *iltceco perillie uste*
ba-du. *Irugarrena dà Pazcò loratuan*, edo
Garaizumacoan Comulgatzea. *Laugarrena*
dà Eleiz Ama Santac aguintzen digune-
an, *barantzzea*. *Bostgarrena Amarrenac*,
eta Premiciac pagatzea. Eleizaren lenda-
 vico *Mandamenduac aguintzen du*,
Igandectan, eta *gañeraco Jaietan Me-*
za nausira, *Vezperetara*, *Sermoietara*, eta
 beste *Eleizquizun-etara joan ecin danac*,
Mezà osò bat beinzat, *gogotic devocio-*
arequin, ta *certan ari dan*, *ohartuaz en-*
zun dezala. *Bigarren Mandamendua dà*,
urtean bein bederic, edo *lenago*, *iltze-*
co zorian ta perillean jarten ba-dà, edo
comulgatu behar-ba-du, bere *Apez-aitari*
 bere *becatu guciac confesatzea*, ta *aitor-*
tzea. Ez dà *erraz*, *confesatzeco premia*
gabe, ain *luzarò irautea*; eta *becatu*
andiac eguin ezquero, alic *lasterrena Ja-*
incoaren gracion jartera, *leiatzen ez di-*
ranac, ez due *mereci Christauaren ice-*
nic. *Irugarrengoac aguintzen du*, *Pazcò*
Garaizumacoan comulgatzea, eta *Jesu-*
Christoren Gorputza artzea, *urtean bein*
guichienez, *bacoitzac bere Erricò Elei-*
zan.

zan. Ez dio orregatic Elefzac Inori era-
gozten, Aldareco Sacramentua maizago
artzen; aitziric naico Inque, comulga
litezquean guciac, enzuten dituen, Me-
za gucietan, ancinaco Christauac eguin
oizuen bezala. Ezagumenduan sartu ez
diran, aur gazteac, eta cer dan gauz
ona, eta cer gaiztoa, ez daquienac, ez
daude behartuac, azqueneco Manda-
mendu dec bioc esaten duena, eguitera.

Galdeac, eta Eranzuac.

G. Cergatic gorde behar ditugu Eli-
zaren Mandamenduac?

E. Ceren Eliza gure Ama dan.

G. Esaitzu haren Mandamenduac.

E. 1. *Igandeetan &c.*

G. Certara bada gaude guchienez be-
hartuac Igandeetan, eta beste Ja-
ietan?

E. Meza osoa enzutera.

G. Eta ascò dà Mezatan egotea?

E. Ez: beguiratu behar dà, certan da-
goan.

G.

- G. Gueren becatuac noiz bait confesat-
zera , behartuac gaude ?
- E. Bai , urtean bein bederic.
- G. Eta cergatic ?
- E. Becatuaren locardan dembora luce-
an ondatuac ez egoteagatic.
- G. On dà sarritan comulgatzea ?
- E. Bai , ta alà nai luque Elizac.
- G. Ordea eguin bidè hau betetzeco , ta
cumplitzeco , noiz , ta cembat al-
diz comulgatu behar da ?
- E. Urtean bein beintzat bai.
- G. Eta cèr egunetan ?
- E. Bazcò loratua , edo Jesu-Christo
viztu zan , Garaizumaco Bazcoa de-
ritzanaren egunetan.
- G. Humè chiqui gazteac , jaio ciranetic,
cembat-garren urtean dira comulga-
tu-beharrac ?
- E. Cer dan gauz ona , ta cer becatua,
ezagutzera eltzen diran , urtean.

XVIII. IRACURTZA.

ELEIZAREN BESTE BI MANDAMENDUAC.

ELIZAREN langarrengo Mandamenduac dio, berac aguintzen duanean, eta berac esaten dituan, egunetan barautu gaitezela: eta barau-egun oec dira Bazco - aurreco Garaizumaren berrogei egunac; orrela barautuaz, ta lan ónac eguñiaz, prestatu, ta zucendu gaitecen, gure Jauna illen artetic viztu zan, egunaren Pestà andiraco. Onez gañera aguintcendu Eleizac, Garta-temporetan, edo urteco lau demboretan, eta Vigilietan barautzea. Urtearen lau demborac dira Uda-berria, Uda, Ud-azquena, ta Negüa. Dembora ba-coitzean barautu behar dà aste baten iru egunetan, asteazquenean, ostiralean, eta laurembatean. Vigiliac dira, barautzeco, Elizac bereci, ta autu dituan, Pesta-Vezpera bàtzuéc. Barautzea dago araguiric, ta bestè janari debecaturic ez jatean,

tean , ta egüñean otordu , edo bazcari
 bacar bat baicie ez eguitean , ta orì ère
 egüerdi ondoan. Cillegui dà barau-egun-
 etan , arratsean eguin oi dan , afari-usia
 edo Colacioa ; baña eguin behar dà,
 Jaincoaren bildur diran , Cristau ònac
 eguin oi duen bezalacoa. Mandamendu
 onec debeatzen du , ostiral lauremba-
 tetan , eta Garaizumaco Igandeetan ara-
 guia jatea ; ostiralean Jesu-Christoren
 eriotza , ta pasioagatic , eta lauremba-
 tean beraren obi , edo Sepultura-gatic.
 Badira beste barau-egunac ere ; baña ez
 Erri gucietan era batecoac ; bacoitzac,
 bere Errian eracusten diran , barauac
 eguitea , asco du. Bost-garrengo Man-
 damenduac aguintzen du , *Elizari Amar-
 ren - premiciac eguitea*. Beharra egulten
 duan , Languilleari zor zaio bere saria.
 Gure ona gatic , guri Ceruracò videa
 eracusteagatic , necatzen dira , Mez-esa-
 ten , Sermoi-guiten , Sacramentuac ema-
 ten , ta gañeraco Elizquizunetan ari di-
 ran , Apaizac , eta Eliz-guizonac : zor
 zaie beraz , vicitzeco , behar duena.
 Ancinacò leguean Jaincoac bere hitzez
 aguer-

aguerrian aguindu zuan , horducò Eliz guizonai amarrenac ematea. Oraingo Jesu-Christoren Legue berrian ez du esaten Jaincoac , cembat eman behar dans baña Elizac aguintzen du , berarentzat behar dirala lenengo frutuac , eta amarretatic bat Apaizenzat. Amarren-premiciac eguiteco usadioa Erri gucietan ez dà bat : eguiteco onetan bacoitzac jarraituco dio , bere Errian ecusten duan, usò , ta oiturari. Christauac ez daude behartuac , amarren-premiciac onenetic eguitera ; baña siñale charra dà , berentzat ónena artu , ta Jaincoari , eta Elizari adiñona ematea.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Certarà behartzen gaitu , baraua aguintzen duan Mandamenduac?

E. Aragui , ta beste janari debecaturic ez jatera , ta egunean otoruntz , edo othordu bat baicic ez eguitera.

G. Tà othorduz campora ecer jan diteque baru-egunetan?

E. Gauza guchi , eta afari-usia dala, bai.

G.

- G. Afari-usi onetan, edo Colaciotan cembateraño jan diteque?
- E. Christau ònac, ta Jaincoaren bildurtiac jan oi duen, ambateraño.
- G. Certacò barautu behar guera Garai-zumaco egun gucietan?
- E. Bazcò - Pestà andiraco presta-gaitcenzat.
- G. Cer dirà urteco lau demborac?
- E. Dira urtearen dembora bacoitzean aterà behar diran, astecò iru barau egunac.
- G. Cergatic Elizac Ostiral larumbàtetan debeatcen dù aragua?
- E. Guri Jesu-Christo gure Jaunaren Passioa, ta Sepultura gogoràcitzeagatic. Orain debecu onetan ez dà sartzen Larembatà.
- G. Cembat Amarren, eta certatic eguin behar dà?
- E. Obispaducò, ta Erricò besteac eguiten-duentic, eta aec bezala.
- G. Onena eman behar zaio Amàrrenari?
- E. Ez beinzat gaiztoena, bada Jaincoac emànac dira guciac, eta siñale charra dà, ònena beretzat artu, ta Jaincoari, ta Elizari adiño-na ematea.

XIX. IRACURTZA.

SACRAMENTUENA.

GUC gueren indar ùtsaquin ecin da-
 guiquegu , Jaincoac bere Manda-
 meductari , aguintzen diguna : orreta-
 raco berac bere graciarequin lagundu
 behar digu , lagunz hau Sacramentuen
 bidez ematen digula. Sacramentuà dà,
 ecin ecusi ditequean , graciaren siñale
 aguri dana , eta berac , gure animeta-
 ra dacarren , gracia ezagurazten digu-
 na. Ala Bataioco Sacramentuan , bata-
 iatzen danaren gorputza urac campotic
 bustitzen , eta garbitzen duan , dembo-
 ra berean Jaincoaren graciac barrondie
 garbitzen du anima , ta quentzen dio be-
 catuaren narrioa , edo manchà. Sacra-
 mentu bat artzen duan edoceñec , Jain-
 coac eracutsi dituan eguien sinismenic,
 edo federic baldin badu , eta artzeco,
 behar dan bezala prestatzen ba-da , se-
 gurù jaquinic ba-dagoque , Mundu one-
 tan vici gueralà , jaquin dezaquegun am-
 bate-

batean , ba-duala , ondasunic andiena dan , Jaincoaren gracia. Jesu-Christo gure Jauna dà Sacramentuac utzi zizquiguna , bere Odol , Pasio , ta Eriozaren merecimendu , ta irabaciac guganatzeco , ta guretzat izateco ; eta utzi cituan , guc , animen vicitzaraco behar degun , guciraco. *Bataioaren* videz sartzen guera Elizaren colcoan , ta uraren , ta Espiritu Santuaren bitartez jaiotzen guera berriz , eguiten guera Christau , ta Jaincoaren , ta Elizaren humè. *Confirmacioac* ematen digu , Jaincoac eracutsi dituan , eguiac , len baño viciroago , eta viotz guciagorequin sinisteco , indarrà. Eucharistiac , *Comunioac* , edo Jesu-Christoren Gorputz Santuaren Aldarecò Sacramentuac maiatzen , ta mantentzen gaitu , ta ematen die gure animai , vicitzeco , behar duen , mantenua. *Penitenciac* sendatzen ditu gure animen gaitzac , eta eritasunac. *Azquen-olladurac* ematen dizquigu horduan animaco , eta gorputzeraco behar ditugun laguntzac , eta indarrac. *Ordenac* ematen dizquigu , Eliz-gauzac eguiteco , guri Ceruco

ruco videa eracusteco , behar ditugun,
 Apaizac , eta Eracusleac. *Ezcontza* , edo
 Matrimonioa dà , humez bein mundua,
 ta guero Cerua onèz , ta Santuz be-
 tetzeco , Jesusec utziricaco , Sacramen-
 tua. Oec dira zazpi Sacramentuac.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Cer gauza dirà Sacramentuac ?

E. Dirà Jaincoaren graciaren , siñalè
 sentigarri , aguirì diràn , batzuec.

G. Tà graciaren behar guera ?

E. Bai baldinbere : ori gabe ccin da-
 guiquegu gauz onic.

G. Ondasun andiren bat dà beraz Sacra-
 mentuac , behar dan bezala , artzea ?

E. Oraingo vicitzan dan andiena.

G. Norc utzi cituan Sacramentuac ?

E. Jesu-Christo gure Jaunac.

G. Certaco ?

E. Bere odol garbi , preciotsu , valiot-
 suaren irabaciac , eta merecimendu-
 ac guganatzeco.

G. Cembat dira Sacramentuac ?

E. Dirà zazpi.

G. Esaitzu.

E.

E. Lenengoa , Bataioa. Bigarrena , Confir-
 macioa. Irugarrena , Penitencia.
 Laugarrena , Comunioa. Bostgarre-
 na , Azquen-oliadura. Seigarrena ,
 Ordena. Zazpigarrena , Ezcontza ,
 Matrimonioa.

XX. IRACURTZA.

BATAIOA.

ECIN iñor sartu diteque Jaincoaren
 Erreinuan , lenago urez , ta Espi-
 ritu-Santuz berrirò jaioa ez dàla. Gui-
 zon guciac ill ciran , Adanen Sagar-ja-
 te gaiztotic cetorquien , becatu origi-
 nal , edo jatorrizcoaren bidez ; ta ba-
 taiatzen diran , guciac vizten dira Jesu-
 Christogan. Gucientzat beharra dà ve-
 raz Bataiocò Sacramentua ; bai-ta aur
 jaio-berrientzat ere. Acia ta anditua ba-
 da , bataiatzen dan , guizona , edo
 emacumea , eta berac eguin-icaco be-
 catuac dituana , oriec ere barcarzen za-
 izea bere bataioan , bere becatu etor-
 qui originalarequin batean ; bai-ta orieci

E. Lenengoa , *Bataioa*. Bigarrena , *Confirmacioa*. Irugarrena , *Penitencia*. Laugarrena , *Comunioa*. Bostgarrena , *Azquen-oliadura*. Seigarrena , *Ordena*. Zazpigarrena , *Ezcontza*, *Matrimonioa*.

XX. IRACURTZA.

BATAIOA.

ECIN iñor sartu diteque Jaincoaren Erreinuan , lenago urez , ta Espiritu-Santuz berrirò jaioa ez dàla. Guizon guciac ill ciran , Adanen Sagar-jate gaiztotic cetorquien , becatu original , edo jatorrizcoaren bidez ; ta bataiatzen diran , guciac vizten dira Jesu-Christogan. Gucientzat beharra dà veraz Bataiocò Sacramentua ; bai-ta aur jaio-berrientzat ere. Acia ta anditua bada , bataiatzen dan , guizona , edo emacumea , eta berac eguin-icaco becatuac dituana , oriec ere barcarzen zaizca bere bataioan , bere becatu etorqui originalarequin batean ; bai-ta orieci

egoten , Infernura beharra ere. Oner-
 taraco , bataiatzen danac , ongui jaquin,
 eta sinistu behar du Jesu-Cristoren Le-
 gue Santua ; eman behar du , Legue
 onec diona , eguiteco hitza ; utzi be-
 har ditu Satanas , ta haren lanac , ha-
 ren arrotasun , eta arinqueria guciac ;
 aguindu behar du , obetò vicicò dàla
 aurreracoan , ta gordecò dituala Jaincoa-
 ren Mandamenduac. Bataiatzen dàna,
 aurrà ba-dà , haren ordez Ait-amà Pon-
 tecoac eranzuten due , eta hitza ematen
 due. Bataioa eguiten dà , bataiatzen dà-
 na , gài-n-bèra urez bustiaz , dembora
 berean esaten duala , ori eguiten duanac:
*Nic bataiatzen zaitut Aitarean , ta Se-
 mearen , ta Espiritu-Santuaaren icenean.*
 Al-ba-dà , Elizan eguin behar dà Bata-
 ioa , ta Apaizac eguin behar du ; ba-
 ña estutasunean , edo premian edoce-
 ñec , naiz guizonac , naiz emacumeac,
 eguin dezaquean , gauza dà , ta daquia-
 nac , eguin behar duana ; Bataio gabez
 galdu ez dedin Anima. Bataioa ecin
 eguin diteque baten gañean bi bider,
 eta inhor ecin bataiatu diteque , bein ba-
 ño , gueiagotan.

- G.** Certacò behar dà Bataioa ?
- E.** Ceruetaco Errèinuan sàrtzeco.
- G.** Nolà eguiten dà Bataioa ?
- E.** Bataiatzen danari, burutic berà ura egozten zaiola, eta horduan hitz batzuec esaten dirala.
- G.** Cein dirà hitz oriec ?
- E.** *Nic bataiatzen zaitut &c.*
- G.** Cèr eguiten du Sacramentu onec ?
- E.** Quentzen ditu becatu guciac.
- G.** Cer becatu bada izan al-dezaque aur jaio - berriac ?
- E.** Du becatu jatorrizcoa, edo becatu originalá.
- G.** Nondic datòr becatu ori ?
- E.** Adanec eguin zuàn, becatuagandic.
- G.** Ezagumentuan sartu ezquèro, edo ezagüerara elduz gueroz, bataiatzen danac, cer eguin behar du ?
- E.** Sinistu, ta aitortu behar ditu, Cristau-Dotriñac eracusten dituan, eguia sinis-beharrac.
- G.** Cein dirà, bataiatzen dánac utzi behar dituan, gauzac ?

- E. Demonioa , haren lan ; arrotasun,
eta arinqueriac.
- G. Cer aguindu behar du ?
- E. Jaincoaren Mandamenduac gorde-
tzea.
- G. Ordea Aur jaio-berriac nola eguin
al dezaquec , esan deguna ?
- E. Aen ordez Ait-amà Pontecoac egui-
ten due gucia.
- G. Bataiatu diteque iñor bi bider ?
- E. Ecin bataiatu diteque , bein baicic,

XXI. IRACURTA.

CONFIRMACIOA.

BAtaioaren ùrreneco Sacramentua dá
Confirmacioa. Ongui lizateque , gu-
ciac Sacramentu hau artzea ; ez dá or-
dea beharrezcoa , edo , nai , ta nai ez,
artu behar dana , vorondatezcoa baicic ;
eta orregatic etzaie ematen aurrái , ba-
taiatu , ta berealacoan , ezpada , orre-
taràco jaquin behar dana , icasten dué-
nean. Guràsoac eracutsi behar die con-
tùz hèren humeaj dotriña , ta al bezàm-
batean,

- E. Demonioa , haren lan ; arrotasun,
eta arinqueriac.
- G. Cer aguindu behar du ?
- E. Jaincoaren Mandamenduac gorde-
tzea.
- G. Ordea Aur jaio-berriac nola eguin
al dezaquec , esan deguna ?
- E. Aen ordez Ait-amà Pontecoac egui-
ten due gucia.
- G. Bataiatu diteque iñor bi bider ?
- E. Ecin bataiatu diteque , bein baicic,

XXI. IRACURTA.

CONFIRMACIOA.

BAtaioaren ùrreneco Sacramentua dá
Confirmacioa. Ongui lizateque , gu-
ciac Sacramentu hau artzea ; ez dá or-
dea beharrezcoa , edo , nai , ta nai ez,
artu behar dana , vorondatezcoa baicic ;
eta orregatic etzaie ematen aurrái , ba-
taiatu , ta berealacoan , ezpada , orre-
taràco jaquin behar dana , icasten dué-
nean. Guràsoac eracutsi behar die con-
tùz hèren humeaj dotriña , ta al bezàm-
batean,

bateari , bialdu behar ditue Elizará , ta Escòlara , Apaizac , eta Escola - Maisuac eracusten duena , icàstera : ta dotriña jaquin gabez , húmeac galtzen ba-dira, Gurasoac emán beharçò dioe Jaincoari contu estua. Humeac erè eguin behar due eguñ-ala eren aldetic , dotriña icàsteco , ta eren vician aztutzen , ez ùz-teco. Icasí duenac , Apezpicù Jaunagana joan behar due , ez du iñore alabaña , arc baicic , Confirmacioa emateco , escuric. Zabáltzen ditu Apezpicuac bere escuac , confirmatu behar dituan Aurrèn buru-gañetan , ta , Espiritu Santuari deituaz , gantzutzen ditu gucien becoquiac , olioç , ta balsamoz eguñicaco , Chrismarequin , ta gantzutzean , eguiten dio bacoizari gurutcearen seña-lea. Sacramentu onec gure animetan eguiten duana , dá , gu , izan behar degun bezálaco Christau ónac eguitea , Jesusen gurutzeaz ez lotsatzeco , etsaiaren tentu gaiztoai gogortzeco , ta Jaincoaren icenean edoceiñ nequè emequi eramateco. Ori adiracitzeco , ematen dio Obispoac , confirmatzen dánari , ma-salleçò

sallecò bat. Confirmacioa ez dà ematen,
 bein baicic , Bataioa baño , ez gucia-
 go , ta ez guichiago.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. NOIZ eman behar zaie Aurrari
 Confirmacioa ?

E. Orretaràco , behar adiña , icasiric
 daudeneán.

G. Nor dà , Aurrari dotriña eracusteco,
 arta , ardura , edo contua iduqui
 behar duana ?

E. Ait-amac daude orretará behartuac.

G. Eta cer dà Aurrèn eguin bidea ?

E. Eracusten zaiena , contuz enzun , ta
 buruan ondo gordetzea.

G. Nor dá , Confirmacioa emateco , ahal-
 escu-indarra duana ?

E. Apezpicua , edo Obispoa bacarric,
 eta ez besteric.

G. Cer dá , Apezpicuac orretan eguiten
 duana ?

E. Zabaltzen ditu bere escuac , confir-
 matu behar diran , Aurrèn gañean,
 Espiritu-Santuari deituaz.

G. Eta cér gueiago ?

E.

E. Eguiten die Chrisma Santuarequin becoquian gurutze bat.

G. Cer esan nai dù guci onec?

E. Christau òn behar bezalacoac izateco, artzen degula Sacramentu oncà bidèz Espiritu-Santua.

G. Certan dago Christau behar bezalacoac izatea?

E. Etsaiaren tentamendu guciai, gogortu, ta contra-guitean, ta Jesusen icenean edocein bidè-gabè, naigabè, ta atsecabè jasotzeco, prest egotean.

G. Artu diteque Confirmacioa, bein baño, guciagotan?

E. Ecin artu diteque, bein baicic.

XXII. IRACURTZA.

ALDARECO SACRAMENTUA.

Comunioa, edo Aldareco Sacramentua dà, gure Animen jan-edanarecò, ta sustenturaco, Jesu-Christo gure Jaunac ematen dizquigun, bere gortutza, ta odola. Beregan gorderic dau-

E. Eguiten die Chrisma Santuarequin becoquian gurutze bat.

G. Cer esan nai dù guci onec?

E. Christau òn behar bezalacoac izateco, artzen degula Sacramentu oncà bidèz Espiritu-Santua.

G. Certan dago Christau behar bezalacoac izatea?

E. Etsaiaren tentamendu guciai, gogortu, ta contra-guitean, ta Jesusen icenean edocein bidè-gabè, naigabè, ta atsecabè jasotzeco, prest egótean.

G. Artu diteque Confirmacioa, bein baño, guciagotan?

E. Ecin artu diteque, bein baicic.

XXII. IRACURTZA.

ALDARECO SACRAMENTUA.

COMunioa, edo Aldareco Sacramentua dà, gure Animen jan-edanarecò, ta sustenturaco, Jesu-Christo gure Jaunac ematen dizquigun, bere gortutza, ta odola. Beregan gorderic dau-

ca Sacramentu andi onèc ogui-ardoer
 azalpe batean, edo oguiaren, ta ardoa-
 ren ainzura, ta iduripean, oguiaren,
 eta ardoaren soñecoz, ta accidentez es-
 taliric, Jesus gucia bere gauza gucia-
 quin. Mezàn eguiten dà, eta ematen
 dà Sacramentu hau; ta Mezà dà, Je-
 susec, bere buruaz, guizon-emasume
 gucièn becatuen barcamendùraco, bere
 Ait-eternoari gurutzecan eguin cion, pre-
 sent, doai-escañi, edo Sacrificioaren
 iduri, edo anzà, eta Jesusen gurut-
 zeco eriotza gure oroizmen, edo memo-
 riarà eracarten duana. Anciñaco Le-
 guean Jaincoari eguin-oi-cizaizcan, Sa-
 crificioac etziran, Jesu-Christoc bere
 viciaz gurutzeco eriotzarequin bere Ait-
 eternoari eguin cion, escañi, edo Sa-
 crificioaren anz-iduri, eta ichurà baicic:
 ta gurutzeco Sacrificio andi onèn oro-
 izmen, edo memoria berritzen du, ta
 haren indarra, ta valioa guganatzen du,
 egunoro esateco, Jesu-Christoc utzi ci-
 gun, Mezac. Mez-emalleac adirazten
 du Mezan, nola Jesu-Christoc eguin
 zuan Sacramentu hau, ill behar zuan,

vezperan ; Esaten ditu , horduan arc
 esan cituan hitz bèrac , eta hitz oen
 indarrez ogui gucia aldatzen dà bereala
 ùne artan bertan Jesu-Christoren gor-
 putz izatera , eta ardo gucia haren odo-
 lera , aldatze hau beguiz ecusten ez-
 bada ere. Gure beguiac Sacramentuan
 ecusten duen , gucia dà ogui mee , edo
 hostia zurì baren iduri , edo ainzurà
 bat ; Baña fedecac , edo siniste onac
 aguertzen digu Jesusen guizatasuna , ta
 Jesus beraren Jaincotàsuna , eta , rasun
 oriei dagozten , gauza guciac. Jesus
 osò , gucia dago oguiaren , ta ardoa-
 ren ichura-pean , ta berebat gucia osoa
 ichura bacoitzaren zatiric , edo pisca-
 ric chiquianean : ez dà orregatic quen-
 tzen Jesus Cerutic , àn dagoan hurà
 berà dà , emen Munducò Sacramantu
 gucietan dagoana.

Galdeac , ta Eranzuac.

G. Cér gauza dà Aldareco Sacra-
 mentua ?

E. Dà , oguiaren , ta ardoaren anz ta
 iduri-

iduripean dagoan Jesu-Christo gure Jaunaren gorputza , ta odola.

G. Certacò eman citzacun onela?

E. Gure Animen bazcari , ta sustentu izàteco.

G. Non eguiten dà Ecuscari miragarri hau?

E. Mezaco Sacrificio Santuan.

G. Cer dà Meza?

E. Jesu-Christoc bere buruaz gurutzecò eriotzarequin Ait-eternoari gure aldè eguin cion , Sacrificioaren anziduri eracuslea.

G. Cer mirari , edo milagro dà , Mezan guertatzen dan , Milagroa?

E. Ogui-ardoac itzulten , eta aldatzen dira Jesu-Christoren gorputzera , ta odolera.

G. Nola eguiten dà aldàera ori?

E. Sacerdoteac esaten dituan , Jesusen horducò hitzen bitartez , ta indarrez.

G. Nola ordea izan alditeque ori , baldin hitz oriee esanez - gueroz ere , gūc àn , lén bezala , oguia , ta ardoac ecusten ba-degu?

E. Ori guertatzen dà , ceren ogui-ardoac

doac àn ez egonagatic , àn guelditzen dira aen iduri , edo ainzurac.

G. Nola bada ezagutucò degu , àn da-goala Jesu-Christo ?

E. Fedè , edo siniste onaren bidez ; bada alà dala sinisteco , asco dà , ez dan gauzaric ecin esan dezaquean , Jesu-Christoc esatea.

XXIII. IRACURTZA.

COMUNIOA.

MAIZ jan gabe , eta osasun gabe , ecin iñor vici diteque. Animaren ispirituzco vicitza dà Jaincoaren gracia : ecin beraz vici diteque , graci hau ematen duan , Aldareco Sacramentua noiz edo noiz artu gabe. Cembat gueiagotan bat comulgatzen dan , edo Jesusen gorputz Santua artzen duan , ambat indartsuago , portitzago , sendoago , quementsuago , ta vizcorrigo eguiten dà Animaren gracizcò vicitza. Il-lac ecin jan dezaquee : ta osasun-dinari on eguiten dion , janari berac ga-itz

doac àn ez egonagatic , àn guelditzen dira aen iduri , edo ainzurac.

G. Nola bada ezagutucò degu , àn da-goala Jesu-Christo ?

E. Fedè , edo siniste onaren bidez ; bada alà dala sinisteco , asco dà , ez dan gauzaric ecin esan dezaquean , Jesu-Christoc esatea.

XXIII. IRACURTZA.

COMUNIOA.

MAIZ jan gabe , eta osasun gabe , ecin inor vici diteque. Animaren ispirituzco vicitza dà Jaincoaren gracia : ecin beraz vici diteque , graci hau ematen duan , Aldareco Sacramentua noiz edo noiz artu gabe. Cembat gueiagotan bat comulgatzen dan , edo Jesusen gorputz Santua artzen duan , ambat indartsuago , portitzago , sendoago , quementsuago , ta vizcorrago eguiten dà Animaren gracizcò vicitza. Il-lac ecin jan dezaquee : ta osasun-dinari on eguiten dion , janari berac ga-itz

itz eguiten dio eri gassoari. Orobat bada, gracizco vicitza, ta osasunarequin Aldarecò Màira dijoanari, on eguiten dio Sacramentu Santu onèc; baña certan ari dan, eta cer artu behar duan, ohartu gabe, dijoanari, eta Jesusen gorputz Santua, beste edocein janari baliz bezala, becatu mortalean dagoala, artzen duanari, gaitz eguiten dio. Onela comulgàtzen dānac, bere condenacioa, ta Infernura joan-beharra jaten, ta edaten du. Sacramentu Santuaren irabaciac, eta ondasūnac Comuniotic aterai dituanac, ongui prestatuoric, ta apainduoric eraman behar du bere Anima, Fedeco mirari, edo Misterioac ongui sinistuz, batez ere Sacramentu miragarri artan dagoala eguiāzqui gure Jaincò Jestis bere gauza guciaquin; eta joan behar du, bere etsai guciaquin lenagò baqueac eguiniac, ta iñori gaitzic nai ez diola. Eta nola Aur chiquiac, gauz oec ezagutzeco, gai ez diran orregatic ematen etzaie Comunioa, ongui icasi arteraño. Sacramentu hau, vicitza onetatic besteraco avian daudenai,

ematén zaienean , deitzen dá *Viaticoa*,
edo bideracoa , ceren dan , Animac Ce-
ruraco bere bidé lucé andian behar du-
an , jatecoa.

Galdeas , ta Erantzuc.

G. Gauza beharra , ta premiazcoa
dá , Aldareco Sacramentua noiz bait
artzea ?

E. Vicio ba-guerà , bai : hura dá ala-
baña gure Animaren sustentua.

G. Cer eguiten zaio , bacan , edo gui-
chitan comulgatzen danaren , Ani-
mari ?

E. Argal , indar gabe , eta charqui
egotea.

G. Ordea on eguiten die Jesu-Chris-
toren gorputzac , Comunioan artzen
duen , guciai ?

E. Ez guciai , ez-pada gracion daude-
nai , eta behar dan bezala , ongui
prestaturic , eta zucenduric artzen
duenai.

G. Nolacoac dira , Jauna artzeco , be-
har diran , prestatzeac , zucen-bide-
ac , ta apaingarriac ?

E.

- E. Lendavician , becatuaren loietatic garbitu , ta graciaz apainduric egotea.
- G. Cergatic bada becatu mortalac iñori eragozten dío comulgatzea?
- E. Ceren becatua dan , Anima illtzen duan , erio gaiztoa , eta illic dagoanac , janaria ecin artu dezaquean.
- G. Eta nolacoac díra , comulgatzeco behar diran , gañeraco prestanzac , ta zucendu-vidéac ?
- E. Fedea , edo Jaincoac aguertu dizquigun , eguien siniste onà , eta vertutè guciac , berezquirò lagun urco-arequico charidadea , onerizcoa , eta ongui naia.
- G. Gaizqui andia dá , becatu mortalean dagoala , comulgatzen dánac , eguiten duana?
- E. Bere condenacioa , eta infernura beharra jatea , adiñacoa.
- G. Cer dà *Viatico* , edo bideracoa?
- E. Dà , illtzeco urrean arquitzen díran , eriai ematen zaien , azquencò Comunioa.

XXIV. IRACURTZA.

PENITENCIA, EDO CONFESIOA.

BAATAIOA , ta Confirmacioa artuz-
 gueroz , ez luquee behar Christa-
 uac eriotzaraño , Aldareco Sacramen-
 tua baicie. Baña ceren bataiaturicaco
 gueienac galtzen duen horduco beren
 gracia , ta Jaincoari zor zaion amorea,
 eta ceren eguiten dituen becatu andi
 aguitz itsusi , Animaren iltzalle , ta In-
 fernurà - malle diranac , bataiatuz gue-
 roco becatu orien baremenduraco, eman
 izandu cigun Jesusec Confesioco Sacra-
 mentua. Ordea Sacramentu onequin be-
 re burua becatuen azpitic atera nai
 duanac , Jaincoagan sinisten duala , ta
 haren bildür dàla , artu behar du , Ja-
 incoa , bere becatuaquin aserratu dua-
 laco , damua , gueiago orrelacò gaiz-
 quiric ez eguiteco , asmo sendo egui-
 azcoarequin. Damu-urriqui onec nola
 ere-bait miñez ausitzen du becatariaren
 viotza : orregatic deritza *contricioa*, edo
 ausit-

ausitzea , eta dà , Jaincoari zor zaion,
 amore ongui-naiaren asiera bat. Bi al-
 detaracoa dà damua , edo dolorea : ba-
 ta dà *onesdamua* , onetsi behar luquean,
 Jaincò guciz ona aserratu dualaco , be-
 catariac viotzetic arzen duan , damua.
 Besteari deritza *izu-damua* , Infernuac
 izutu , eta arà crorteco , bildurrac be-
 catariari ar - crachten diona. Biac dira
 ònac ; baña bàta , bestea baño , obea-
 goa. Ona dà *izu-damua* ; ordea berez
 utsic , ta Confesio gabe ez dà , beca-
 tuac barcatzeco diña. Obeagoa dà , *Con-*
tricioa esaten diogun , *ones-damua* , ascò
 dà alabaña , batec dituan , becatu guci-
 ac barcatzeco. Orrà becatariac , ongui
 confesatzeco , lenengotic eguin-behar
 duana. Guero ecusi behar du , cembat
 diran , eta nolàcoac , eguin dituan , be-
 catuac ; eta aitortu , ta aguertu behar
 diozca Confesariari , diranac , diran
 bezala , bat ere utzi gabe , ta estali ga-
 be. Azquenic artuco du ematen zaion
 penitencia , ta absolvicioa. Confesariac
 eman oi dituen , penitenciac dira Ora-
 cioa , baraua , ta limosna , ta oei da-
 goz-

gozten, gauzac; ta ematen ditu, be-
 catuaren anditasunari, eta becatariaren
 eguin-ahalari beguiratzen diola.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. Norentzat eguiña dà Confesiocò
 Sacramentua?

E. Bataiatuz gueroz, becatu mortaleñ
 bat eguin duanarentzat.

G. Cer dà becatu mortala?

E. Dà Jaincoaren gracia galeraetzen du-
 ana, eta beticò eriotza Infernuan
 darraicana.

G. Cer dà, Sacramentu Santu hau artze-
 co, Christauac eguin behar duana?

E. Damuz beteric, Confesariari bere
 becatuac aguertzea, ta arc aguint-
 zen duana, eguitea.

G. Cer gauza dà *Contricioa*?

E. Dà becatu eguiñaz damutzea, eta
 berriz ez eguiteco, asmoa artzea.

G. Gaitz etsi-diteque becatua, Jaincoa
 onetsi gabe, eta Jaincoari ongul-
 nai etzaiola?

E. Jaincoari zor zaion, amorioa andi,

berò , iracequia ez izanagatic ; amorì onén asieraren bat beinzat behar dà.

G. Nolà esan behar diozca Confesariari becatariac bere becatuac ?

E. Bat ère isildu gabe , ta estali gabe.

G. Ccr dà Satisfacioa , edo becatuarequin eguin zàn , zorraren ordaña ?

E. Confesariac aguintzen duana , eguitea , eta arc emanicaco penitencia betetzea , edo cumplitzea.

G. Nolacoac izan oi dira penitencia oec ?

E. Dira Oracioac , barauac , ta limosnac.

XXVI. IRACURTZA.

GAI BERARI DARRAIGANA.

BEcatariac bere becatuac esan , eta eman zaion , penitencia eguiteco, hitza eman ez gueroz , Confesariac eman behar dio absolucioa , eta bareacioa, becatuen locariac ascatzen diozcala , baldin baderitza , becatuac eguiñaz , damutua arkitzen dala becataria ; ezperre ucatu behar dio , ta loturic utzi behar

berò , iracequia ez izanagatic ; amorì onén asieraren bat beinzat behar dà.

G. Nolà esan behar diozca Confesariari becatariac bere becatuac ?

E. Bat ère isildu gabe , ta estali gabe.

G. Ccr dà Satisfacioa , edo becatuarequin eguin zàn , zorraren ordaña ?

E. Confesariac aguintzen duana , eguitea , eta arc emanicaco penitencia betetzea , edo cumplitzea.

G. Nolacoac izan oi dira penitencia oec ?

E. Dira Oracioac , barauac , ta limosnac.

XXVI. IRACURTZA.

GAI BERARI DARRAIGANA.

BEcatariac bere becatuac esan , eta eman zaion , penitencia eguiteco, hitza eman ez gueroz , Confesariac eman behar dio absolucioa , eta bareacioa, becatuen locariac ascatzen diozcala , baldin baderitza , becatuac eguiñaz , damutua arkitzen dala becataria ; ezperre ucatu behar dio , ta loturic utzi behar

hâr du ; lèn cegoan bezala , arequin batean Infernura joan nai ez-padu. Beccataria , bere becatuaz ongui damuturic, otè dagoan , edo ez , ez dà , bai dà, dudan ba-dago Confesaria , luzatu behar dïo aldi bateraño absolvicioa , egunen batzuen buruan biurtzeo , epea ematen diola. Behar dan bezala , artzen dan , absolvicioac quentzen diozca beccatariari becatu guciac , diranac dirala. Chiqui ariñac , erraz eguiten diran , ta erraz barcatu ditezquean , venial , edo barcagarriac ba-dira becatuac ; oec , confesio gabe ere , barcatu ditezque, Oracioac , limosnac , eta beste onelacò lan ònac eguiñaz. Baña , cembat ere chiquiac dirudien becatu arin venialac , garbitu behar guerà orictatic , eta beguiratu behar guerà berriz eguitetic. Becatu chiqui oec dituela , Jaincoaren gracion iltzen diranac , eta becatu latti andien zor gucia pagatu gabe dàudenac , oec , eta aec eramaten due , illezgueroz , Purgatorioco pena deritzan , neque - pen bat. Andic irteten dira, emen vici gueranoc , aen alde eguiten ditu-

ditugun , oracio , ta lan onacatic ; edo beinzat arintzen , ta guichitzen zaizte ango nequeac. Orretaraco dira , Eleizac , onelacò oracio esaten duanari , edo alaco lan on eguiten duanari , batzuetan ematen diozcan , Indulgenciac , edo barcamenac ; bada gure eguiñ-ahalac , becatuzcò zor gucia pagatzeco , diña ez diranean , Eleizac laguntzen digu , Jesu-Christoc utzi ciozcan , ondasun , irabaci , ta merecimenduac , Santuenaquin batean guganutzen dituala.

Galdeac , eta Eranzuac.

G. Confesariac , bere becatuac esaten dituanari , eman behar dio absolvicioa ?

E. Ez , eguiazco damua duala , deritzanean baicic.

G. Cer gaitz eguiten dù Confesariac , ongui beguiratu gabe , absolvicioa ematen dionean , eman behar etzationari ?

E. Aren becatu bera bere gañean arzea.

G.

- G. Ba-dà Confesio - beharric , becatu chiqui arin venialen barcatzeco?
- E. Oriec , bestelà ere barcatu ditezque.
- G. Nola bada?
- E. Oracioac esanaz , limosnac emanaz , ta lan ónac eguifiaz.
- G. Cer dà , *Garbiteguia* esan nai duan, *Purgatorioa*?
- E. Dà , Jaincoari eren becatuen zor gucia pagatu gabe , ill ciranac , beste Munduan darameen neque-pena.
- G. Cèr zor dira oriec?
- E. Edò dira becatu venialac , edò osororò pagatu gabe , guelditù ciran, beste becatuen zòrrac.
- G. Nola arindu ahal ditzaquegu *Purgatorioco* Animen nequeac?
- E. Accatic Jaincoa erregutuaz.
- G. Cer dà *Indulgencia* , edo barcamenà?
- E. Becatuen zorraren aldè eguin behar ditugun , paguen utsac betetzeco, Eleizac eguiten digun , gracia , eta mesedea.

XXVII. IRACURTZA.

AZQUEN-OLIADURA.

AZQUEN - oliadura , edo. Oleacio
 Santua dà , eri gassò , edo. enfer-
 moai , ongui illtzeco , gracia , ta la-
 guntza ematen dien , Sacramentua. Bar-
 catzen diozca eriarì , dituan , becatu
 chiquiac , oriez damutzen bazajo ; eta
 sendatzen du , beste becatuac eracarri
 dioen , argaltasunetic. Ematea dio asco
 indar , eriotzaco horduan , beste dem-
 boraz baño , portitzago , ta gogai-car-
 riago izan oi diran , etsaiaren tentamen-
 du gaiztoac garaitzeco ; ta eman ere ba-
 diozaque eriarì , ongui badagoca , le-
 neco bere osasuna. Sacerdoteac dira,
 Apezpicuac bedeicaturicaco olioarequin,
 Sacramentu hau ematen duenac , olio
 bedeicatuarequin eria gantzuten duela
 beguietan , belarrieran , sudurretan , aho-
 an , escuetan , oñetan , ta guerri-alde-
 an , edo becatu - vide gucietan , eta
 gantzute bacoitzean escatzen dioela Ja-
 incoari

incoari , barca ditzaizcala eriarri , bere gorputzeco zati , edo parte bacoitzarequin eguin dituan , becatuac. Oleacio-co Sacramentua artzeco dagoanac , Jaincoaren gracion egon behar du : ta illtzeco perill urcoan arquitzen diranentzat eguina bad-ere , obè da , azquen-azqueneraño ichodon gabe , eriarri , bere cordean , eta ezagueran dagoala , ematea.

Galdeac , ta Erantzuc.

- G.** Cein da , Azquen-oliaduraco Sacramentuari dagocan , gracia?
- E.** Ongui illtzeco gracia.
- G.** Cer becatu dira , Sacramentu onéc barcatzen dituanac?
- E.** Becatu arin baregarriac , edo venialac , ta beste becatuen ondore-ac , ta cutsuac.
- G.** Cer guciago eguiten du?
- E.** Ematen dio eriarri , eriotzaco horduan etorri oi diran , tentu gaiztoac garaitzeco , indarra.
- G.** Nor dira , Sacramentu hau eman behar

behar duen , Ministroac ?

E. Sacerdoteac.

G. Nori eman behar zaio ?

E. Ultzeco perill urcoan dauden , eriañ.

G. Ta orretaraco ichodon behar dà az-

quenetaraño ?

E. Ez , lenagotic eman behar zaie,

obeto jarric , eta prestatuac artu

dezeen.

G. Cergatic eguiten dira ganzuera asco ?

E. Gorputzeco zati ascorequin eguiten

diran , becatuac adirazteagatic.

G. Cerequin eguiten dira ganzuera oec ?

E. Apezpicu Jaunac bedecaturicaco ,

olioarequin.

XXVIII. IRACURTZA.

ORDENA.

ORdena dà , Jesu-Christoc bere Eleiz Santuari , behar duan , guciraco Maisuac , Animaco Gurasoac , Sendat-zalleac , Juezac , ta gañeraco Apaizac emateco , utzi cigun , Sacramentua . Joan ciran Mundutic gure Jaunaren Apostolu , ta
Disci-

behar duen , Ministroac ?

E. Sacerdoteac.

G. Nori eman behar zaio ?

E. Ultzeco perill urcoan dauden , eriañ.

G. Ta orretaraco ichodon behar dà az-
quenetaraño ?

E. Ez , lenagotic eman behar zaie,
obeto jarric , eta prestatuac artu
dezeen.

G. Cergatic eguiten dira ganzuera asco ?

E. Gorputzeco zati ascorequin eguiten
diran , becatuac adirazteagatic.

G. Cerequin eguiten dira ganzuera oec ?

E. Apezpicu Jaunac bedecaturicaco,
olioarequin.

XXVIII. IRACURTZA.

ORDENA.

ORdena dà , Jesu-Christoc bere Eleiz
Santuari , behar duan , guciraco
Maisuac , Animaco Gurasoac , Sendat-
zalleac , Juezac , ta gañeraco Apaizac ema-
teco , utzi cigun , Sacramentua . Joan ciran
Mundutic gure Jaunaren Apostolu , ta
Disci-

Discipuluac, edo icasleac; ordeca Eliza beticoa dà, ta, Munduac dirauen arteraño iraun-beharra, ta ecin diràu-que languille, ta servitzari gabe: orregatic bada Apostolu, ta Discipuluen ordez, behar ditu bere eguin-quizun-etaraco Guizon ordenduac. Ordentzen danac, artzen du, bere burua santugiteco gracia ezecen, baita bestei Sacramentuac, ta oen vitez graci santuguille bera emateco, escua ere. Apezpicuac, edo Obispoac baicic, ecin eman ditzaque bestec Confirmacioco, ta Ordengo Sacramentuac. Sacerdoteac, edo Mez-emalleac dira Obispoari laguntzeco; ta Obispoari, ta Sacerdoteai heren Elizquizunetan laguntzeco, ta pobreen contua iduquitzeco, dira Sacerdoteen Apaiz-urrenac, Evangelariac, edo *Diaconoac* deriztenac. Orrà Ordena nagusienac, ta gòrenac: oec baño chiquiagoac, eta beragoac dira beste bost. Lenengoa *Subdiaconoa*, Diaconoaren azpicòa, edo ürrena, ta Epistolaria. Bigarrena, *Acolitoac*, Meza-lagunzalleac, Obispoari jarraitzeco, ta Elei-
zan

zan candel-arguiac , ta vinagerac Me-
 zara eramateco , eguiñac. Irugarrena,
Iracurleac , Profeciac Elizan iracurteco,
 diranac. Laugarrena *Exòrcista* , edo Con-
 juratzalleac. Bostgarrena , *Ostiariorac* , edo
 Ate-zaiac , Elizaco ateac , idiqui behar
 zaiztenai , zabaltzeco , ta ichi behar za-
 iztenai , ichitzeco , contua duenac. Orta-
 andi , ta chiqui , gucitara zazpi. An-
 dienac dira Mez - emallearena , (emen
 aditzen dà Obispoarena) Evangelari-are-
 na , ta Epistolari-arena : chiquiagoac di-
 ra gañeraco lañac. Ecin artu ditezque
 guciac batetan , ezpada banaca , ta ba-
 ta bestearen ondoren , beetic asi , eta
 gorenà dagoan , Sacerdociora igotzen
 dàla. Lenengo malla dà buruco illea
 ebaqui , ta coroa eguitea ; ez dà ordea
 Ordena , baicic ordentzeco videà , eta
 Apaiz - gai eguiteco , ta Apaiz - jancia
 ipintzeco ; ceremonia santu bat. Eleiza
 servitzatzen duenac , deitzen dira Apai-
 zae , ta Eliz guizonac ; ta , oez ateron-
 cean , Christau-artean vici diranac , Eliz-
 gueac , edo Legoaç.

Galdeac, ta Eranzuac.

G. CEIN dà , Ordenaco Sacramentuac ordentzen danari ematen dion, gracia?

E. Dà , Sacramentuac emateco , ahal-escua ; ta Eleizaquizonen bat aguerrian eguiteco , podorea.

G. Nor dirà graci hau osoa artzen due-nac?

E. Obispoac.

G. Orrela oec eman ditzaquee Sacramentu guciac?

E. Bai , ta Confirmaciocoa , ta Ordenacoa ere.

G. Apèzgoac , edo Sacerdòteac eman ditzaquee Confirmacioco , ta Ordenaco Sacramentu oec bioc?

E. Ez , oriec Apezpicuarentzat gordè-ac daude.

G. Cein dà Diacono-aren , edo Evan-gelari-aren eguitecoa?

E. Obispoari , ta Mez-emalleari heren Elizquizonetan laguntzea.

G. Nola derizte beste Ordenai?

E.

E. *Subdiaconoac*, edo *Epistolariac*; *Acolitoac*, edo *Meza-lagunizalleac*; *Iracurleac*; *Conjuratzalleac*, edo *Exorcistac*; *Ostiarionac*, edo *Ate-zaiac*.

G. *Cembat dirà gucitara?*

E. *Zazpi.*

G. *Cein dira Sagraduac*, edo *nagusiac?*

E. *Mez-émallearena*, *Evangelariarena*, ta *Epistolariarena.*

G. *Ordendu diteque bat bertatic Me-
zaz*, beste *Ordenaric artu gabe?*

E. *Ez*, lenago igaro behar du *Ordena-
malla guciétatic.*

G. *Cer gauza dà*, *Prima* esaten diogun *ille-baquitzea*, edo *ordendu behar duanari*, buruan eguiten zaion, *Coroa?*

E. *Dà Eliz jancia artzeco*, *Ceremonia Santu bat.*

G. *Eta cer eguiten du Ceremonia onec?*

E. *Len Elizan eguitecoric etzuan*, *guizona* eguiten du *Eliz-guizon*, ta *Apaiz.*

XXIX. IRACURTZA.

EZCONZA.

JAincoac lendavicico guizona eguin zuanean, eman cion lagunzat emacume bat; eta lenengo guizon-emacume bioc-gandic, nai izandu zuan, jasio citecen beste guciac, ta onela eguin zuan Matrimonioa, edo Ezconza. Lendavicico guizonaren becatuagandic cetorren, gaitzeraco griña, ta macurrerac ciquindu, ta itsusitu zuan ezcon-lana; baña Jesu-Christoc biurtu zuan, aurrenetic zuan, garbitasunera; eta len guizonaren, ta emacumearen arteco artu-eman bat baicic etzana, eguin zuan Sacramentu, ezconduenzat ematen ciozcala, cegozcan, graci bereciac. Guizon batar baten, ta emacume batar baten arteco batasuna dà bada, criotzac ezpada, bestec ascatu ecin dezaquean, eta urratu ecin dezaquean, ezconz-locarria. Ezconduac ongui-nai behar dioe alcarri, anima birequin, gorputz bat baicic.

baicie , ez-palira bezala ; lagundu behar dioe alcarri vicitzaco lan , ta neque gucietan ; billatu behar due , jaiotzen zaizten , humeac acitzeco , behar duena ; eracutsi behar die hitzez , ta vicitza onarequin , hume bèrac jaquin behar duena ; orrela oec aen ondoren lurraren gañean Jaincoa servitza dezaen ta guero Ceruan mendeen mende gucietan zorionecoac izan ditecen. Senar-emazteen arteco batasuna dà Jesu-Cristoren , ta Eleizaren arteco batasunaren anz-iduri , ta imagiña. Baña Ezcontza chit santua , ta ona bad-ere ; obeagoa dà , ezcondu gabe , gorputz , ta anima osotorò garbi vicitzea. Ezconduac , erdi bi eguiñac bezala , daude Jaincoaren , eta munduaren bitartean ; erdi bata Jaincoarenzat duela , ta beste erdia Munduarenzat , heren echeen , ta echetiarren contua iduqui behar duenac bezala. Donçella garbi ezcondu gabea ascatua , ta libre dago , bere buru osoa Jaincoari emateco. Baña viciera garbi hau ez dà gucienzat eguiña ; dà alabaña , Jaincoac , nai duanari , ematen diona.

Galdeac , eta Eranzuac.

- G.** NORC eguin zuan Matrimonioa?
- E.** Jainco berac Munduaren asieran.
- G.** Eta nore biurtu zuan bere anciñaco garbitasunera?
- E.** Sacramentu izatera , goratu zuan, Jesu-Christoc.
- G.** Cer adiracitzen dū Matrimonioac?
- E.** Jesu-Christoc bere Elizarequin duan , batasuna.
- G.** Cein dà , Sacramentu oní dagocan, graci berecia?
- E.** Senar - emazteac , gorputz bat baicic , ez-palira bezala , alcar onetsizeco , ta maitatzeco , ematen duan , gracia.
- G.** Eta cèr dator guero Senar - emazteac alcarri zor dioen , amorio maitanzatic?
- E.** Alcarri neque , premia , ta behar gucietan laguntzea.
- G.** Cer dà heren humeen alderaco eguin behar duena?
- E.** Ardura , arreta , edo cuidado andi

di bat iduquitzea , ta Jaincoaren bildurrean acitzea.

G. Ezconduen viciera baño beste vicivide obeagoren bat Ceruraco ote da?


E. Bai baldin bere : eta dà , ezcondugabe , ta araguzco lanetan , gorputzez , edo gogoz bat-ere cutsutugabe , vicitzea.

G. Cergatic bada dà ohea onelaco vicitza?

E. Ceren onela vici dana , Jaincoa servitatzeco , libreagoa , eta ascatuagoa dagoan.

G. Eta guciac vici ditezque onela?

E. Inola ere : Jaincoac , nai duanari , ematen dion , doaia dà alabaña vicitz ain garbia.





ARQUITEGUIA.


- I. *Iracurtza*: Munduaren eze-
reztic eguitea. orria 5.
- II. *Iracurtza*: Lencivico guizo-
naren becatua. 8.
- III. *Iracurtza*: Ugoldea, ta le-
gue naturala. 12.
- IV. *Iracurtza*: Abraham, eta
beste Patriarcac. 17.
- V. *Iracurtza*: Igitoco gatibuta-
suna, ta Pazcoa. 21.
- VI. *Iracurtza*: Israëldarren Bre-
mucio videa, ta legue escri-
bitua. 25.
- VII. *Iracurtza*: Israëldarraquin
Jaincoaren Testamentua, ta
niscalcar artzea. 29.
- VIII. *Iracurtza*: Idolatria. 35.
- IX. *Iracurtza*: David, ta Me-
sias. 38.
- X. *Iracurtza*: Samariaco Cisma
edo berezteq. 42.

ARQUITEGUIA.

- XI. *Iracurtza*: Profetèn gañean. 46.
- XII. *Iracurtza*: Babiloniaco ga-
tibusuna. 50.
- XIII. *Iracurtza*: Certan guelditu
ciran Juduac. 53.
- XIV. *Iracurtza*: Judu Espiritu-
còiac, ta aragui-corrae. 57.
- XV. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
Jaiotza. 61.
- XVI. *Iracurtza*: Oraindaño esan
danaren bilgura laburra. 66.
- XVII. *Iracurtza*: S. Juan Bautista. 73.
- XVIII. *Iracurtza*: Apostoluen Deia. 76.
- XIX. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
predicua. 79.
- XX. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
etsaiac. 83.
- XXI. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
Pasioa. 86.
- XXII. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
Eriotza. 90.
- XXIII. *Iracurtza*: Jesu-Christoren
piztea, edo Erresurrecioa. 93.
- XXIV. *Iracurtza*: Espiritu Santua-
ren etorrera Apostoluen gain. 97.
- XXV.

ARQUITEGUIA.

- XXV. *Iracurtza* : Gentilen Deia. 100°
- XXVI. *Iracurtza* : Eleiz-guitea. 104°
- XXVII. *Iracurtza* : Jesu-Christoren
ta Apostoluen iracustea. 108.
- XXVIII. *Iracurtza* : Jerusalemen gal-
tze-pena, ta erortea. 111.
- XXIX. *Iracurtza* : Eleizaren perse-
cucioa. 114.
- XXX. *Iracurtza* : Eleizaco baquea,
ta Mongeen asitzea. 117.



BIGARREN PARTEA, edo zatia.

- I. *Iracurtza* : Fedea, Espe-
ranza, ta Caridadea. 121.
- II. *Iracurtza* : Trinidadea, edo
Irutasun Santua. 125.
- III. *Iracurtza* : Jaincoaren Se-
mearen atagultzea, edo En-
carnacioa, ta gure Erospe-
na, edo Erredencioa. 129.
- IV. *Iracurtza* : Jesu-Christoren
Infer-

ARQUITEGUIA

001. Infernuetara jesteda, haren XX
001. piztea, ta Cerura igotzea. IV 133.
- V. *Iracurtza*: Azquen Juicioa. 136.
- VI. *Iracurtza*: Ispiritu Santua. 139.
- VII. *Iracurtza*: Eleizarena. III 143.
- VIII. *Iracurtza*: Santuen Comu-
nioa. X 147.
- IX. *Iracurtza*: Becatuen barca-
cioa. X 151.
- X. *Iracurtza*: Erresurreccioa, ta
bericò vicitza. 154.
- XI. *Iracurtza*: Aita gurecò
Oracioa. 158.
- XII. *Iracurtza*: Aita gurearen
jarraioa. 161.
- XIII. *Iracurtza*: Gañeraco otoiz,
edo Oracioac. 164.
- XIV. *Iracurtza*: Amar Mandamenduac. 169.
- XV. *Iracurtza*: Lenengo irú
Mandamenduac. 172.
- XVI. *Iracurtza*: Lau-garren,
bost-garren, ta sei-garren
Mandamenduac. 176.

ARQUITEGUIA.

- XVII. *Iracurtza* : Azqueneco lau
Mandamenduac. 179.
- XVIII. *Iracurtza* : Eleiz Ama San-
tuaren lenengo irú Manda-
menduac. 182.
- XIX. *Iracurtza* : Eleizaren beste
bi Mandamenduac. 186.
- XX. *Iracurtza* : Sacramentue-
na. 190.
- XXI. *Iracurtza* : Bataioa. 193.
- XXII. *Iracurtza* : Confirmacioa. 196.
- XXIII. *Iracurtza* : Aldarecò Sacra-
mentua. 199.
- XXIV. *Iracurtza* : Comunioa. 203.
- XXV. *Iracurtza* : Penitencia, edo
Confesioa. 207.
- XXVI. *Iracurtza* : Gai berari dar-
raicana. 210.
- XXVII. *Iracurtza* : Azquen-Olia-
dura. 214.
- XXVIII. *Iracurtza* : Ordena. 216.
- XXIX. *Iracurtza* : Ezconza. 221.

LIBURU ONEC DACAZQUIAN

uts guicien zucen-vida. *IVX*

Orria. Malla. Dio. Esan behar du.

3.	7.	noc	norc
13.	2.	oregatic	orregatic
14.	9.	edocien	edoecin
14.	14.	giz-cralleac	guiz-cralleac
15.	15.	castigatzeo	castigatzeco
21.	2.	Igitico	Igitoco
22.	25.	Igititoco	Igitoco
36.	19.	betetzat	beretzat
42.	22.	bestatan	bestetan
69.	23.	Igotitic	Igitotic
90.	1.	utzi	utzi
98.	25.	Ceruraco	Ceruto
170.	7.	doaber	alaber
191.	22.	animaco	animaraco



